



Berdintasun planak: diskurtsoa baino gehiago behar da

Jose Mari Esparza editoreari elkarrizketa



MARTXOAREN 8A

BIDE LUZEA BENETAKO PAREKIDETASUNERANTZ

Belaunaldi askotariko lau emakume batu ditu GOIENAK borroka feministaz hitz egiteko; zaintza, justizia soziala, matxismoa eta abar dituzte berbagai



MARTXOAREN 8A
ORRIALDE BEREZIAK / 21

Maren Lazpiur, Olga Lucia Restrepo, Arrate Landa eta Arantza Miguel eguaztenean Arrasaten. XABIER URZELAI

Udaltzainak su-armak erabiltzera behartzen dituen dekretua ez dute begi onez ikusten alkateek / 2

SINADURAK

	IÑAKI ETXEBESTE / 8		MAITE TOLEDO / 30
	EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI / 12		RAMON MARTIN / 37
	MALENA GONZALEZ ALTUNA / 16		MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 48

BULEGOAK ALOKAGAI
GARAIA PARKE
TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak

60 eta 1.000 m2 artean



Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46



Hemen
garbiketak

Ura bezain garbia




T.- 943 71 48 45

Udaltzainek su-armak erabili beharko dituzte

Pistolak eraman beharko dituzte soinean udaltzainek aurrerantzean; izan ere, onartu berri den dekretuak aditzera ematen duenez, urtebeteko epean su-armez eta bestelako materialez hornitu beharko dituzte tokiko-erakundeek euren polizia

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Josu Erkokak, Eusko Jaur-laritzako Segurtasun sailburuak, astean iragarri du Eusko Jaur-laritzak onartu duela "Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoaren armak, beste baliabide tekniko eta defentsako batzuk izatea eta horien guztien hornidura" arautzen dituen dekretua.

Aurrerantzean, su-armak

Dekretuaren onarpenarekin, udaltzainek suzko armak erabili ahalko dituzte; testu bidez adierazi dute dekretu horren xede nagusiak direla, alde batetik, "Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoak osatzen dituzten langileen armamentua eta beste baliabide tekniko eta defentsa-baliabide batzuk ezartzea eta homogeneizatzea, bai eta udaltzaingoetan praktiketako izendatutako funtzionarioena ere", eta, bestetik, "polizia-jardunaren koordinazioa eta eraginkortasuna hobetzea". Dekretuak adierazten du "tokiko-erakundeek" bermatu beharko dutela hornituko diren "baliabide tekniko eta defentsako guztiak gizonek eta emakumeek berdin erabiltzeko egokituta" egongo direla. Era berean, udal-errietako alkateek erabaki ahalko dute "polizia-zerbitzu



Arrasateko udaltzainak, kalean. J.M.M.

jakin batzuk armarik gabe ematea". Horretarako, alkateak erabakia "arrazoitu egin beharko du herriko udaltzaingoaren burutzak txostena egin ondoren". Dekretua datozen egunetan jarriko da indarrean; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean. Hala ere, udalek dekretua aldizkarian argitaratzen denetik urtebeteko epea izango dute materiala –armak eta munizioa– langileei hornitzeko, armategiak ezartzeko eta udaltzainek beren armen egoera egiazta dezaten

Segurtasuneko Zona Hotza izeneko gune bat sortzeko. Udaltzaingoak duten 5.000 biztanletik beherako herriei, ordea, dekretua EAeko aldizkari ofizialean argitaratu eta bost urte igarotakoan eskatu ahalko zaie hura betetzea.

"DEKRETU HORREK UDALEI ETA ALKATEEI ERABAKIMENA MUGATZEN DIE"

MAIDER MORRAS, ARRASATEKO ALKATEA

Armaren erabilera

Aurrerantzean udaltzainek su-armak erabiltzeko aukera izango badute ere, dekretuak jasotzen du "udaltzainek indarrean dagoen araudian ezarritako irizpide eta printzipioen arabera" erabili ahalko dituztela suzko armak. Beraz, "ezin izango dituzte armak erabili, salbu eta beren edo hirugarrenen bizitzarako edo osotasun fisikorako arrazoizko arrisku larria dagoenean, eta herritarren segurtasunerako arrisku larria dagoenean, eta egokitasun-, premia- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat etorritik". Horrez gain, udaltzainek ezingo dute suzko arma "larde-riaz erabili airera tiroak eginez, ihesiari ekin dion pertsona bat atxilotzeko", eta debekatuta egongo da "zerbitzutik kanpo eramatea, udaltzainburuak berriazko baimena eman ezean. Baimen hori salbuespenezkoa izango da, eta segurtasun-arrazoientzat eman beharko da".

Bailarako udalen kexa

Debagoieneko hiru udal-erri nagusietako alkateek ideia bera adierazi diote GOIENARI onartu berri den dekretuaren gainean: "Dekretu horrek udal autonomia mugatzen du". Maider Morrased, Arrasateko alkateak, dio dekretuak "udalei eta alkateei euren erabakimena" mugatzen diela eta "herrietako errealitatearentzako egokiak diren erabakiak hartzea" eragozten duela. Gorka Artolak, Bergarako alkateak,

"LANTZEN ARITU GAREN EREDUAREN AURKA EGITEN DU DEKRETU HORREK"

GORKA ARTOLA, BERGARAKO ALKATEA

gaineratu du "udaltzainen alde-rik armen erabilera orokortzeak" ez diola erantzuten Bergaran dituzten "segurtasun beharri-zei"; are gehiago, "urteetan lantzen" aritu diren "eredu polizia-laren aurka" egiten duela dio Artolak. Bergaran "gertutasuneko udaltzaingo eredu bat" bultzatzea dute-eta helburu. Izaro Elorzak, Oñatiko alkateak, ere ildo beretik jarraitu du; izan ere, adierazi du udaltzainak direla herritarrengandik gertuen dauden polizia, eta "haiengandik urruntzea eragin dezaketeneurriak" ezin daitezkeela "era orokortuan hartu".

Dekretu berri horrek zenbait aldaketa ekarriko ditzake udal-errietan; esaterako, ekonomia-ri dagokion alorrean. Alde horretatik, Artolak nabarmendu nahi izan du ez dagoela argi "Jaur-laritzak berak edo udalek" jasan beharko dituzten aginduak dakartzan gastuak –formakuntza, armen erostean, biltegitza-zean, eta abar–. Izan ere, bailarako hiru udal-erri nagusietako –Arrasate, Bergara eta Oñati– egoera kontuan hartuta, guztira 65 udaltzain daude –Arrasaten 30, Bergaran 21 eta Oñatin 14–. Gastuen kudeaketa udalarena izango balitz "udal-errietan eragin zuzena" izango lukeela aitortu dute hiru alkateek. Egoera ikusita, "tokian tokiko egoeraren arabera planak egitea eta horiek udal-erri-kin adostea" eskatu dio Artolak Eusko Jaur-laritzari.

"UDALTZAINAK HERRITARRENGANDIK URRUNTZEA ERAGIN DEZAKE NEURRIAK"

IZARO ELORZA, OÑATIKO ALKATEA

Tafallatik Bergarara, euskal utopikoen saria jasotzera

Bart jaso du 2024ko Monzon-Ganuzako saria Jose Mari Esparza (Tafalla, 1951) idazle eta editoreak (Txalaparta)

Eneko Azkarate Laspiur

BERGARA Seminarixoa aretoa bete egin zen Olaso Dorrea Fundazioaren sari banaketa ekitaldian. Fermin Balentzia kantariak *Si canta Tafalla, canta Euskal Herria* eskaini zuen; Bergarako Txistulari Ban-

dak eta abesbatza txiki batek *Gernikako arbola* eskaini zuten, eta Iratxe Esnaola Olaso Dorrea Fundazioko presidenteak eta Gorka Artola Bergarako alkateak Esparzaren ibilbidea eta lana goraipatu zituzten.

Monzon-Ganuzako Euskal Utopikoei Saria "euskal kultur-gintzari bizi osoko ekarpena egin izanagatik" jaso zuen Esparzak. Gala Knörr (Gasteiz, 1984) artista eta EHUKO ikertzailearen *He was the adventurer* artelana jaso zuen.

Ekitaldiaren aurretik, Tafalla eta Iruñetik etorritako senide, lagun eta hurbilekoek Olaso Dorreara bisita egin zuten Esparzarekin berarekin batera. Sari-tuari eginiko elkarrizketa dakar gaur *Puntua* aldizkariak.



Jose Mari Esparza, senide eta lagunekin, Olaso Dorrean, bart. ENEKO AZKARATE LASPIUR



AP-1eko Arrasateko irteera, Epeleko biribilgunean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

Biribilgunera sartzeko beste errei bat Epelen

Epeleko biribilgunea da Debagoiengan trafiko arazo gehien sortzen dituen gunetako bat. Bereziki, goizeko lanerako sarrera-orduetan. Hori konpontzeko, beste errei bat egingo dute AP-1etik; obra 136.538 eurotan esleitu dute, hiru hilabetean egiteko

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Sailaren menpeko den Bidegi erakundearen egiten ari da gune hartan. "AP-1eko irteeran, une jakin batzuetan, sortzen diren auto-ilarak gutxitzeko jarduna da. Gaur egun, goizeko lanerako sarrera-orduan -07:30-08:30- ilarak sortzen dira AP-1etik biribilgunera sartzeko adarrean. Arrasate aldetik GI-627tik datozen ibilgailuen trafikoa handia da eta AP-1etik biribilgunera sartu nahi dutenen mugimendua zaildu egiten da", diote Foru Aldundiko iturriek. Hain zuzen, hori konpontzeko dira azken asteetan egiten ari diren lanak; trafiko arazoak areagotu egin dira lanen ondorioz.

AP-1eko irteeratik biribilgunera sartzeko errei bakarria dago gaur egun. Eta obra horren bitartez, AP-1eko adarrean biribilgunera sartzeko beste errei bat ahalbidetuko dute; hau da, ibilgailu bi batera sartu ahal izango dira biribilgunera. Horrez gain, biribilguneko irlatxoak eraldatzen ari dira eta drainatze sisteman ere hobekuntzak egingo dituzte.

Obra 136.538 eurotan esleitu dute eta hiru hilabetetako epea dauka. "Behin neurri horiek aplikatuta, AP-1eko irteerako auto-ilaratan daukagun hobekuntza aztertuko da, neurri gehigarrien beharra erabakitzeko", adierazi dute Foru Aldunditik.

Elosuko mendatea, maiatzerako Bestalde, Bergaratik Elosua mendaterainoko errepidea berritzen ari dira azken hilabeteetan. Berez, asmoa zen lanak otsailerako amaituta edukitzea, baina eguraldiaren menpe daudela adierazi dute Diputaziotik. "Firmean azken geruza, mikro-aglomeratua, aplikatzea falta da. Geruza hori aplikatzeko tenperatura eta hezetasun egokiak behar dira. Neguan ez dira baldintza horiek ematen, eta maiatz aldera aplikatzea espero da. Ondoren, errepidea margotu egingo da", diote Bide Azpiegituretako Siletetik. Beste lanak aurreratuta daude: euri-urak hartzeko errepide ertzak, mendiari eusteko hormak, hesi berriak... Urrian hasi zituzten lanak, eta bost hilabete iraungo dutela agindu zuten hasieran.



MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ZUETAZ HARRO

Ahalduntutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.





Asteazkenean Bergarako batzokian egin zuten agerraldia JOKIN BEREZIARTUA

Debagoieneko sei kide EAJren zerrendan

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako Debagoieneko zerrenda-kideak aurkeztu zituzten asteazkenean, Bakartxo Tejeria zerrendaburuarekin batera. Martxoaren 8aren atarian, EAJk berdintasunarekiko duen konpromisoa aldarrikatu zuten hautagaiak

Iñigo Barrena Kortabarria BERGARA Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako Debagoieneko zerrenda-kideak aurkeztu ditu EAJk Bergarako batzokian, Bakartxo Tejeria zerrendaburuarekin batera. Guztira, Debagoieneko sei kide izango dira zerrenda horretan: Elena Lete (Bergara) 7. postuan; Aitor Urrutia (Eskoriatza) 8. postuan; Marijo Etxegoien (Oñati) 10. postuan; Agurne Juldain (Arrasate) 22. postuan; Josu Ezkurdia (Eskoriatza) 23. postuan; eta Maite Agirre (Bergara) 29. postuan.

Asteazkenean batzokian egindako agerraldian, Mikel Lete Gipuzko Buru Batzarreko kideak nabarmendu zuen bailaratik "esperientzia asko eta konpromiso handia" duten hautagaiak aurkeztuko direla: "Debagoieneko ordezkariarik onena da, ilusioz eta indarrez dagoena, eta gure bailararen eta Euskadiren alde lan egiteko gogoz".

Bakartxo Tejeria Gipuzkoako zerrendaburuak, berriz, EAJren

eredua azpimarratu zuen: "Oinarri sendoak eraikitzeke lan egitea, pausoz pauso aurrera egitea, helburu argiekin eta emaitza frogagarriekin".

M8aren atarian

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, Mari Etxegoien oñatiarrak aurreko belaundien ekarpenari eta garrantziari eman nahi izan zion balioa, lehenik eta behin, eta azpimarratu zuen EAJren zein alderdiko emakumeen berdintasunaren aldeko konpromisoa "historikoa eta ukaezina" dela, Emakume Abertzale Batzaren "lan aitzindaria eta aurrerakoa" gogora ekarrita. Era berean, adierazi zuen EAJko emakumeak

"ESPERIENTZIA ASKOKO ETA KONPROMISO HANDIKO HAUTAGAIK DIRA"

Emakume Abertzale Batzaren lekukoa hartu eta emakume haien ikuspegi sozial, berdinzale eta progresistaren ondorengoak direla: "Feminismoa ez da orain sortu Euskal Herrian, 100 urte dira feminismo abertzalea sortu zela; gaur egun baino iraultza handiagoa egin zuten gure aitzindariak".

EAJren asmoak

EAJk aurrerantzean dituen erronken artean zerbitzu publikoak hobetzen jarraitzea nabarmendu zuen Tejeriak, ekonomia eta kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatuz, kohesio eta justizia soziala indartuz eta euskaldunak erabakitakoa errespetatuz. Kooperatibismoa ere izan zuen hizpide; kalitatezko enplegua eta aberastasuna sortzen duen "produktzio-eredua" dela esan zuen. Horregatik, jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua eragiteko beharrezkoak diren baldintzak sortzearen "garrantzia" azpimarratu zuen.

"Harreman sendoa egiteko, aukerako esperientzia da"

LAIDA BENGEO HARRERA FAMILIA

Hirugarrenez arituko da Oporrak Bakean programan

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Saharako haurrei Hego Euskal Herrian oporrak igarotzeko Oporrak Bakean harrera programaren 38. edizioa aurkeztu dute. Laida Bengoa (Oñati, 1988) hirugarrenez izango da harrera familia horietako bat. Harekin izan da GOIENA, esperientzia horri buruz eta Saharako haurrek bizi duten egoerari buruz hitz egiteko.

Zenbat familia behar dira aurten?

Helburu moduan pandemia aurreko zifretara heltzea jarri dute; guztira, 300 bat familia behar dira. Gaur egun, gizartean gure beharrei begiratzen diegu gehiago, eta geroz eta familia gutxiago daude. Uda sasoa da, eta asko, agian, baldintzatu egingo du horrek. Arrazoia hori izango dela pentsatu nahi dut.

Debagoienean zenbat harrera familia daude?

Iaz, bost izan ginen, lau Oñatin eta bat Bergaran; batera egin genuen lan. Aurten, lau familiak errepikatuko dugu.

Nolako egoeran iristen dira haurrak?

Txikiak 8 urtekoak izaten dira eta hasierako egunetan nahiko galduta ibiltzen dira. Gure kasuan, hirugarren urtea izango da, eta beste begirada eta animo batekin iritsiko da; lehen aldiz iritsitakoan, aldiz, begirada galduta izaten dute hasieran eta neke handiarekin heltzen dira bidaia luze baten ostean.

Nolako egonaldia izaten dira?

Datozen haurrak gure egunerokotasunera ohitzen saiatu behar dugu; hau da, normaltasun baten

barruan jardutea. Saharan ez dute ezer egiteko bi hilabete horietan, eta, gainera, bero itogarriarekin egoten dira. Gurean gauza gutxi behar izaten dute ondo pasatzeko, eta oso erraz egokitzen dira.

Eta zuentzat nolako esperientzia izan da orain artekoa?

Bi uda guztiz ezberdinak izan dira. Oso aberasgarriak. Une batzuk nekezagoak izan daitezke, baina oso esperientzia polita da. Harreman sendoa egiteko aukera ematen duen esperientzia dela esango nuke. Oso ondo sentitzen zara modu horretan lagunduta.

Zerk bultzatu zintuen harrera familia izatera?

Gogoan dut txikia nintzenean Oñatira etortzen ziren haurrekin; lagun bat edo beste ere egin nituen, eta, ondoren, hango kanpamenduetan ere izan nintzen, eta oso jende jatorra zela iruditu zitzaidan. Hori izan daiteke arrazoi bat, baina, egia esan, ez nuen askorik pentsatu.

Ze baldintza bete behar dira horretarako?

Ez dago baldintza jakinik. Gogoia eta eskuzabaltasuna izanda nahiko da. Dena den, Oporrak Bakean programaren webgunean kontsulta daitezke oinarri guztiak.

"GOGOA ETA ESKUZABALTASUNA IZATEA NAHIKOA DIRA HARRERA FAMILIA IZATEKO"



Laida Bengoa hirugarrenez izango da harrera familia. GOIENA



Aritz Ameztegi, Elgetan egindako hitzaldian. JOKIN SALIDO

Energiaren gaineko hitzaldi zikloei hasiera eman diete

Energiaren Puntua bulegoaren baitan, bailarako egoera energetikoa eta energia-komunitateak dituzte hizpide

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Debagoieneko egoera energetikoaren eta energia-komunitateen gaineko hitzaldiak hasi berri dituzte. Lehena Elgetan egin zuten, asteazkenean, Debagoiena 2030ek, Ixotzen energia-komunitateak eta Elgetako Udalak elkarlanean antolatuta. Gainerako herrietan ere eredu bera errepikatuko da. Hain zuzen, D2030ek dagokion herriko energia-komunitatearekin eta udalarekin batera egingo du hitzaldia. Lehena eginda, hauek dira aurrera begira zehaztuta dauden datak: martxoaren 11n, Antzuolan, Olaran etxeko beheko aretoan (18:00); martxoaren 14an, Leintz Gatzagan, ludotekan (18:00); martxoaren 18an, Eskoriatzan, Ibarraundi museoan (18:00); eta apirilaren 10ean, Arrasaten, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan (18:30).

Elgetan lehenengoa

Eguaztenez Elgetan egindako hitzaldian, Aritz Ameztegi D2030eko energia arduraduna izan zen hizlaria, eta Debagoieneko zein Elgetako egoera eta aukera energetikoen berri eman zuen, D2030ek Teknaliari eskatutako txosten batean oinarrituta. Txosten horretan jasotzen da, alegia, biomasatik eta Debagoieneko teilatuetan plaka fotovoltaikoak jartzetik zein energia eskari hornitzera iritsiko litzaitekeen. Datuei erreparatu, Debagoieneko eta Elgetako datuak gaur egun ez dira onak. Elgetaren kasuan, adibidez, etxebizitzin

%95ak D, E, F eta G kalifikazio energetikoa lortu dute; sailkapeneko lau maila baxuenak. Hala ere, oraindik hobetzeko itxaropena dutela azaldu zuten.

Horrez gain, Ixotzen energia-komunitateak proiektuaren nondik norakoen, gaur egungo egoeraren eta martxan duen bazkidetza kanpainaren berri eman zuen.

Energia Puntua bulegoa

Debagoiena 2030 ekimenak urtarilean aurkeztu zuen bulego berria. Horren bitartez, energia-komunitateen sustapenerako informazioa eta bidelaguntza eskaintzea du helburu D2030 ekimenak. Bulegoa sortzerakoan, lau lan ildo finkatu zituzten: online bulegoaren bitartez, herritarren galderei erantzun eta energia-komunitate berrien osaketan lagunduko dute; laborategia energia-komunitateen inguruan lanean dabiltzan eragileei bideratua eta informazioa partekatzeko gunea izango da; ernamuina, beharrak identifikatu, soluzioak irudikatu eta elkarrekin erantzunak emateko gunea; eta dibulgazioaren eta ahalduzaren bitartez, sensibilizaziora eta herritarren ahalduzera bideratutako ekintzak egingo dira.

**HURRENGOAK,
ANTZUOLAN,
GATZAGAN,
ESKORIATZAN ETA
ARRASATEN**

Dementziari buruzko hitzaldia egingo dute, Afagik antolatuta

Datorren astelehenean izango da, martxoak 11, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 17:00etan

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Zaintzaileen lanari balioa emateko eta herritarrek alzheimerren inguruan kontzientziatzeke, *Dementziak: ezagutzen dituzu?* hitzaldia antolatu du Afagik, Gipuzkoako Gaixo

Alzheimerdunen Familiakoen Elkarteak. Datorren astelehenean izango da, Arrasaten, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, arratsaldeko bostetan. Hizlaria Maria Victoria Luce-ro izango da, elkarteko psiko-

logoa, eta hainbat alderdi azalduko ditu: dementziak eta horien ezaugarriak; nola komunikatu dementzia duen pertsona batekin eta jarduteko jarraibideak; eta gaixotasunak gaixoaren ingurune hurbilean duen eragina. Izan ere, alzheimerre edo bestelako dementziaren duen pertsona bat zaintzeak zama fisikoa, emozionala eta ekonomikoa dakarkio zaintzaileari. Asteleheneko hitzaldia doakoa da eta herritar guztiei zuzenduta dago.

Martxoaren 16an ta 17an

AGROMOTOR OUTLET AZOKA

Aukerako ibilgailuak eta 0km-koak

Marka askotakoak

Txingorak kaltetutako

Ibilgailu berregokituak

AGROMOTOR KONTZESIONARIOA
Armentigana 23
Gasteiz (Araba)

Martxoaren 16an
(10:00etatik 19:30era)

Martxoaren 17an
(10:00etatik 14:00etara)

945 150 812

PREZIO NAZIONAL HOBERENAK!

✓ **ASEGURUA DOAN***

Eta askoz gehiago...

Musika **Pintxoak** **Motor baten zozketa**

SARRERA DOAN

*Baldintzak kontsultatu

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Fagor Taldeko Aretxabaletako kooperatibak aro berri bati ekin dio: Javier Garcia San Martin (Aretxabaleta, 1971) izendatu zuten iaz, azaroan, kooperatibako zuzendari nagusi. Orain arte, Ulma Forjako Operazio eta Ekoizpen zuzendaria izan da, eta hogeitau urte baino gehiagoko esperientzia du zuzendaritza batzordeetan. Mondragon Unibertsitatean Ingeniari Tekniko Mekanikoko ikasketak egin zituen, eta, ondoren, Diseinu Mekanikoa ikasi zuen Lausanneko Eskola Politeknikoan (Suitza). Ikerlan zentro teknologikoko Diseinu Mekanikoko Departamentuko arduradun gisa lan egin zuen, eta, ondoren, hainbat kargu bete zituen Fagor Etxetresna Elektrikoetan; hango zuzendari industrialia izan zen. Orain, arduraren berria hartu eta hilabete batzuk pasata, kargu berriaren eta enpresaren osasunaren gainean egin du berba.

Zelan jaso zenuen Copreciko zuzendari izateko proposamena?

Korporazioko Giza Baliabideertako zuzendariak, Zigor Ezpeletak, eta Konponenteseko dibisioko zuzendariak, Javi Oleagak, elkarrizketa bat egin zidaten; Kontseilu Errektorearekin ere elkarrizketa batzuk izan ostean, aukeratua izan nintzen. Azaro hasiera aldera izan zen hori, eta erdialdera izendatu ninduten, eta abenduaren 1ean hasi nintzen. Iritsi, eta ongiatorri beroa jaso dut. Ez dakit aretxabaletarra naizelako, nire aitak ere bertan egin zuelako lan... baina oso ondo hartu naute.

Ulmatic, Coprecira. Aurretik ere ibilbide luzea eginda, ezta?

Fagor Etxetresna Elektrikoetan izan nuen ibilbidea; Copreciko sektore bera da, eta konplexutasun handia zuen. Planta asko, negozio pila bat, eta esperientzia nahiko antzekoa. Momentu hartan zuzendari industrialia izatera iritsi nintzen, eta, gero, Fagor Etxetresna Elektrikoetara krisia iritsi zenean Ulmara joan nintzen. Esperientziak beti laguntzen du, eta aurrez egindako lanak ere laguntzen du horretan.

Ikasketak amaitu eta berehala hasi zinen jardunean?

Zorrea izan nuen. Mondragonen nengoela Ikerlanetik deitu zidaten gaur egun dagoen dualaren antzera lan egiteko. Bi urte egon nintzen dualean lanean, eta gradu amaierako lana ere Ikerlanen

"Proiektuarekin ilusioa piztea eta legatu ona uztea dira gakoak"

JAVIER GARCIA COPRECICO ZUZENDARIA

Azaroan kargua hartuta, Copreciko zuzendaritza batzorde berria eraikitzea eta plan estrategikoa garatzea ditu helburu eta erronka aretxabaletarrak



Javier Garcia, Copreciko zuzendari nagusia, asteon, Coprecin. JAVIER GARCIA

egin nuen; esperientzia aparta izan zen ikasten nenbilena aplikatzeko. Suitzara joan nintzen, bi urte eta erdi, ikasteko, eta nik esaten dut nire soldaduska izan zela han egondako garaia. Askok ikasi genuen, eta oso gogorra ere izan zen. Bueltarako, Ikerlanen zain zeuden ni iristeko, eta, oporrik gabe, lanean hasi nintzen; berehala, departamentuko zuzendari jarri ninduten, eta ibilbide hartan zortea izan nuen. Gero, Fagorrera joan zenez nire zuzendaria, berriz deitu zidaten harekin joateko. Jende askok ulertu ez arren, esaten den moduan, *martxa doakit*. Gero, Fagor Etxetresna Elektrikoen mailako ingeniari-tza-buru izatera pasa nintzen, eta handik zuzendaritza industrialera. Han konplexutasun guztiak ikusi nituen: plantak Frantzia, Polonia, Italia, Txinan... eta negozio pila bat. **Etaparen berria, atzerriratzen; zein izango da zure erronka nagusia?** Bi helburu nagusi ezarri nituen: alde batetik, zuzendaritza batzorde berria eraikitzea; talde berria martxan jartzea. Izan ere, Copreciren aurreko barneko

"ONGIATORRI BEROA JASO DUT, BERTAKOA IZATEAGATIK, AGIAN; OSO ONDO HARTU NAUTE COPRECIN"

krisialdian zuzendari batzuk irten egin ziren, eta berrantolaketa egiten ari naiz. Iza gauzatura dagoena. Bigarren helburu edo erronka nagusia, berriz, datozen lau urteetarako plan estrategikoa garatzea da.

Erronka horiek ardatz, zelan dago merkatua?

Kudeaketa planari ezezkoa eman ziotelako etorri naiz, eta krisi sozial horretatik ateratzeko lan asko egin behar da; lan egiteko moduak aldatu egin behar dira; luze joko du horrek. Merkatua gaur egun, gainera, oso motel dago; urte gogorra izan zen iazkoa, eta aurtengoa ere halakoa aurreikusten dugu. Ez da momentu onena merkatu aldetik. Hala ere, Coprecin urteetan gauzak oso ondo egin dira, negozio aldetik lanketa onak egin dira, estrategikoki ere bai, eta, beraz, oso indartsu dago merkatuan. Hornitzaile indartsu bezala ikusten gaituzte eta krisialdi uneetan guri aukera bat ere irekitzen zaigu, gurekin lehiatzen daudenak erortzen ari direlako.

Zer behar du gaur egun Coprecik?

Dauzkagun zortzi plantak gehiago zaindu behar ditugu, aukera berriei heldu, eta, izandako krisi horren ondorioz, lan-ildo batzuk martxan ipini: gobernantza, lidergo estiloa, kultura kooperatiboa landu, pertsonak... Bultzada bat eman behar diogu arlo sozial guztiari, eta lan egiteko moduak hobetzen joan. Jendea proiektuekin ilusionatzea; eta hori da gehien behar duena Coprecik. Jendeak duen konpromiso maila erre-kuperatzea.

Zein izango da zure helburu nagusia etorkizun hurbilean eta etorkizun urrunean?

Beti esaten dut hurrengo belaunaldiari kooperatiba indartsu bat uzteak lehenengo helburua izan behar duela. Nire erabakietan epe motza edo luzea jokoan badaude, epe luzea da da zaindu beharrekoa. Epe motzean gutxiago irabazi behar bada legatu on bat uzteko, zalantza barik bigarren aukeraren alde egingo nuke. Kooperatiba hau aurreko belaunaldien opari bat izan da, eta guk hobetu badezakegu, askoz hobeto. Niretzat hori arduratzen da, baina, erronka polita ere. Legatuari garrantzi handia ematen diot, eta hori buruan izateak asko laguntzen duela esango nuke.

gopiēna“



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

Eskala eta perspektiba

Klima larrialdiari tiritak jartzeko asmoz deskarbonizazioa eta trantsizio energetikoa ere landu beharra dugula garbi dugu askok. Norbanako bezala lokalki ditugun ardurak hartu, eta globalki, erantzuleei erantzukizunak eskatuz.

Baina urrats horiek nola egin behar diren erabakitzerakoan sortzen den talka oso desberdin sumatzen da norbanako bakoitzaren perspektibatik. Ea azalpenarekin asmatzen dudana.

Ez da berdina Atxorrotxetik Anbotora begiratzea edo alderantziz. Atxorrotx Anbototik harri koxkor bat besterik ez da. 738 metroko garaiera du Atxorrotxek; 1.331 metrokoa Anbotok. Ez daude eskala berean, eta, gehiengoarentzat, oharkabean igarotzen den harkaitz bat besterik ez da Atxorrotx.

Historialari baten begietatik, aldiz, Atxorrotxeko gailurrak, bertan dagoen aztarnategia kontuan hartuta, oso txiki uzten du Anboto. Hots, eskala, neurtzeko moduak eta norbanakoak determinatzen dutela.

Trantsizio energetikoari edo landaguneari buruz hitz egiterakoan eskalak eta perspektibak ere izugarri baldintzatzen gaituztela garbi dago. Gai biak perspektiban galduta daude askorentzako, Anbototik Atxorrotx bezala.

Klima larrialdiari buruz duela mende erdi baino gehiago

ohartarazi gintuzten zientzialarien perspektiba dut nik gogoko.

Lehenik, aldatetaren eragin okerrenak arintzeko trantsizio energetikoz gain, gobernantza ereduak eta indarguneez aldatu beharra dutela adierazi izan dute.

Gero, noizbait, *zibilizazio*

GOBERNANTZA EREDUAK ETA INDARGUNEEK ALDATU BEHARRA DUTELA ADIERAZI IZAN DUTE

ekologikorako eta ekonomia ekologikorako trantsizioa burutu nahi baldin badugu, behintzat. Bide hori garapen jasangarriaren teiltupean soilik ez da gertatuko, desazkundearen parametroetan baizik.

Trantsizio energetikoz *soilik* hitz egitean ez dugu erronkaren eskala osotasunean onartzen. Perspektiba mugatzen zaigu, eta *karbonozko ikusmen tunela* delako fenomenoan erortzen gara.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Balitz

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/YNXRZ](https://labur.eus/ynxrz)

Jarria zuten hitzordua.

Batetik eta bestetik iritsi ziren esandako lekura, esandako ordurako.

Taldea osatu zutenean, suziriak piztea izan zen lehen lana.

Gorriak.

Eta kantuari ekin zioten gero.

Betiko abestiak, zakar samar kantatuak, ahapaldiak "lo-lo-lo"-ka, eta estribilloa ozen bai ozen.

Polizia hurbiltzean hasi ziren lehen oihuak.

Eta gero sortu zen ika-mika.

Batek terraza batetik hartutako aulkia jaurti. Pilotakada erantzun.

Hiru taldekide atxilotu.

Alde bateko lau eta besteko bi zauritu.

Umore film bat egiteko aski litzateke kontatu dudana pasarte, Donostiako Artzain Onaren katedralaren aurrean gertatu izan balitz.

Bildutako taldea emakumeek Elizan parte hartze handiagoa izan dezaten aldarrikatzen duena izan balitz.

Kantatutako abestiak, rap erritmoan, "ogí zerutik etórrria" eta "hor zaudé Jesús" izan balira...

Baina ez.

Horrelakorik ez da gertatzen Artzain Onaren katedralaren parekoa bezalako bilkuratan.

Horrelakoak, orain, futbol-zelaiaren sarreran gertatzen dira.

Anoetan, San Mamesen... Batzuek dagokien espazioa eskatzen dute, behar bezala.

Besteek ez dagokienez hartzen.

Alde handia dago.

Eta futbola Eliza baino askoz ere maiteagoa dudana arren, lasaiago hurbilduko nintzateke Katedral batera bestera baino.

Hori lortu duenak merezi ditu...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Eugenio maiteari**JOXERRA AGIRREURRETA**

LEINTZ GATZAGA

Zer moduz habil? Beti bezain umoretsu, seguruen; errukiarena dituk Sanpedro eta enparaukoak, hor ibiliko haiz adar soinu batekin eta besteekin, jakina, berba baten, ingurukoak nekatu arte. Gu, ba, zer esango diat, nobedade handirik barek. Goiza, pasieran RArekin, txakur handiarekin, ortutik bueltaren bat edo beste, eta gero bazkaria prantatzen distraitzen gaituk Radio Arraterekin, hiri gustatzen zitzaian bezela. Konturatu barek hango kantzak hire rekuerdora ekartzen zigutek eta hire hutsunea arindu egiten zaiguk.

Batzuetan, eguerdi aldera, edo ilunkaran, MA etortzen zaiguk kontu berriekin eta hirekin be akordetan gaituk, negarraldi bat egin eta berriz be gure jardunera. Lehengoan, Mexikoko KTarekin etorri zuan. Semea omen zeukak Murtzian saskibaloian jokatzeko: hura kankailua hura. KT-ek lau hizkuntza zekizkik eta *gukbai* batekin agurtu gintuan, *guk-bebai* esan genioan agurtzerakoan; han joan zuan, gustora asko, andreak eta biok batutako ondoak janda.

Gainontzekoan, ospitalean izan nauk, Arrupek esaten zigun bezala, motorra retifiketan. Hamaika pastilla jarri eta jateko genero asko

kendu zizkidatek: gatz, gazta, koipea eta bizitzeko poza. Hobe liketek mediku hauek gure bizimodua gozatzen eta lagunartea bultzatzen saiatuko balira, hainbeste debeku eta ezin etsigarri erakutsi beharrean. *Bizi gaitezen bizi ahalik eta ondoen, bihar ez badakigu zer datorren*, Larrañagaren kantua, hori idatzi beharko liketek osasun zentroetako sarrera guztietan. Enfin, zer esango diat nik, heu be hortik pasautakoa haiz eta.

Ai, Eugenio, hire falta sumatzen diat. Maillot museoa bideratuta genian, dena hitz eginda zegoan erretorearekin, aurrez aurre, hire estiloan, baina dena aldrebestu duk eta orain paper artean gaudek itota, nora jo ez dakigula. Baina aurrera goazak hik esaten huen bezala, espainiar armadak ez omen zian sekula atzera egiten, buelta erdi eman eta beti aurrera. Gu ere horrela goazak.

Lehengoan, Dorletan nengoela pasiera batean, negarrez hasi ninduan txoroen moduen, MA bakarrik ikusi nuenean. Negarraldiaren akaberan, bizitzaren paradoxak, barre be egin nian, zeren eta heuk esanda zekiat nola ibili zineten lardaxkan MA eta biok sanjoan bezpera baten, ama birjina testigu zenuela, platanero artean.

Beno, Eugenio, ondo izan eta zeozeren nobedaderik edukitzekotan abisua jo,

nahiz eta jakin, Letek esaten zuen moduan, handik berriz itzultzerik ez dela asmatu oraindik.

Mila zentral nuklear gehiago; zoratu egin gara?**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

COP28 biltzarrean ia 200 nazio elkartu ziren, Dubain. Ameriketako Estatu Batuak eta Frantziak adierazi zuten energia nuklearrarekin asetzeko beharra dagoela. Klima aldaketari aurre egiteko argumentu bezala erabilia ere ez dit balio; ez da etikoa gizarte kontumista baten kapritxoak betetzeko ondorengo belaunaldiei kaka erradiaktiboa lagatzea milaka urtetan zehar.

Zentzuz jokatu dezagun: daukagun energia hobeto administratu eta itxaron teknologia garbiagoen garapenei.

Une batez pentsa dezagun plan zoro hori aurrera doala; gaur egun, munduan 61 zentral nuklear dabilta eraikitzen. Batez beste, sei urtetik gora irauten dute obrek, eta lehen aurrekontutik dezente kostu handiagoak dituzte. Esan nahi dudana da teknikoki gauza guztiak ondo joanda ere ez ligukeela balioko klima aldaketari garaiz aurre egiteko.

Bestetik, kontuan izan lehenago edo geroago uranioa ere gastatuko dela eta berriz ere arazo bera izango dugula.

Deskolonizatu EH**IÑAKI IDIGORAS IGARTUA**

OÑATI

Aurreko astean Bergarako Olaso Dorrean izan nintzen, sinboloez jabetzearen gaineko hitzaldi batean.

Sinboloen atzean kontakizun bat dago, eta bistan da: bistan dauzkagun sinboloek –armarri, bandera, monolito, kale-izen...– inperioari komeni zaion kontakizuna kontaktatzen dute.

Herri zapalduen kontakizunik ez zaio komeni inperioari: bere zimenduak arrakalatzeko ditu. Herri zapalduak, berriz, ezinbesteko du bere kontakizun propioa, duintasunez aurrera egingo badu. Deskolonizatu beharra dauka.

Non ginen euskaldunok konkista prozesuan? Inperioarekin ala Herri erresistente? Bada, bietan. Nafarroatik konkistaz erauziak izan ondoren, euskaldun askok hartu zuen parte Espainiaren proiektu inperialean: Amerikan batzuek eta Nafarroan bertan beste batzuek. Nafarroaren baitan, berriz, konkistatzaileekin beaumondarrak eta

erresistentzian agaramontarrak.

Guk ez, baina inperioko Herri zapaldu gehienek berreskuratu dute independentzia, eta beren bidea eta kontakizuna egiten ari dira. Gurera etortzean, min ematen diete inperioaren sinboloek; Iralarenak kasu. Garbi daukate konkistaren afera.

Eta guk? Badakigu Belateko kanoiek edota San Martzialeko ospakizunak min egiten dietela Nafarroa Garaikoei? Badakigu konkistatuak izan garela? Bagabiltza gure kontakizuna eraikitzen?

Zorionez, argi printza batzuk badira Antzuolan – armarrria–, Arrasaten – kalea– eta Oñatin – bandera– egindako eraldaketetan, esaterako.

Amerikako konkistak eragindako minak leuntzen ere gure ekarpena egin behar dugu; betiere, geure kontakizun propioaren baitan. Euskaldun askok bai, baina euskaldunok hartu al genuen parte? Gure estatuaren proiektua al zen? Gu Espainia al ginen –gara–, ba? Ala Espainiak –eta Frantziak– menpean hartuta gaude?

Horrela gaude. Asko daukagu ikasteko geurekotu diren ahaldundutako amerikarregandik. Jabetuko al gara kontakizun propioaren beharraz!

Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna



Martitzenean egin zuten martxoko ohiko osoko bilkura. E.A.B.

Bide garbiketako zerbitzuaren pleguak eta bi mozio onartu dituzte

Martxoko ohiko osoko bilkuran, bide garbiketako zerbitzuaren plegu teknikoak onartu zituen udalbatzak martitzenean –EAJk aurka bozkatu zuen–; Euskadiko Kaleratzeak Stop plataformak eta IMME elkarteak aurkeztutako mozioak ere onartuta geratu ziren

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE EH Bilduren, Arrasateko PSE-EE-ren eta Elkarrekin Arrasateren aldeko botoekin onartu zituen udalbatzak bide garbiketako zerbitzuaren plegu teknikoak, eta, beraz, esleipen prozedura irekiko dute orain. Kontratazioaren aurrekontua 2.295.260 eurokoa izango da –BEZa barne–. Hala, kontratu berria udazkenerako martxan egotea aurreikusten du Gobernuak.

EH Bilduren udal bozeramaile Kepa Urteagak nabarmendu zuen plegu horiek ahalbidetuko dutela gutxiago zikintzea eta hobeto garbitzea. "Makinek egiten duten lana eskuz egingo dute langileek asteburuetan; garbiketara zehatzagoa egingo dute, eta, horretarako, lantaldea handitu egingo da egun horietan: bederatzi langileko lantaldea izatera pasatuko da. Halaber,

makineria hobetu egingo da, maiztasun batzuk areagotu egingo dira eta bi kontzientziario kanpaina egingo ditugu urtean".

Jeltzaleek hainbat proposamen egin dituzte pleguak "hobetzeko", baina Gobernuak ez zituen onar-

tu, eta, ondorioz, aurka bozkatu zutela azaldu du EAJren udal bozeramaile Ander Garayk: "Aurka galdu bat da eta pleguek galdu egiten dute gure proposamenak aintzat hartu gabe. Beraz, aurka bozkatu dugu".

Sozialistek, berriz, aldeko botoa eman zuten. "Espero dugu plegu horiek balio izatea pinta-ketekin eta pankartekin dugun arazoa konpontzeko. Alde bozkatu dugu, baina gertuko jarraipena egingo diogu garbitzaileen jardunari; begira egongo gara, ea adostutakoa betetzen den", zioen Aritz Murua udal bozeramaileak.

Etxebizitza hutsei, kanona

Horrez gain, Euskadiko Kaleratzeak Stop plataformak aurkeztutako mozioa ere onartu zuen udalbatzak, etxebizitza hutsen kanonari buruzkoa. Arrasateko Udalarari eskatu zioten "bitarteko guztiak" jar ditzala, pizgarrien bidez zein zergen bidez, jenderik gabeko etxebizitzak justifikaziorik gabe mobilizatzeko. Era berean, eskatu zuten "ahalik eta azkarren" abian jar ditzala etxebizitza hutsentzako kanona ezartzeko izapideak.

EH Bilduren, sozialisten eta Elkarrekin Arrasateren aldeko botoak izan zituen mozioak, baina jeltzaleek ez zuten babestu. "Guztiok uste dugu etxebizitzarekin arazoa dagoela eta merkatura atera beharko liratekeela ahalik eta etxebizitza gehien. Hala ere, mozioak kanona sei hilabetean aplikatzea eskatzen du eta uste dugu horren aurretik badaudela beste hainbat aukera. Lehenik, ikerketa egitea egokia izango litzateke, eta Udala Gobernuak aurrekontuan txertatu du horretarako partida bat", zioen Garayk.

IMMErena ere onartuta

Era berean, IMME elkarteak Arrasaten alokairuko etxebizitza erraztea eskatu zuen mozio baten bidez. Elkarteko kide Malika Abba Mohamed Alik eta

Djamila Zereiby hartu zuten berba eta azaldu zuten "arazo handia" dagoela etxebizitza arloan Arrasaten, eta horrek "zaildu" egiten duela "bizimodu duina" izatea; bereziki, atzerritik etorritakoentzat. Bestalde, aurreko mozioarekin bat eginez, nabarmendu zuten espero dutela Arrasate tentsio handiko eremu izendatzea eta horrek prezioak erregulatzen laguntzea.

Edozelan ere, salatu zuten alokairuko etxebizitza baten bila dabilzan herritar askorentzat zaila dela Etxebiderek eta Alokabiderek harremanetan jartzea. Hain zuzen ere, Udalaren laguntza eskatu zuten. "Proposatzen dugu udal bulego bat sortzea, hurbilekoa, alokairuen kudeaketan zentratua eta bitartekari lanak egingo dituen Eusko Jaurlaritzarekin; bestalde, Udalak abian jar dezala alokairuko etxebizitzaren jabeen zuzendutako programa bat; horrez gain, San Andres auzoan jabetzan dituen partzelak premiaz kudeatu ditzala eskatzen dugu, alokairuko etxebizitza publikoak eraikitzea", aldarrikatu zuten.

Puntu horretan EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Arrasate abstenitu egin ziren; argudiatu zuten eskaerarako asko ez direla udal eskumenekoak, Eusko Jaurlaritzarenak baizik. Edozelan ere, jeltzaleek aldeko botoa eman zuten eta mozioak aurrera egin zuen. Urteagak nabarmendu zuen euren esku dauden puntuak aztertu eta landuko dituztela agintaldi honetan, eta Garayk, bestalde, zera azpimarratu zuen: "Bulego horretan hainbat lan eta izapide egin ahalko lirateke. Beste herri batzuetan, Azpeitian eta Zarautzen, esaterako, hainbat eredu daude, eta Arrasaten ere posible da".

Martxoaren 8ari begirako adierazpena

Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala egin du Udalak, eta hainbat konpromiso hartu ditu: emakumeen memoria historikoa aitortu eta berreskuratzeko proiektuak garatzea, mugimendu feministak aintzatesten laguntzea, belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketaguneak babestea, emakumeen ikusgarritasun soziala sustatzea, adineko emakumeek esparru

publikoan dituzten esperientzia eta harremanetan arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, errenta baxuenak dituzten emakumeei laguntza ekonomikoak ezagutaraztea, laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak indartzea, indarkeria matxistaren eragina eta hura gauzatzeko moduak ikertzea eta memoria berreskuratzeko ekimenak ezagutaraztea.



Johanna Sanchez, Maitane Muñoz, Eva Abuin eta Gladys Fernandez. E.A.B.

M8



Arrasateko Garagune zentrotako hainbat erabiltzaile, Isabel Medinarekin, paparrekoak eskuetan dituztela. E.A.B.



Egin dituzten paparetakoetako batzuk, Garagune zentroan. E.A.B.

Paparreko bakoitzak istorio bat

60 paparreko orratz egin dituzte eta horietako bakoitzak emakume baten istorio bat du atzean. "Saiatu gara paparrekoak emakume horren ahalik eta antzik handiena izaten", diote. Emakume horiek, nola ez, askotarikoak dira, jatorriari zein izaerari dagokienez.

Istorio bakoitzak merezi duelako

Garagune Arrasatek, Activos Por Un Mundo Solidario gobernuz kanpoko erakundeak eta Katxalin elkarteak elkarlanean Arrasateko Emakumeak ekimena abiatu dute Martxoaren 8aren harira; funtsean, herriak duen aniztasuna ikusaraztea da helburua

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Emakumeak. Izen hori jarri diote Arrasateko emakumeen aniztasuna ikusarazteko helburu nagusi duen ekimeneri. Garagune Arrasatek, Activos Por Un Mundo Solidario gobernuz kanpoko erakundeak eta Katxalin elkarteak elkarlanean bigarrenez gauzatu dute ekimena; izan ere, iaz askotariko poltsak egin zituzten Garaguneko erabiltzaileek eta aurten, aldiz, paparreko orratzak egin dituzte. Horietako bakoitzak emakume baten istorioa du atzean, eta, hain zuzen, istorio horren azalpen bat ere jasotzen du, idatziz. "Arrasateko emakumeen aniztasuna ikusarazi eta aldarrikatu gura dugu. Alegia, Arrasaten jaio ez izanak, esaterako, ez du esan gura arrasatearrak ez garenik. Hori lortzeko, kasu honetan, eskulanak

erabili ditugu", azaldu du Isabel Medinak, Activos Por Un Mundo Solidario gobernuz kanpoko erakundeko koordinatzaileak.

Hiru helburu nagusi ditu

Ekimenak hiru helburu nagusi ditu, Medinaren esanetan: "Baretik, nabarmendu gura dugu Arrasaten jatorri askotariko emakumeak bizi garela eta guztiok garela arrasatearrak. Baretik, aldarrikatu gura dugu guztiok daukagula komunitateari eta herriari ekarpena egiteko eskubidea. Izan ere, aniztasun funtzionala duten

**PERTSONA GUZTIEN
ESKUBIDEAK
ALDARRIKATU GURA
DITUZTE EKIMEN
HORREN BITARTEZ**

pertsonek laguntza behar dute askotan, baina haiek ere ekarpen handiak egin ditzakete herrian. Azkenik, Katxalin elkartearekin dugun elkarlanaren bidez, ikusarazi gura dugu momentu zailak bizitzen ari garen arren ekarpen handia egin diezaiokegula herriari".

Berdintasun eskubidea ardatz

Martxoaren 8a aukeratu izana, noski, ez da kasualitatea, eta mugimendu feministaren aldarrikapenekin bat egiteko duten modua ere bada. "Guk egunari egin diezaiokegun ekarpen onena da ondoen egiten ditugun gauzak egitea eta herriari erakustea", dio Medinak. Beraz, gaurko mobilizazioekin bat egingo dute. Horren harira, zera adierazi du Elena Zaratek, Garagune Arrasateko arduradunak: "Oro har, aniztasun funtzionala

duten pertsonen eskubideak ez dira ezagunak eta ez dago lanketa bat horiek ezagutarazteko. Guk eskubide horiek lantzen ditugu haiekin, eta, lanketa horren baitan, badaude egun berezi batzuk haien errealitatea ezagutarazteko eta herrira zabaltzeko baliatzen ditugunak". Horietako bat da gaurko eguna. "Izan ere, ezberdintasunak nabariak dira ez bakarrik gizonen eta emakumeen artean, baita aniztasun funtzionala duten pertsonetako ere. Beraz, berdintasun eskubidea eta gizartearen parte hartzeko duten eskubidea ardatz hartuta aterako gara kalera, haien eskubideak aldarrikatzera", gaineratu du.

Batutakoa, Katxalin elkartera

Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan mahai bat jarriko dute, 12:00etan, baita bihar artisauen azokan ere. Paparreko bakoitzak 5 euroko prezioa izango du, eta batutako dirua Katxalin elkartera bideratuko dute. "Iaz 300 euro lortu genituen eta aurten ere helburu bera izango dugu. Hori dela eta, lortutako diru guztia haiei emango diegu, elkarteak dituen beharretan laguntzeko", adierazi du Medinak.

**PAPARREKO ORRATZ
BAKOITZAK 5 EURO
BALIOKO DU; DIRUA
KATXALIN ELKARTERA
BIDERATUKO DUTE**

Katxalin elkartekoek, halaber, oihal birziklatuekin poltsak egin dituzte, eta, kasu honetan ere, hala egin dute. "Paparrekoak sartzeko poltsa txikiak egin ditugu, eta, beraz, herritarrek erosten dituztenean, poltsa horietan emango zaie paparrekoa", adierazi du Maixabel Mendizabalek, Katxalin elkarteko kideak.

Elkarlan sendoa dute

Hiru eragileen arteko elkarlana sendoa dela dio Medinak: "Indarrak batzen saiatzen gara, eta elkarrekin bidea egiten". Garaguneren eta AMSren arteko elkarlanetik sortu da, esaterako, *Gure nortasuna* proiektua, Nikaraguako eta Arrasateko ohi-turak eta kulturak ezagutaraztea helburu duena. "Kolaborazio asko egiten ditugu, eta etorkizunera begira ere askoz gehiago egitea da gure asmoa".



Udaleku irekiekin batera, baso udalekuak aurten

Urtero moduan, udaleku irekiak egingo ditu Txatxilipurdi Elkarteak, uztailaren 1etik 19ra arte. Aurten, ordea, bada berrikuntza bat; izan ere, baso udalekuak egingo dituzte uztailaren 22tik 26ra. Jada bietan izena eman daiteke, apirilaren 26ra arte

E.A.B. ARRASATE

Udaleku irekien beste edizio bat aurkeztu du Txatxilipurdi Elkarteak. 2 eta 12 urte arteko haurrentzako eta aurre-nerabeentzako hiru asteko eskaintza izango da aurtengoa, uztailaren 1etik 19ra arte egingo dutena. Urtean zehar landutako balioei jarraipena emateko aukera eskaintzen dute udaleku irekiekin; besteak beste, euskaltzaletasuna, parte hartzea, autonomia, naturarekin harremana, aniztasuna eta feminismoa.

Hiru gunetan banatuko dituzte udalekuak: Musakolan, erdigunean eta San Andresen. Auzokako banaketaz gain, adinkako taldeak osatuko dituzte, eta hiru adin tarte bereizi: 2018-2021 bitartean jaiotakoak, 2015-2017 bitartean jaiotakoak eta 2012-2014 bitartean jaiotakoak. Lehenengoek *Bilin Bolonka* taldea osatuko dute; bigarrenak, *Bihurri-keixetan* taldea; eta hirugarrenak, *Erokeixetan*. Guztietako ordutegi nagusia 10:00etatik 13:00ak arte izango da *-Erokerixetan* taldekoek, bi egunetan 17:00ak arte. *Bihurrikerixetan* taldearen kasuan, egun osoko talde bat osatzeko aukera dago, hamar haurreko taldea osatzen bada. Talde horrek, goizeko ordutegiaz gain, 16:00etatik 18:00ak arteko tarte bat ere izango du.

Berrikuntza: baso udalekuak

Aurtengo berrikuntza nagusia baso udalekuak dira. 6-9 urteko haurrei zuzendutakoak izango dira udaleku horiek, uztailaren 22tik 26ra arte egingo dituztenak, eta Txatxilipurdiko kideentzat horren garrantzitsua den heziketa berdean "pauso bat gehiago" dira. "Naturarekiko deskonexio sozialari aurre egiten laguntzen digutelako, erroetara bueltatuz. Osasunean eragiten dituen onurengatik, gozamina eta heziketa uztartzeko ematen dituen aukerengatik eta baita sormena



Martitzenean egin zuten udaleku irekien aurkezpena. GONTZAL BELATEGI ZUBIA

BASO UDALEKUEK AHALBIDETUKO DUTE HAURREK HARREMAN ESTUAGOA IZATEA NATURAREKIN

garatzeko eskaintzen duen laguntzagatik ere", adierazi dute.

Izen-ematea zabalik da

Izen-emate epeari dagokionez, apirilaren 26ra arte egingo da zabalik eta Txatxilipurdiko bulegoetan *-Nafarroa etorbidea*, 23- edo elkartearen webgunean egin daiteke: *Txatxilipurdi.eus*. Nabarmenezkoa da adin tartearen eta udaleku motaren arabera prezioak ezberdinak direla. Modu horretan, *Bilin Bolonka*-koena 123 euro izango da, *Bihurrikerixetan*-ekoena 146 euro eta *Erokeixetan*-ekoena, berriz, 169 euro. Egun osoko udalekuen kasuan, prezioa 169 euro izango da. Era berean, baso udalekuek 50 euroko prezioa izango dute. Urtero bezala, AED-ko bazkideek eta familia ugariak %5eko deskontua izango dute, eta, biak izanez gero, %10ekoa.

Udalak, hainbat dirulaguntza

Arrasateko Udalak aisialdi eta kirol programetan parte hartzeko dirulaguntzak emango ditu eta laguntza horrek matrikularen %90eko deskontua eragingo du, 200 euroko mugarekin. Dirulaguntzak jasotzeko baldintzak dira Arrasaten erroldatuta egotea eta urteko gehieneko diru-sarrerera kopuru bat: 20.000 euro, bi laguneko familien kasuan; 26.000 euro, hiru laguneko familien kasuan; 30.000 euro, lau lagun edo gehiagoko familien kasuan. Eskaerak BAZEN edo *Arrasate.eus*-en egin daitezke, eta, horretarako, kide guztien dokumentazioa eta diru-sarreraren agiria aurkeztu beharko da.

Hezitzaile bila ari dira

Txatxilipurdik hezitzaile zein praktikagileen zerrenda osatu nahi du eta horretarako deialdia apirilaren 19ra arte egingo da zabalik. Halaber, hezitzaileak trebatzeko saio berezi bat egingo dute maiatzaren 18an, eta hor parte hartzea derrigorra izango da udalekuetan hezitzaile gisa aritu ahal izateko zein praktikak egin ahal izateko (Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en).



NIRE USTEZ

EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI

'Inoiz' gertatu ez den elkarrizketa

Euskalduna (E.U.): "Euskaraz bizi nahi dut". Espainol Subiranista (E.S.): "Aukerak badituzu, euskara ofiziala da Erkidegoan". E.U.: "Baina ospitaleko larrialdi zerbitzura joan naizenetan, Manuk artatu nauenean, gaztelaniaz egiteko eskatu dit". E.S.: "Estatuko langile orok edonon lan egiteko eskubidea du. Behar badu, denborarekin ikasiko du euskaraz". E.U.: "Eta lanean fabrikazio arloan, zortzi pertsonarekin izan ezik, beste guztiekin gaztelaniaz egin behar dut". E.S.: "Hori enpresako kudeatzaileen erabakia da. Hor guk ez dugu zer esanik". E.U.: "Bake-epaitegira joan naizenetan, inprimakia gaztelaraz eman didate. Euskarazko bertsioa eskatu dudanean, eskura ez duela esan dit". E.S.: "Erreklamazioa jarri dezakezu bertan ongi ez artatzeagatik". E.U.: "Orduan esfortzua nik egin behar dut behin eta berriz euskaraz normaltasunez egiteko? Zergatik ezin dut Parisen frantsesez bezala Arrasaten euskaraz egin? Non dago ofizialtasuna? Non nire eskubideak?". Zer egin? Elkartu eta gure eremuetan arauak jarri eta bete.



INIGO BARRENA KORTABARRIA

Euskara eskubideen alde

Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako elkarretaratzeekin bat egin du *Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa*-k, eta hainbat herritar elkartu ziren plazan, euskararen aurkako oldarraldi judiziala salatzen. Bizkaiko Foru Aldundiko 227 lanposturen egonkortze, promozio eta esleitze prozesuen baliogabetea salatu dute, nagusiki.

OHARRAK

Isaias Carrascori omenaldia domekan

Urtero moduan, San Andresko Navas de Tolosa kalean elkartuko dira, 11:30ean. Gero, 13:00etan, luntxa egingo dute sozialisten egoitzan.

Arrasateko Nagusien Kontseiluaren hitzaldia

Martxoaren 18an, Bait On laguntza zerbitzuari buruzko saioa egingo dute Kulturategi areto nagusian, 17:30ean hasita.

EKKO proiekturako hezitzaileentzako saioak

Dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Informazio gehiagorako, teknikariekin harremanetan jarri: bjauregi@arrasate.eus, 943-25 20 88, maizpiri@arrasate.eus edo 943-25 20 07.

Portugalera, munduari "hemen gaude" esatera

Uxue Azkue aerobik gimnastak Munduko Kopan parte hartuko du Pablo Corres gasteiztarrarekin bikotea osatuta, martxoaren 20tik 24ra, Cantanheden (Portugal). Etzi, entsegu orokorra egingo dute jendaurrean, Iturripen, benjaminen saioan zehar

Hasier Larrea Herrero ARRASATE Meritua du batxilergoko ikasketak amaitu ostean gimnasia erritmikoan jarraitzeak, ondo dakite hori Arrasate Dragoi Gimnasia Taldean. Zorionez, badituzte senior kategoriako kideak, eta ez edonolakoak. Joan den azaroan, klubeko hiru gimnastak, Naia Irazolak, Maria Martiarenak eta Uxue Azkuek, Turkian jokaturako Europako Aerobik txapelketatik brontzea ekartzea lortu zuten, Gasteizko Biribildu klubarekin taldea osatuta. Esperientzia hark onena ematen jarraitzeko indarra eman zien, eta horren adibide da Uxue Azkuek esku artean duen erronka berria.

Gainera, bikotekide berri batekin egingo du proba, Pablo Corres gasteiztarrarekin. Modalitate horretan Irazolarekin aritu izan da sarritan. "Espainiatik kanpoko lehiaketetan bikote mistoak bakarrik daude

onartuta; hortaz, Biribildukoekin entrenatzen ginenean Pablo ezagutu nuen, elkarrekin entrenatzen hasi eta, pixkanaka, nazioartean lehiatzeko gogo sortu zitzaigun", azaldu du Azkuek.

Horretarako bultzada Espainiako hautatzaileak eman zien, lan-saio bat zuzentzera joan zenean: "Hark animatu gintuen Cantanheden jokaturako den Munduko Kopan izena ematera; herrialde bakoitzetik pare bat ordezkari joan daitezke, Federazioaren edo hautatzailearen oniritziarekin. Gure asmoa itxura ona ematea da; izan ere, irailean Munduko Txapelketa jokaturako da, eta, Espainia mailan, kategoria bakoitzetik gehienez bi ordezkari joango dira. Badakigu une honetan beste bi bikoteraren alde egitekotan daudela, baina guk zalantzak sortu nahi dizkiegu, ikus dezatela gu ere hemen gaudela".

80 segundo

Gimnasia erritmikoan eta halako kiroltan denbora-tarte oso laburrean erakutsi behar da hilabeteetan egindako lan guztia. Portugalerako prestatu duten erakustaldiak minutu eta 20 segundoko iraupena dauka, eta honela azaldu du Azkuek zein den akatsik ez egiteko gakoa: "Kontzentrazioa da garrantzitsua. Nik, une horretan, burua zuri izaten dut, eta memoria muskularra martxan. Dantza-nahasketa moduko batean oinarritzen da gure pieza: alde batetik, koreografia dago, oinarritzko mugimenduak; bestetik, zailtasunak daude, indarra eta



Uxue Azkue eta Pablo Corres, Arrasate Dragoien jantziekin soinean. ARRASATE DRAGOI

jauziak; eta, azkenik, bikotearen arteko koordinazioa".

Lehen saiakera, Iturripen

Kirol bizitza Ingeniaritza Mekanikoko ikasketekin uztartzen du Azkuek, eta astero bi orduko lau entrenamendu egiten ditu, gutxienez, domeketako erakustaldiak kontatu gabe. Asteburu honetakoa Iturripen kiroldegian daukate, Gipuzkoako benjamin mailako topaketaren baitan, 11:00etan hasita, Arrasate Dra-

goi klubaren partaidetza nabarmenarekin. Hilaren 20tik 24ra mundu mailako gimnasten aurrean egingo dutenaren entsegu orokor bezala hartuko dute hizordua Corresek eta Azkuek.

IRAILEAN MUNDUKO TXAPELKETAN JOKATZEKO AUKEREN BILA DOA BIKOTEA CANTANHEDERA



DORLETAKO AMA TXE

Etxean hasi, eta irabazi

Markuletan ekin zioten domekan txirrindularitza denboraldiari Dorletako Ama taldeko kide gazteek. Errepidea irristakor egonda ere, maila txukuna erakutsi zuten guztiek; bereziki, Katixa Navarro eta Ainhoa Plaza infantilek –argazkian urdinez jantzita– eta Nile Agirretxe alebinak. Navarro eta Agirretxe garaile izan ziren eta Plaza, bigarren.

DEBAGOIENEN GREMIOAK

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA
Basabe poligonoa
D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



LaMov dantza konpainiaren *Tempus fugit* ikuskizunaren une bat. ALBERTO RODRIGALVAREZ

Denborarekin jokatu duen dantza ikuskizuna

Martxoaren 10ean, domeka, LaMov taldeak 'Tempus fugit' ikuskizuna egingo du, 19:00etan, Amaia antzokian. Sarrerak hamar eurotan daude salgai eta ikuskizunera doazenek dantzarien mugimendu ikusgarriekin disfrutatu ahal izango dute

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Tempus fugit dantza emanaldi ikusgarriaz gozatzeko aukera izango dute domekan Amaia antzokira joaten direnek. *Tempus fugit* latinezko esamolde bat da, *denborak ihes egiten du* esan nahi duena. Hala, Zaragozako La Mov konpainiaren *Tempus Fugit* dantza ikuskizunak denboraren joana edo denborak ihes egitea du oinarri. Hori lortzeko, ikuskizuneko mugimenduak "ikusgarriak, dinamikoak eta muturrekoak" direla adierazi dute dantza konpainiakoek.

Denbora irudikatu

Denboraren joanari buruzko hausnarketa hori pertsonalizatu nahi zuen Aragoiko LaMov konpainiaren zuzendari Victor Jimenezek, eta hori izan da abiapuntua *Tempus fugit* ikuskizuna osatzeko. Horrekin batera, dantzarien mugimenduekin bat eginez, Antonio Vivaldi musikagilearen *Lau urtaroak* pieza izango du musika-euska-

rri gisa, Max Richterrek eta Jorge Sarnagok berrikusita. Dantzariak "arlo fisikoaren eta teknikoaren mugara" iritsiko dira saioan, LaMov dantza konpainiako arabera. Gaineratu dute *Tempus fugit* ikuskizunari esker "bizitzaren bidaia frenetiko, zirrargarri eta mingarria" murgildu ahal izango direla ikus-entzuleak".

Dantzari handiekin osatuta

Victor Jimenez izango da ikuskizunaren zuzendari artistikoa. Madrilgo Arte Dramatiko eta Dantzako Errege Kontserbatorioan Dantzan lizentziaduna da Jimenez, eta Madrilgo Arte Dramatiko eta Dantzako Errege Kontserbatorioan aktore-pres-

DENBORA AURRERA DOALA IRUDIKATZEKO IKUSKIZUNA IZANGO DA DOMEKA HONETAKOA

takuntza jaso du. Gainera, Victor Ullateren konpainiako dantzari ohia da, Maurice Bejarten ikasle zuzena eta Lyongo Operako dantzari bakarlaria. Curriculum horrekin eta eszenatokian izango diren dantzarietan lan bikaina osatu du. Honako hauek izango dira oholtza gainean arituko direnak: Mattia Furlan, Elena Gil, Paula Rodriguez, David Serrano, Alain Rivero, Imanol Lopez, Laura Lopez, Jimena Martinez eta Fatima Alcantara.

Ibilbide luzeko taldea

Aragoiko hiriburuan egoitza duen LaMov dantza konpainia 2008tik dago aktibo, eta Victor Jimenez gidaritzapean ikuskizun ugari egin ditu. Haren gidaritzapean gauzatu dituzte *El Trovador*, *Lo que el cuerpo no recuerda*, *Payasos divinos*, *Forget-forgot-forgotten*, *Futile*, *Momenta*, *La Cenicienta*, *El cascanueces*, *Terrenal*, *Tempus fugit*, *La voz eterna* eta *El lago*.



Asun Agiriano, zientzia dibulgazioaren gaineko txokoan. TXOMIN MADINA

Zientzia dibulgazioa ardatz duen eremua gertu dute Bibliotekan

Ireki duten gunea osatzeko, Juan Perez biologo eta zientzia dibulgatzailea izan da asteon hitzaldia egiten

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Arrasateko Bibliotekan zientzia dibulgazioaren gaineko interesgune berezi bat prestatu dute. Asun Agiriano Arrasateko Bibliotekako zuzendariaren esanetan, "gune xume bat da, gai baten bueltan osatutakoa".

Interesgune berezia

"Biblioteketan jorratzen den gai bat da interesgune berezia. Gai bat hartu eta agerian, begi-bistan jartzeko dugu apal batean. Urtean zehar hainbat izaten ditugu, eta beti izaten da gai ezberdina. Sarritan, efemerideak ospatzeko, egun berezi bat ospatzeko; iaz, esaterako, AEDk 40 urte egin zituen jarri genuen. Hiru hilabete irauten duen erakusketa xume bat da. Honako hau, zientzia dibulgazioarena, Aste Santua amaitu arte izango dugu ikusgai".

Erakusketa zientzia dibulgazioaren gaineko liburuak jarriko dituzte, eta baita gida bat ere Arrasateko Bibliotekaren aholkuekin. Liburuak sailkatuta egongo direla azaldu du Agiriano: eboluzioa, genetika, adimen artifiziala...

Hitzaldia asteon

Zientzia dibulgazioaren gaineko interesgunea osatzeko, Juan Ignacio Perez biologo eta zientzia dibulgatzailea izan da asteon hitzaldia egiten. *Primates al este del Eden* liburua argitaratu berri du eta bertan oinarrituta *Evolución del cerebro humano* hitzaldia egin zuen eguaztenean Kulturateko areto nagusian. Besteak beste, giza entzefaloaren bilakaera baldintzatu duten faktoreak aztertu ditu, eta horren gainekoak eroan zituen jendarrerera hizlariak.

Unidad Alavesak disko berria aurkeztuko du

Motoki, *Zakurreki*, *Egurreki*... Hamar kantuz osatutako diskoa aurkeztu izango da Unidad Alavesa taldea datorren egunean, martxoaren 14an, 22:00etan, Arrasateko gaztetxean, Kooltur egitasmoaren barruan -sarrera zazpi euro da-.

Aurkezpenik behar ez duen taldea da musikari ataundarrena, eta laugarren diskoa dute.

Urtebete eszenatokietatik kanpo izan ondoren, bueltan dira Haritz Artola -abeslaria- eta konpainia, disko berri eta izenburu bereziko lanarekin; euren estiloan, magia egiten. Hau da, musika atsegina, aztertze moduko letrekin nahastuta. Horren adierazle da *Morir en Argentina* kantua; argitara atera zuten duela hilabete, eta ordutik hona apurka-apurka abestiak argitaratu dituzte; martxoaren 1a ezker entzungai dago lan osoa plataforma digitaletan.

Kontsultategiko hizkuntza erabileraz, Galesen

Aitor Montes Aramaioko medikuak herriko kontsultategiko euskararen erabilerari buruzko hitzaldia egin du, besteak beste, Galesko Unibertsitate batean; atera duen ondorioetako bat da kalean baino gehiago erabiltzen dela euskara kontsultategian

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Aitor Montes Aramaioko medikuak Debagoieneko eta, batez ere, Aramaioko osasun etxeko euskararen erabilerari buruzko datuei buruzko hitzaldia egin du Galesko Abertawe Unibertsitateak antolatutako *Gofalu yn Gymraeg* kongresuan –galesera eta osasun arreta uztartzen dituen kongresua–. Aramaioko medikua eta erizaina pazienteekin zein hizkuntzatan aritzen diren jaso du azterketa batean; baita deribazioak, telefono deiak edota administraritzak kudeaketak zein hizkuntzatan egiten diren ere: "Galesen ohituta daude ingelesa erabiltzera, baina osasungintzan ere galesera lehen hizkuntza izateko pausoa eman nahi dute. Hitzaldia egiteko eskaera egin zidaten, eta proposatu nien Debagoieneko eta, nire kasuan herriko kontsultategiko euskararen egoerari buruz hitz egitea".

Atzera begirako azterketa egin du, 2023ko urria aztertuta; izan ere, haren esanetan, aztertutako behar dena zer den aurretik jakinez gero, litekeena da neurketaren emaitza "bentakoa ez" izatea.

Euskaraz kalean baino gehiago

Bildu dituen datuen arabera, %63 inguruk hitz egiten dute euskaraz Aramaion kalean –Eusko Jaurlaritzaren azken datuak 2017koak dira–, baina %68k aukeratu dute euskara medikuarekin edo erizainarekin aritzeko. "Deigarria izan da, agian, atera dugun datua; jende guztiak uste duenaren kontrakoa. Hemen daukagu hizkuntzaren ezagutza-maila eta kaleko erabilerak. Osakidetzaren barruan, lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa. Antzeman duguna da datuak ikusita kontsultategiaren barruan bai erizainarekin baita medikuarekin ere euskara gehiago erabiltzen dela kalean baino", dio.



Aitor Montes, eguaztenean, Aramaioko kontsultategi aurrean. I.A.A.

HISTORIA KLINIKOA EUSKARAZ IDAZTEAGATIK JASANDAKO ERASOEZ ERE EGIN DU BERBA

Hala ere, aurreratu du Aramaioko kontsultategiko euskararen erabileraren %68 hori handiagoa izan zitekeela, batik bat, bi arrazoirengatik: batetik, Aramaion dago gazte-justiziako hezkuntza-zentroa: "Gehienak erdaldunak dira, eta, hortaz, erdara erabiltzen dugu". Bestetik, etxeko arretako zerbitzuan ikusi du pazienteek euskaraz jakin arren zaintzaile gehienak emakume etorkinak direla eta horrek baldintzatu egiten duela euskararen erabilerak: "Pazienteekin euskaraz egiten dugu, baina, gero, erdaraz ia-ia erdia. Zergatik erabiltzen dugu erdara hainbeste? Ba, zaintzaileak elebakarrak direlako".

Era berean, nabarmendu du aldea badagoela lehen mailako arretaren eta ospitale mailako arreta espezializatuaren artean, ez baitaukate Aramaiotik ospi-

talerrako salto horretarako datu-rik. Konturatu dira lehentasunezko hizkuntzaren erregistroa hobetu egin beharko litzatekeela, datuek altuagoak izan beharko luketelako. Bestalde, medikuak uste du ospitale mailan eratu beharko liratekeela zirkuituak, arreta espezializatuko euskarazko zirkuituak, arreta bermatzeko eta "ganoraz" neurtzeko.

Historia klinikoak euskaraz

Aitor Montesek historia klinikoak euskaraz idazteagatik jasandako erasoek jakin-mina piztu dute Galesen: "Gertatutakoa kontatu nienean, azpimarratzeko eskatu zidaten, horren beharra zeukatelako, eurak ohituta daudelako osasungintzan ingelesaren erabilerara, eta ez galeserarena". Horri gehitu dio Osakidetzako medikuek dagoeneko badutela euskara hutsean lan egiteko eskubidea: "Zuen historia kliniko ohar guztiak euskaraz idatzi ditzakegu inolako trabarik gabe. Hori onartu da lehen aldiz 2023an. Nik uste dut eredu garria dela ez Euskal Herrian bakarrik; nazioartean ere eredu garria izan daiteke, eta horrela ikusi dute galestarrek ere".

Monika Landaluzek zinegotzi kargua hartu du Aramaion

Eguneko Arretako Landa Zentroaren kudeaketa eta udal langileen ordainsarien igoera ere onartu zituzten

I.A.A. ARAMAIO

Asier Agirrek Aramaioko alkate kargua hartu zuenetik, EH Bilduren eserleku bat hutsik zegoen, baina otsailaren 29ko osoko bilkuran hartu zuen Monika Landaluzek zinegotzi kargua, eta, horrenbestez, Asier Agirrek, Libe Ramilak, Amaia Pavonek, Igor Iker Ezpeletak eta Martin Arriolabengoak osatzen duten Udala Gobernura batu da.

Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko zerbitzu kontratua esleitzeko espedienteak berrituz jarri dute martxan, hutsik

geratu baitzen. Gainera, udal langileen ordainsarien %0,5eko igoera onartu zuen udalbatzak.

Galderen eta eskaeren atalean, berriz, EAJko Jonatan Morenok galdetu zuen ea Udala Gobernu saiatu den parke eolikoa egitekoak diren lursailak erosten. Alkateak azaldu zuen aerosorgailuak doazen lursail asko Udalarenak direla: "Ez dut uste eremu horretan lursailik erosi denik 90eko hamarkadatik". Hala ere, aurreratu zuen Barajuen auzoko Torralde inguruko lursail bat erosi nahian dabilela Udala.

Hiru aramaioar Arabako Bertsolari Txapelketako finalean

Martxoaren 16ko finalean abestuko dute Agirre, Abarrategi eta Amilburu aramaioarrek

I.A.A. ARAMAIO

Manex Agirre, Peru Abarrategi eta Paula Amilburu aramaioarrek sailkatu dira martxoaren 16an Gasteizko Principal antzokian jokatu den Arabako Bertsolari Txapelketako finalerako Asier Otamendi, Iñaki Viñaspre eta eta Aroa Arrizubietarekin batera. Bi finalerdietako garaileak zuzenean sailkatu ziren finalerako –Manex Agirre eta Asier Otamendi– eta beste laurak dira finalerdietan puntuazio altuena lortu duten bertsolariak. Hamazortzi bertsolari hasi ziren fi-

nal-laurdenetan; horietatik zazpi ziren aramaioarrek, eta hiru izango dira finalean, txapela eskuratzeko lehian.

Joan den zapatuan Dulantziko bigarren finalurrekoaren ostean erabaki zen finala jokatu duten bertsolarien zerrenda. Asier Otamendik eskuratu zuen puntuaziorik altuena (366,5 puntu), eta ondoren sailkatu ziren Paula Amilburu (353,5 puntu), Aroa Arrizubieta (352,5 puntu), Xabi Igoa (346,5 puntu), Aitor Ugarte (339 puntu) eta Izar Mendiguren (303 puntu).

OHARRAK

Korrika Kulturala: lagunarteko topaketa

Domekan, 10:30ean, bertso-pilota saioa egingo dute kiroldegian.

Gorbeialdeko Gurasolagunak, Santikurtzera

Domekan 10:30ean elkartuko dira San Kristobalگو aparkalekuan, Kruzetako portuan, Oletara bidean. Informazio gehiago: gorbeialdea@mintzalaguna.org edo 650 26 67 44 (Unai).

Gorbeialdeko bertso-abentura Espejon

Gorbeialdeko 2010 eta 2013. urteen artean jaiotakoek apirilaren 4tik 6ra parte hartu ahal izango dute. Izena emateko azken eguna martxoaren 15a da. Prezioa: 50 euro. Informazio gehiago: araba@bertsozale.eus edo euskara@gorbeialdea.eus.

M8

Kalean hainbat eratara aldarrikatzeko gonbita

Zaintzari erreparatu dio Udalak aurten, eta lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du; Mugimendu Feministak, bestetik, hainbat ekitaldi iragarri ditu gaurko: elkarretaratzea, mural margotzea, bizikleta martxa aldarrikatzailea eta manifestazioa

Mirari Altube ARETXABALETA

Berdintasunerako bidean oraindik ere aurrerapausoak ematen jarraitu beharra dagoela adierazi dute Udaleko bi alderdiek adierazpen instituzional bidez, eta aurten zaintza lanetan jarri dute arreta. Zaintzarako esku-bide kolektiboaren alde daude eta hainbat konpromiso hartu dituzte; besteak beste, Aretxabaletako zaintza ekosistema sortzen jarraitzea, herriko eragileekin elkarlanean; eta zaintza lanei balioa emateko ekintzak egitea. "Zaintzaren lanketarekin jarraituko dugu baina Eudelen leloa *-Zuetaz harro-* alboratu gabe eta emakume nagusiek egindako bideari aitortza eginda", adierazi du Ainhoa Sanchez Gariak, Udaleko Berdintasun zinegotziak.

Ido beretik, *Aretxabaletan zaintza lanetik bizi direnen aho-tsak* izeneko erakusketa jarri du Arkupen Aretxabaletako Mugimendu Feministak. Hilabete osoan egongo dira ikusgai Jule-ne Rosado aretxabaletarrek Erdu talde feministaren gidaritzapean azaroaren 30erako egindako filma eta hainbat argazki.

Manifestazioa 18:30ean

Gaurko, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ekintza sorta antolatuta dute feministek *Gure bizi-tzekin negoziarik ez!* leloarekin. Eguerdirako elkarretaratzea deitu dute eta arratsaldean mural margotzea, bizikleta martxa aldarrikatzailea eta manifestazioa egingo dituzte; azken hori 18:30ean abiatuko da, Herriko Plazatik. Solasaldiak ere antolatuta dituzte: *Herri akordioa Atxabaltan lurreratzen* martxoaren 10ean eta emakume baserri-tarren bueltakoa 20an.


Udalaren eskutik, osterara, bakarriketa izango da hilaren 12an: *Magma mia*, Bea Egizaba-



Erakusketa, Arkupen. MIRARI ALTUBE

lekin. Baita dokumental emanaldi bat ere, *Punkaren beste alde*, 14an, Jesusi Etxebarria musika irakasle arrasatearraren ibilbidea jasotzen duena. Eta hilaren 16an, Fundantz dantza urbanoen jaialdia egingo da, zortzigarrenez, kiroldegian; 23 taldek jardungo du lehia hiru kategoriatan banatuta. -Egitaraua osorik, 28 eta 29 orrietan-.

"Egitarau honetan herritar guztiok dugu lekua, eta parte hartzera animatzen zaituztegu, guztiok ikasiko dugu-eta zerbait", gonbidatu du Berdintasun teknikari Malena Gonzalez Altunak.



1970eko emakumeen futbol taldea. UDA

1970eko emakume taldeari aitortza

Domekan egingo den Aresko Martxa 12:00etan abiatuko da, Aretxabaletako plazatik Eskoriatzara. Aurretik, baina, 1970eko UDAko emakumeen futbol taldeari aitortza egingo diote. Ikastolaren alde dirua batzeko eratu zuten herriko hainbat emakumek, eta hiru futbol partidu jokatu zituzten: lehenengo biak oñatiarren aurka eta hirugarrena Urretxukoen kontra. Lehen partidua etxean izan zen, eta 25.000 pezeta batu zituzten.

Taldean honako hauek zeuden: Loli Mayoral, Regina Eraña, Fatima Lasa, Mila Agirre, Consuelo Zubizarreta, Arantxa Akixu, Aurora Aranzabal, Mari Karmen Olabe, Mari Elena Azkoitia, Elena Arrese, Karmentxu Usandizaga, Mari Asun Mendieta, Esther Letamendi, Itziar Errasti, Ana Rosa Etxebarria eta Mila Urzelai; eta Javier Urreta eta Javier Urzelai entrenatzaileak.



NIRE USTEZ

MALENA GONZALEZ ALTUNA

Nork eramango du pankarta aurten?

Martxoaren 8a heldu da berriz ere, eta, betiko lez, ekintza ezberdinak antolatu dira herrietan zein hirietan: jardunaldiak, mahai-inguruak, kultur ekintzak... eta manifestazioak. Baina nork eramango du pankarta aurten?

Feminismoa anitza da eta bere baitan barnebiltzen ditu emakume ezberdinak -arrazializatuak, LGTBI+ kolektibokoak, ezgaitasunen bat dutenak...-, baina hauek ez dira hain errepresentatuak izaten egun esanguratsu hauetan.

Inoiz pentsatu al dugu agian gure manifestazioak ez direla irisgarriak? Edo ez direla erosoak genero identitate disidenteentzat? Edo ordutegi aldetik desegokiak direla zaintza lanetan diharduten emakumeentzat? Beharbada, horren inguruan hausnartu beharko genuke... Ezin dugu intersektionalitatea alde batera utzi; hau da, ezin dugu ahaztu pribilegioak eta zapalkuntzak -arrazia, klase soziala, sexu orientazioa, genero identitatea eta itxura fisikoa, besteak beste- haien artean gurutzatzen direla eta elkar eragiten dutela.

Aisialdi eskaintza zabala izango da Aste Santuan nerabeendako

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuek antolatuta, txapelketak, bazkaria eta kontzertuak izango dituzte

M.A. ARETXABALETA

Aste Santuko oporretako lehen egunetarako, martxoaren 25erako eta 26rako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuek elkarlanean hainbat ekintza antolatu dituzte. 12 eta 17 urte arteko gazteei bideratutako eskaintza izango da.

Lehenengo eguna, astelehena, Aretxabaletan pasatuko dute, eta ekintzen artean honako hauek daude: mahai-futbol, boleibol, bolo eta saskibaloi txapelketak, bazkaria, bingo musikatua eta kontzertu akustikoa. Martitze-

nean, osterara, Eskoriatzara joango dira, eta han egingo dituzte: *gaztetxer* lehiaketa, bazkaria eta jolasak gaztelekuek. Txapelketetako irabazleentzat sariak egongo direla iragarri dute, hala nola *salting*-erako sarrerak, *scape room*-erako sarrerak eta afa-ri bat.

Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute, eta gazteleketara jo behar da horretarako, martxoaren 17a baino lehen; egun bakarretako edo bietarako eman daiteke eta prezioa 5 euro da bi egunetarako.

Gurasotasun positiboa lantzeko saioei ekin die UDAk

Realeko Alex Remiro atezainak eta Futbol Mas fundazioak bat egin dute futboleko diharduten gaztetxoaren osasun mentala eta ongizatea sustatzeko. UDAk horri heldu dio, eta *Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala futboleko* izenarekin hiru saioko ikastaroari ekin; lehenengo atzo egin zuten eta hurrengoak hilaren 12an eta 21ean izango

dira, 17:30ean, Arkupen -bi ordu irauten dute-.

"Proiektua gurasoei bideratuta dago, familiak direlako haur eta nerabeengana iristeko sistemarik garrantzitsuena eta eraginkorra", adierazi dute antolatzaileek, eta parte hartzera animatu dituzte. Hiru saioetan askotariko gaiak landuko direla adierazi dute. Izena aldeztu aurretik eman behar da, UDArekin harremanetan jarrita -sare sozialen bidez zabaldu duten galdetegi bat bete behar da-.

"Oso gustura nabil 'hyperpop'-a lantzen"

EIDER SANCHEZ 'XANDER' ABESLARIA

2022ko Gaztea Maketa Lehiaketako 'Harrobia' sariaren irabazleak 'Neraberriak' EPa kaleratu du; martxoaren 22an emanaldia egingo du Korrikaren etorrera girotzeko

Mirari Altube ARETXABAETA

16 urte zituela irabazi zuen Eider Sanchez Garcia Xander (Aretxabaeta, 2006) abeslariak Gaztea Maketa Lehiaketako *Harrobia* saria, 2022ko abenduan, eta, urtebeteren ostean, lau abestirekin osatutako *Neraberriak* izeneko EPa kaleratu du, Oso Polita diskoetxearekin. Aretxabaletarrek martxoaren 22an zuzenean ikusteko aukera izango dute, emanaldi txiki bat egingo du-eta Korrikaren etorrera girotzeko, Zirrara eta Oihu taldeekin batera.

Zelako harrera izan du EPak?

Oso ona; bereziki, gertuoen aldetik jaso dut erantzuna, baina orokorrean jendeari asko gustatu izan zaion sentsazioa dut. Ni neu oso pozik nago lor-tutakoarekin.

Gaztea Maketa Lehiaketako sari hark zabaldu dizkizu ateak?

Bai; saria 2022ko abenduan irabazi nuen, eta 2023ko urtarril hasierarako lanean hasita geunden lehen bilerak egin eta nik buruan nituen ideiei forma emateko.

Zein da Xanderren estiloa?

Hyperpop soinueta murgildu naiz; baxu eta sintetizadore oso potenteak dituzten baseak dira. Genero hori entzunaz hasi nintzen musika egiten, eta horretan nabil oso gustura.

Ez da masa handiek kontsumitzen duten estiloa...

Ez, baina azken urteetan indarra hartzen joan da; batez ere, gazteen artean.

Neraberriak lana Gazteara aurkeztutako abestiekin osatu duzu?

Maketa lehiaketara hogeitunutuko eskaintza eraman behar da, eta zazpi kantu aurkeztu nituen nik. Baina gero EPan ez daude horiek, beste zerbait adierazi gura nuen eta.

Zeintzuk dira lau abesti horien atzean dauden istorioak?

Nerabe batek bizi dituen egoerak erakutsi gura izan ditut,



Xander, Andra Mari jaietan, txosnaguneko oholtzan. EIDER SANCHEZ

"GAUR-GAURKOZ EZ DUT BURUAN EUSKARA EZ DEN BESTE HIZKUNTZA BATEAN ABESTEA"

esperientziatik tiraka. Lehen kantua *Barrukoa* da eta adierazten du ezberdin sentitzearen amorrua. *Muuuuuuu-k*, ostera, *bullying*-a jasan duen gazte batek zelan egiten dion horri aurre kontatzen du, norberaren benetako izaerari uko eginda gainerako komentarioei kasu egitearren. *Blue hour*-ek, ostera, osasun mentala du gai: antsietatearekin eta depresioarekin bizitzea, hain zuzen ere. Eta *Bele beltza* kantua da aldarrikapen bat, ezberdin sentitze horri bere lekua emateko.

Euskaraz abesteko hautua egin duzu. Gaur-gaurkoz, ez dut buruan beste hizkuntza batean abestea. Euskara nire ama hizkuntza da eta nire bizitzan duen garrantzia musikan ere ematea merezi duela pentsatzen dut, beste alor batzuetan erabiltzen dudana modu erabilita.

Musika munduan emakumeak gizonak baino askoz gutxiago dira, eta zuk, gainera, bakarrik jarduten duzu oholta gainean.

Bai, egia da emakumezko erreferente gutxi daudela musikan; eta, bereziki, bakarlarriak. Eroso sentitzen naiz oholta baina lanketa bat egin behar izan dut hori kudeatu ahal izateko, eta, azkenean, ondorioztatu dut ez badago kanonizatutako eredurik nik neuk bihurtu beharko dudala eredu ahal den eta kontzerturik onena emateko.

Zeintzuk dira zure erreferenteak?

Entzuten ditudan musikariak dira, besteak beste, Luna Ki eta Rojuu. Haiek ez dute *hyperpop*-a bakarrik egiten, baina bai jartzen dute arreta energia handiko baseetan, eta horiek letra tris-teekin osatzen dituzte.

Aretxabaletan emanaldiren bat edo beste egin duzu; etxean abesteko gogotsu ala urduri?

Beti gogotsu. Andramaixetan abestu nuen behin, eta beste ekitaldi inprobisatu batean ere bai, Basabeazpin. Zirrargarria da norberaren herrian abestea; publikoaren harrera beti da beroa, eta eskertu ere egiten dute eskaintzen duzun *show*-a.

M8

Hamargarren frontenis txapelketan hamar bikote lehian

Zapatuan lehen kanporaketak jokatu dituzte, Iturrigorri pilotalekuan, eta domekan, finalerdiak eta finala

M.A. ARETXABAETA

Hamargarrenez antolatu dute UDAk, Loramendi elkarteak eta Udalak frontenis txapelketa, Martxoaren 8aren bueltan. Aurtent hamar bikotek eman dute izena lehiarako; horietatik erdiak dira herriko emakumeak, eta gainerakoak, Debagoieneko beste herri batzuetakoak, Goierrikoak eta Gasteizko bikote bat.



Lierni Zangitu jokatzen. GOIENA

Bihar goizean goizetik

Bihar, zapatua, goizean goizetiko diete kanporaketei Iturrigorri pilotalekuan; 08:00etan hasi eta 15:00ak artean izango dira partiduak. Bi multzo osatu dituzte eta bakoitzeko lehenengo bi bikoteak sailkatuko dira hurrengo egunean, domekan, finalerdiak jokatzeko. 10:00etan

ekingo diete partidu horiei, eta, behin bukatuta, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte. Bukatzeko, 12:00etan, final handia jokatuko da.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte pilotalekura joan, harmailak bete, kirolariak animatu eta giroa berotu dezaten.

Umorea eroango dute Arkupera Telleriak eta Plazaolak

Umoreari egingo diote lekua asteburuan Arkupen. Neska-mutikoen Tomaxen Abenturak konpainiaren *Azken festa* ikuskizuna izango dute bihar, zapatua, 17:00etan –sarrera 3 euro da–. Tomaxen eta Muxiren azken urtea izango da 2024a eta emanaldi berezia prestatu dute agurtzeko, urteotako ibilaldian izandako unerik barregarrienak

jasota; kantzak, dantzak, magia-trukoak eta jolasak eroango dituzte horretarako.

Helduek, ostera, Antton Telleriaren eta Iker Plazaolaren bakarriketa-saioa izango dute domekan, 19:00etan –sarrera, bost euro–. Tolosarrak eta oñatiarrak, nork bere estilo partikularrekin, ordubeteko emanaldia egingo dute, umorea eta ironia ardatz hartuta. Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Korrikaren etorrera girotzeko ekitaldien artean daude biak.

Eskolarteko boulder ligaxka jokatuko da domekan kiroldegian

Gipuzkoako eskolarteko seigarren boulder ligaxka jokatuko dute domekan, martxoak 10, Ibarra kiroldegian –izen-ematea hiru euro da–. Alebin, infantil eta kadete mailetako kirolariak elkartuko dira. 09:30ean hasi eta 13:30ak arte iraungo du kirol ekitaldiak, eta, horren ondoren, 13:30etik 14:30era diplomak banatuko dituzte.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

KONTU KONTARI

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Mari Carmen Eraña Eraña (Eskoriatza, 1933) elkarrizketatu du Maria Agirrek (1969, Aretxabaleta), Euskadi Irratiko kazetariak, Goiena telebistako *Kontu kontari* saioan. Gaur egun bizi den tokitik gertu, Tokartuen etxean jaiotako eskoriatzarraren bizitza pelikula bat egiteko modukoa da; izan ere, 3 urte zituela, gerra betean, Gironara alde egin behar izan zuen amarekin. Gerra amaitutakoan, etxera bueltatu ziren; gerraosteaz eta ondorengoaz aritu dira berbetan, kontu kontari.

Gerratik ihesi itsasontzian

Bordils (Girona) herrira ihesi egin zuten, 3 urte zituela, amarekin batera, eta 6 urte zituela bueltatu zen. "Bidaia luzea izan zen. Elorrion izan ginen lehenengo, eta Bilbon itsasontzi bat hartu eta zortzi egun izan ginen itsaso zabalean ainguratuta. Gogoan dut bertan zegoen jendea ez zegoela ondo, ez zekiela zer geratzen zen, gaixo, amaieran oihuka... Itsasontzi bat iritsi zen, bandera zuri batekin, *El Cervera* zela esanez. Hark portura eraman, eta handik tren bat hartu genuen; hala, Bordilsen etxe batean egon ginen, familia batekin. Itsasontzia gerrakoa zen, eta amarekin maleta baten gainean egiten nuen lo. Umea nintzen arren, gogoratzen naiz une gogor haiez. Batzuk gaixo, beste batzuk haurdun... Orduetik hona, beldurra ematen dit urak. Igerilekuan ere albo batetik joan izan naiz beti; itsasoa ez zait gustatzen".

Aita kartzelan ezagutu zuen

Martxoaren 30ean amaitu zen gerra, eta egun bat lehenago iritsi ziren Eskoriatzara Mari Carmen eta ama. Handik gutxira ezagutu zuen kartzelan zegoen aita ere. "Amandrea eta aitajaua beste baserri batean bizi ziren, eta hara joan ginen. Aita, berriz, Jose Eraña, kartzelan zegoen, eta, ezagutzen ez nuen arren, behin hura bisitatzera eraman ninduten. Hara joan, eta aitak maleta bat oparitu zidan eskolara joateko. Garai hartan eskolara joatea asko gustatzen zitzaidan, eta maleta barruan ditut gordeta orduko marrazkiak, eragiketak... Oroitzapen gisa ondo gordeta dut maleta".



Mari Carmen Eraña, *Kontu kontari* saioaren grabaketa amaieran, irribarretsu, etxeko egongelan. MARKEL ARRAYAGO

"Bihotza pizten zait Eskoriatzan sartzen naizenean; ez nuke "aldatuko"

MARI CARMEN ERAÑA ERAÑA

Gerratik ihesi hiru urte egin zituen Erañak Gironan, umetan; Tesan lan egin zuen eta bidaiazale amorratua izan da. Izan ere, oroitzapen guztiak ditu ondo gordeta

Ondo gordetako sekretua

Oroitzapenak ondo gordeta ditu, eta ondo gordetako sekretu bat ere badu; orain arte sekula kontatu ez duena: "Ihesi zebilen nire osaba bat etorri zen. Izeba Julik, nire amaren arreba, hotela zuen Deban, eta hamar egunez izan zen han. Harentzat konpromisoa zenez, baserrira etorri zen. Ganbaran tunelak zituen eginda... Hala, guardia zibilak etorri ziren bi bider; lehenengoan, ez zuten ezer aurkitu; eta bigarren aldiz etorri zirenean, ganbaran ere begiratu behar zutela

"GERRATIK IHESI, ZORTZI EGUN EGIN GENITUEN AINGURATUTA ITSASO ZABALEAN"

"NIRE OSABA BAT BI URTEZ EGON ZEN BASERRIKO GANBARAN ESKUTATUTA"

Oroitzapen guztiak gordeta

"Eskolako gauzak, bidaietakoak, aitak oparitutakoak... Gauza ugari ditut ondo gordeta, baina niretako. Esaten zidaten idatzi behar nituela nire bizitzako kontakizunak... eta zerbait idatzi nuen, baina atzetik datozenek bota egingo dituzte".

esan zutenean, aitajauak esan zien: *'Si buscáis oro a medias, jeh!'.* Eta hori entzundakoan, gordelekuan sartu eta ez zuten harrapatu. Nik behin ikusi nuen, baina ez nion sekula inori ezer esan; amari ere ez".

Eskola, lana eta aisialdia

Eskolako garaia ere gogoan ditu Erañak, mojetan. "Orduan autorik ere ez zegoen, eta harririk, sokasaltoan... aritzen ginen. 17 urterekin, Bergaran, bulego batean izan nintzen lanean. Gero, Eskoriatzan, Tesan egin dut lan; 37 urte egin ditut bertan, katean, erretiroa hartu nuen arte. Denbora librean, berriz, Aretxabaletara joaten ginen futbola ikustera, Eskoriatzan dantzan egin, eta gero, zinemara. Domeketan mezara ere joaten ginen, guapa-guapa jantzita... Gaur egun, berriz, paseoan egiten dut eta tai txia egitera joaten naiz; gorputza mugitzeko oso ondo dago. Gero, ardo bat hartu eta ogitarteko bat jatera joaten gara jubilatuen tabernara. Eta gero, berrikeretan egiten dugu. Herrian adineko pertsonendako badaude gauzak, eta ez naiz kezkatzen. Eskoriatza ez nuke aldatuko; Eskoriatzan sartzen naizenean, piztu egiten naiz".

Bidaiatzea zaletasun

Bizitzan zehar lan asko egin duela dio Erañak, eta jai zuenean bidaiatzeko aprobetxatzen zuela dio. Gaineratu du amaitu direla dagoeneko bidaiak. "Asko bidaiatu dut Aretxabaletako lagun batekin. Australiara, Errusiara, Egiptora, Kanadara... Australiako bidaia, esaterako, gogoangarria izan zen; hangoe-kin alde batera eta bestera aritu ginen. Nire lehengusinarean alaba han bizi da, eta oso ondo izan ginen. Bidaia guztiak gordeta ditut; argazkietan. Urte politak izan ziren haiek, oso zoriontsuak. Gainera, ez naiz sekula ezkondu, eta bidaiatzeko askatasuna nuen. Imsersoren bidez ere bidaiatu dut, Kutxaren bidez ere bai... Bidaiazalea izan naizen arren, ni beti Eskoriatzan bizi izan naiz: hemen moduan, inon ez."



'Kontu Kontari' saio osoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Emakume kirolarien ibilbideari aitortza

Aresko Emakumeen Martxako seigarren edizioa izango da domekan. Eskoriatza Kirol Elkarteak eta UDAK antolatuta, 12:00etan hasiko da martxa eta parte-hartzaileak Aretxabaletako plazatik Fernando Eskoriatza plazarainoko bidea egingo dute

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA Emakumeok bidea eraikiz** lelopean egingo dute oinezko martxa, eta Aretxabaletatik Eskoriatzarako bidea egitea tokatzen da aurten ere. Horrekin batera, ohitura dutenez, bi omenaldi egingo dituzte: lehena Aretxabaletan martxa irten aurretik eta bigarrena Eskoriatzan, martxaren amaieran. Aretxabaletan, 1970. urteko futboleko emakume taldeko kideek jasoko dute aitortza; eta Eskoriatzan, berriz, Rosa Lasagabasterrek.

12:00etan Aretxabaletan hasita Aretxabaletan aitortza ekitaldia egin eta 12:00etan hasiko da oinezko martxa, eta, Eskoriatzara iristerakoan, parte-hartzaileen zozketak egingo dituzte, tortilla-pintxoak izango dira... Gero, Eskoriatzako omenduen txanda izango da; 13:00 aldera egingo diote aitortza Lasagabasterri. 14:30ean, *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria egingo dute. Eta, amaitzeko, dantzaldia izango da.

UDAKo emakumei aitortza Ikastolen alde dirua ateratzeko, 1970. urtean Aretxabaletako emakumezkoen hiru futbol partidu jokatu zituzten. Lehenengo biak Oñatiko nesken aurka eta bestea Urretxuren aurkakoa



Iaz, Aresko Emakume Martxa Eskoriatzara bidean. IMANOL SORIANO

ARESKO EMAKUME MARTXAN, ESKORIATZAN, ROSA LASAGABASTERREK JASOKO DU AITORTZA

izan zen. Lehena Aretxabaletan jokatu zen, eta partidu ostean luntxa izan zuten Gurean. Partidu hartan 25.000 pezeta batu ziren, ordurako kopuru polita. Kopuru hura ikastolen sorrerarako laguntza izan zen.

Lasagabasterri omenaldia Rosa Lasagabasterrek (Eskoriatza, 1971) lorpenengatik eta bere ibilbideagatik jasoko du aitortza. Gaztetan kirol askotan aritzeaz batera, 2000. urtean AEBetara joan zen urtebeteko beka batekin mendi talde batera lanera. 2002an, Zegama-Aizkorriren lehen edizioarekin bat eginez, mendi-maratoia irabazi zuen. Haren lorpenik handiena mendizale gisa, berriz, 2003an Espainiako Mendi Lasterketako Buff Grand Prix Kopan hirugarren postua lortzea izan zen.



Sorpresazko gonbidapena

ROSA LASAGABASTER OMENDUA

"Pozik baina sorpresaz jaso dut Aretxabaletako UDAK eta Eskoriatzako Aresko saski-eskolak domeka honetarako antolatuta duten Aresko Emakumeen Martxaren seigarren edizioan omenaldia edo aitortza gonbidapena. Ez nuen espero ni izatea hautatuetakoa bat, eta hori

nagusitzen ari garen seinale dela esango nuke..." dio Lasagabasterrek.

Ekimenak dituen balioekin bat egiten du kirolari eskoriatzarrak, eta omendu beharreko emakume asko daudela nabarmendu du: "Ekimen oso polita da, eta, egitasmo honen arrazoiak emakume kirolarien

lana aitortzea izanda, poztekoa da nitaz gogoratzea. Hala ere, Areskoko ordezkariekin labor hitz egin nuen, eta badirela emakume gehiago ere esan nien aitortza merezi dutenak... Baina, bueno, oraingoan ezingo dut ihesik egin, eta bertan izango naiz. Emakumeen martxa 12:00etan Aretxabaletan hasten den arren, 13:00etan Fernando Eskoriatza plazan egoteko eskatu didate. Ez didate informazio gehiagorik eman..."



Iaz, ohorezko zapia eman zioten Marcelina Plazaolari. IMANOL BELOKI

Emakumeen bazkarian emango dute 'sorginen erratza'

Zapaturako egitaraua prestatu dute 'sorginek'; hitzordu nagusia Gure Ametsan egingo duten bazkaria izango da

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Gaur Martxoaren 8a izanda, Debagoieneko herrietan deitutako elkarretaratzeekin bat egingo dute Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Taldeko kideek. Hau da, Gatzagan batu beharrean bailako herrietan izango dira emakumeak. Horrekin batera, zapaturako egun osoko egitaraua antolatu dute; ez du hutsik egingo urtero egiten duten emakumeen bazkariak, ezta *sorginen erratz* banaketak ere.

Talde-argazkia eta bazkaria 13:00etan elkartuko dira Gatzagako Sorginak Emakume Taldekoak plazan, zapi banaketa egiteko. Zapiak lepoan jarri, eta 13:15ean emakume-taldearen argazkia aterako dute. Gero, 13:20tik 14:00etara poteoa egingo dute herrian, eta, ondoren, 14:15ean Gure Ametsa jatetxera joango dira bazkaltzera.

Ondoren, dantza eta *erratz banaketa* egingo dute.

Erratz banaketa, zozketa bidez Sorginak Emakume Taldera sartu berri diren emakume berrien artean zozketa egingo dute, eta horietako batek jasoko du *sorginen erratza*. "Iaz, ohorezko zapia eman genion Martzelina Plazaolari. Emakume taldekoak haren etxeraino joan ginen zapia eramatera, berarekin pixka bat egotera, eta, bide batez, talde-argazkia atera genuen. Ekitaldi berezia izan zen iaz egin genuena, baina, normalean, *sorginen erratzak* banatzen ditugu. Sorginak Emakume Taldeko kide gehienek *erratzak* jasota ditugunez, jaso gabe eta bazkarira datozenen artean zozketa egingo dugu Gure Ametsan bertan...", adierazi du Eneka Zankadak, Sorginak Emakume Taldeko kideak.

Hautesle-errola ikusgai jarri dute udaletxean

2024ko apirilaren 21ean izango dira Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak, Eusko Legebiltzarren XIII. legegintzaldiko 75 diputatuak aukeratzeko. Hori horrela, Leintz Gatzagako Udaletik jakinarazi dutenez, udaletxean ikusgai dago hautesle-errola, martxoaren 11ra arte.

Epe horretan, pertsona orok aurkeztu dezake erreklamazioa

zerrendatik baztertu dutelako edo zerrendan sartu dutelako. Hautesleak berak edo behar bezala baimendutako pertsona batek aurkeztu eta sinatu behar du erreklamazioa; nortasun identifikazioaren agiriaren fotokopia erantsi behar dio. Hain zuzen ere, erreklamazioa egin edo bestelako informazioa nahi duenak udaletxera joanda lor dezake, udala@leintzgatzaaga.eus helbide elektronikora idatzita edo 943 71 47 46 telefono-zenbakira deituta.

Ibiltarien jaia EHAFren mendeurrenaren atarian

Ibiltarien jaia ospatuko dute, beste urte batez, martxoaren 10ean, domeka. Aurtengoa, gainera, berezia izango da, herrian sortu zen Euskal Herriko Alpinismo Federazioaren mendeurrenaren atarian ospatuko dute eta

Gontzal Belategi Zubia ELGETA

Bueltan da, beste urte batez, ibiltarien jaia. Euskal Mendizale Federazioak, Udalak eta Kantsatzek antolatzen dute. Aurten, martxoaren 10ean izango da, domeka. Izen ematea martxoaren 10era arte egongo da irekita, doakoa da eta zirkuitua.com webgunean egin beharko da.

Momentuz, 180 pertsona inguruk eman dute izena, baina 200 pertsonatik gora espero dira. Egitaraua 08:00etan hasiko da, mendi ibilbidearekin. Kiroldegian abiatuko da eta Elgeta-Asentzio-Intxorta-Erdella-Egoarbitza-Elgeta ibilbidea egingo dute. 13:00etan amaituko da, eta ostean, 2023ko finalisten diploma banaketa ekitaldia egingo dute.

Jarraian, berrikuntza bat egongo da: 13:30ean, Euskal Mendizale Federazioko presidente Iñaki Garayk Euskal Herriko Alpinismo Federazioaren mendeurrena aurkeztuko du. Segidan, Shebe Peña tolosarraren inguruko *Espiritu nomada* ikus-entzunezkoa proiektatuko dute.

Egunari amaiera emateko, bazkaria egingo dute, 14:30ean. Gaur bertan bukatuko da bazkarian izena emateko epea. Udalaren bidez egin beharko da izen-ematea. Bazkariak 30 euroko prezioa izango du.



Joan den urteko ibiltarien jaia. GOIENA

MAIATZAREN 18AN MENDEURRENEKO EKITALDIA EGITEKO ASMOA DUTE UDALAK ETA FEDERAZIOEK

Mendeurren ospakizuna

1924ko maiatzaren 18an sortu zen Euskal Herriko Alpinismo Federazioa, Elgetan. Egun haren oroimenez du izena Mendizaleen plaza herriko plaza nagusiak. 80ko hamarkadan, lege autonomo

mikoak tarteko, elkarteak EAEko eta Nafarroako federazioetan banandu behar izan zen. Hala ere, mendeurrena elkarrekin ospatzeko Euskal Herriko Mendi Biltzarra osatu dute.

Ospakizunaren baitan, EMFk Elgetan hartuko du Korrikako lekukoa. 1500. kilometroa erreterbatu dute. Horrez gain, bi mendi federazioek, Elgetako Udalarekin batera, maiatzaren 18an ekitaldia egingo dute. Herri bazkaria, plaka baten inaugurazioa eta martxa nordikoa ere iragarrita daude.

M8

Ipuinez, elkarretaratzeaz eta bertsoz osatutako eguna

Martxoaren 8rako egitaraua osatu dute Amantalak elkarteak eta Udalak elkarlanean

Gontzal Belategi Zubia ELGETA

Martxoaren 8a ospatzeko, askotariko ekintzez osatutako egitaraua antolatu dute Amantalak elkarteak eta Udalak elkarlanean. Egitaraua 18:00etan hasiko da, liburutegian, Ines Bengoa ipuin kontalariaren emanaldi batekin. *Zer daramagu emakumeok poltsoan* izenburu duen ipuin kontaketa egingo du kanariarrak. Helduei bideratuta dago kontaketa, eta emakumeen beharrak eta sentsibilitatea ditu hizpide,

elkarren bizipenak trukatzeko aukera eskainita.

Hurrengo ekimena elkarretaratzea izango da. Plazan egingo dute, 19:30ean hasita. Ordu erdi inguru iraungo du horrek. Elkarretaratzearen ondoren, eguna borobiltzeko, bertsoek hartuko dute protagonismoa. 20:00etan hasita, bertso-poteoa egingo dute Oihana Arana eskoriatzarrak eta Maddi Aiestaran beasaindarrak. Poteoa plazan abiatuko da.



GONTZAL BELATEGI ZUBIA

Egoera energetikoa hizpide

Energiaren puntuak, Debagoieneko energia sustapen bulegoak hitzaldia egin zuten joan den asteazkenean. Udalak, D2030ek eta Ixotzen energia komunitateak antolatu zuten. Herriko eta Debagoieneko egoera eta aukera energetikoak izan zituzten berba; energia berriztagarrien aukerak azaldu zituzten.

Shebe Peñaren ikus-entzunezkoa

Severiano *Shebe* Peña Albizu mendizale tolosarra izan zen. Hego Euskal Herriko *lau katedralak* egiteagatik bilakatu zen ezagun. 1953ko maiatzaren 24an, 25ean, 26an eta 27an lau hiriburuak bisitatu zituen, katedral guztietan geldialdia eginda. Bidea oinez egin zuen eta zati handienak, mendiz. 400 kilometroko ibilbidea izan zen, 7.400 metroko maldaduna.



Shebe Peña Kilimanjaroko Uhuru mendian. TOLOSAS FUTBOL KLUBA

Zuhaitzak landatuko dituzte zapatuan, Udalak antolatuta

Udalak antolatuta, zuhaitz landaketa egingo dute zapatuan Pagatzako industrialdean. Irteera plazan izango da, 11:30ean. Hogei zuhaitz landatuko dituzte; guztiak fruta-arbolak. Gereziondoak, aranondoak, mertxikondoak eta basaranondoak landatuko dituzte; bakoitzetik bost. Deialdi zabala izanda, edonor bertaratu daiteke

OHARRAK

Sukaldaritza

Hilaren 13an eta 20an izango da ikastaroa, Intxorta elkarteak.

Errigora kanpaina

Hilaren 13a izango da eskaera egiteko azken eguna.

Podologia

Hilaren 13an izango da hilabete honetako kontsulta.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE
Debagoienean ere kolore morea hartuko dute gaur, martxoak 8, kale eta plaza nagusiek. Emakumeen eskubideak defendatzen dituzten kolektiboendako egun seinalatua da, eta gizarte osoa deitu dute antolatuta daude aldarrikapen eta protesta ekitaldietan parte hartzera.

Herri, adin eta kolektibo askotariko lau emakume elkartu ditu GOIENAK, haien iritziak eta balorazioak jasotzeko. Arrasateko mugimendu feministako kide Arrate Landa, Eskoriatzako mugimendu feministako kide Arantza Miguel, Itaia antolakundeko kide Maren Lazpiur eta gaztetatik jaioterrian (Medellin, Kolonbia) aktibista feminista izandako Olga Lucia Restrepo dira.

Gaztariotik aktibista

Hainbat ezaugarri komun dituzte laurak: gazte hasi ziren feminismoan. "Ezkerreko militantzia politikotik heldu nintzen ni feminismoa", azaldu du Arrate Landa arrasatearrak. "Diktaduraren bukaera eta tardo-frankismoa bizi izandakoa naiz, eta 1979an Granadan egindako kongresu feministan parte hartutakoa naiz".

Olga Lucia Restrepo ere oso gazte zela hasi zen bere jaioterrian emakumeen eskubideen defentsan, haren adineko beste hainbat emakumerekin batera. "Bi funtzio dituzte emakumeek nire herrialdean: zaintza lanak egitea eta gizonei plazera ematea. Ezkondu eta umeak egiteko jaiotzen gara, eta senarraren baimena behar dugu edozertarako. Sexu-langileei babesa eskaintzen zien elkarte batean aritu naiz urteetan; Euskal Herrira etortzea erabaki nuen arte. Amarengandik jaso nuen nire eskubideen alde borrokatzeak zuen garrantzia. Aitarenen menpe bizi izan zen beti ama, eta ezkutuan



Maren Lazpiur, Arrate Landa, Olga Lucia Restrepo eta Arantza Miguel. XABI URZELAI

Sistema justuagoa posible da, eta behar da

Aldarrikapen egun garrantzitsua da gaur mundu osoan: Martxoaren 8a. Bailarako herri guztietan egingo dituzte aldarrikapen-agerraldiak. Eskualdeko lau aktibista feminista elkartu ditu Goienak aldarrikapen nagusiak zeintzuk diren jasotzeko

egin behar izaten zituen gauza asko. Ez zuen guretzat halakorik nahi".

Mugimendu sozialistaren baitan eman ditu Maren Lazpiur bergararrak lehen pausoak feminismoan. "Guk ere emakume langileen auzian gure ekarpena egiteko beharra sentitu genuen, gure lehen urratsak Mugimendu Sozialistaren baitan eginez; Itaia antolakundean, hain zuzen ere. Eta horretan jarraitzen dugu, gaur-gaurkoz", azaldu du.

Arantza Miguel eskoriatzarrak argi dauka ezinezkoa dela gi-

**"IZUGARRIZKO
ARRAKALA IKUSTEN
DUT NESKEN ETA
MUTILEN ARTEAN"**

ARRATE LANDA

**"AKTIBISTA
FEMINISTA IZATEA
EZ DA BETI ERRAZA
IZATEN"**

ARANTZA MIGUEL

**"GAZTEEN
ARTEAN IDEIA
MATXISTAK
ZABALTZEN ARI DIRA"**

MAREN LAZPIUR

**"GARRANTZITSUA DA
GURE ARTEAN
KONPLIZITATE SAREAK
INDARTZEA"**

OLGA LUJIA RESTREPO

zartearen funtzionamendua sakon ulertu analisi feministarik egin gabe: "Feminismoari esker ulertzen dut indarkeriak gure gizartean duen dimentsioa, bai eta pertsonen bizitzan duen eragin basatia. Eragin hori, gainera, esponentzialki hazten da emakumea, arrazializatu, migratzailea, erretiratua... zaren heinean".

Bide luzea aurretik

Belaunaldien arteko transmisioa ezinbesteko ikusten dute. "Neska eta emakume gazteak indartsu ikusten ditut", dio Landak. "Hausnarketarako denbora gutxitxorekin ere bai. Sistema heteropatriarkala suntsitzeko indar eta konbentzimendu handia behar dira". Mutil gazte asko, berriz, noraezean sumatzen ditu: "Horrek asko arduratzen nau. Ez dute maskulinitate positiboaren erreferente heldu askorik, eta maskulinitate toxikoen jausten ari dira asko eta asko. Izugarriko arrakala nabaritzen dut nesken eta mutilen artean".

Maren Lazpiurren iritzi, aitortzekoa da aurreko belaunaldiek egindako lana. Belaunaldi berrien inguruan, berriz, zera dio: "Begi bistakoa da egungo gizartean gazteen artean ideia erreakzionario eta matxistak lau haizeetara zabaltzen ari direla. Bost gaztetatik batek indarkeria matxista ukatzen du. Gero eta jende gehiagok ukatzen du emakume langilea bigarren mailako subjektua den ideia, eta ideia horiek guztiek emakumeekiko zapalkuntza normalizatzen dute. Horren aurrean, gazteen despolitizazioa amaitu behar da".

Restrepok ezinbesteko ikusten du emakumeen arteko sareak indartzea: "Aktibista nintzen nire herrian, eta egoerak bultzatuta alde batera utzi dut zapi urteotan. Emakume askok zailtasunak ditugu halakoetan parte hartzeko".

"Inplikatzera interpelatzen ditut gizonak"

ARRATE LANDA ARRASATEKO MUGIMENDU FEMINISTA

Mugimendu feministako kide moduan Arrate Landak (Arrasate, 1957) bat egiten du zaintza sistema publiko eta komunitario bat aldarrikatzen duen *Gure bizitzarekin negoziaririk ez!* leloarekin. "Zer dago lelo horren atzean? Zaintza lanak emakumeen – batez ere, emakume migratuen– esplotazioan oinarritzen dituen sistema heteropatriarkal honi aurre egitea. Horretarako hainbat neurri dira beharrezkoak, baina ezinbesteko bi aipatuko ditut: zaintza publikoa izatea eta Atzerriartasun Legea indargabetzea". Gizonak ere interpelatzen ditu: "Haien inplikazioa ezinbestekoa da. Gizarte antolaketa feminista denondako da onuragarria; haien bizitzak ere hobetu egingo dira berdintasunaz".

Erronka garrantzitsuak

Orain urte batzuk baino indartsuago ikusten du feminismoa Landak. "Feminista izateaz harro gauden emakumeak asko gara, eta oso pozgarria da". Kezkak ere baditu, ordea. "Espero dut moda bat ez izatea, eta kontzientziak aritzea; izan ere, borroka oraindik luze joko du, tamalez". Eta gizonak interpelatzen ditu berriz: "Badaude gutxi batzuk maskulinitatea aztertzen eta gizarte



XABI URZELAI

berdin baten alde lan egiten ari direnak, baina gehienak ez dira hasi ere egin".

Aurrera begirako erronkei buruz galdetuta, hiru nabarmentzen ditu. Lehenengoa, gizonak buru-belarri inplikatzera; "Haien lana ere bada gizarte berdinzalea eraikitzea". Instituzioei, berriz, indarrean den zaintza eredua aldatzeko exijitzen die. "Pandemia garaian argi ikusi dugu eredu honek ez duela balio. Zaintza eredu berri, duin eta publikoa behar dugu". Azkenik, ezinbesteko ikusten du berdintasuna bultzatzeko egin diren legeak garatzea, eta hobetu beharrekoak hobetzea.

"Barneko lana eramangaitza da; ez da lana"

OLGA LUCIA RESTREPO KOLONBIATIK ETORRITAKO AKTIBISTA FEMINISTA

Zazpi urte dira Olga Lucia Restrepo (Kolonbia, 1969) Euskal Herrira heldu zela. "Medellingoa naiz, eta egoera oso larriak ikusitakoa naiz. Asko ikasi dut kaleko jendearengandik, eta baita gure elkartera laguntza eske etortzen ziren sexu-langileengandik ere. Kolonbian nagusi den mentalitatea da emakumea gizona zaintzeko eta gizonari plazera emateko dagoela. Bost seme-alaba eduki ostean, gure amak esan zion aitari ez zuela ume gehiagorik izan nahi eta operatu egin nahi zuela. Ezetz erantzun zion. Ezkutuan egin zuen ebakuntza. Lanarekin berdin: aberats batzuen etxea garbitzeko lanpostua eskaini zioten eta aitak ez zion lanera joateko baimenik eman. Lanean ere ezkutuan egin zuen".

Konplizitateak eraiki

Ezinbesteko garrantzia ematen dio mugimendu feministari eta emakumeen arteko konplizitateak eraikitzeari: "Medellinen aktiboki hartzen nuen parte mugimenduan. Asko zegoen egiteko. Hona etorritakoan, ordea, beste premia batzuetan murgilduta ibili naiz. Nire egoerak hobera egin duen honetan, nahiko nuke aktibismora itzuli". Gogoan ditu barneko langile moduan egindako urteak: "Hori ez da lana! Pertsona

bat zaintzeko hartu ninduten. Gero, alaba bazkaltzera etortzen hasi zen, eta, azkenean, familia osoa; zortzi lagun egunero". Ez zen txarrena izan; modu irregularrean egoteak beldur handia eragin zion: "Ez naiz sekula delinkuentea izan, eta horrela sentitu naiz hemen urte luzez".

Bi alaba eta lau biloba ditu Restrepok. Elkarrekin bizi dira Arrasaten. "Nire aldean, oso bestelako bizimodua dute nire alabek, eta bilobek ere bai. Egoera ez da samurra, baina jakitun dira independenteak izan daitezkeela. Ez dutela gizon baten premiarik bizitzan aurrera egiteko".



XABI URZELAI



MARTXOAK

ANTZUOLAN, DENOK SOKA BERETIK





Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!

Gizartearekin bat
berdintasunerantz!

Euskadi etorbidea, 6 (ONATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com
Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com

"Gauzak egiteko beste modu bat badago"

ARANTZA MIGUEL ESKORIATZAKO MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEA

Egindako lorpenak ospatzeaz ahaztu barik, zaintza lanen garrantzia aldarrikatuko du gaur Arantza Miguelek (Eskoriatza, 1969). "Denok behar dugu zainduak izatea eta denok arduratu behar dugu dagokigun zatiaz. Ezin da inor eskakeatu! Eta, jakina, zaintza-lan ezin dira interes ekonomikoen zerbitzura egon. Logika horrek indarkeria, bidegabekeria, nahigabea eta hainbat atsekabe eragiten ditu. Ez gaitzatela engaina, gauzak egiteko beste modu bat badago", dio. Emakume eta familia palestinarrek ere gogoan izango ditu: "Amaitu dadila, behingoz, haien aurkako eta haien lurraldearen aurkako indarkeria. Haiekiko ahizpatasuna praktikatu behar dugu hainbat kolektibotatik hilabeteotan antolatu diren ekimenen bitartez".

Mugimendu feministatik egindako lana asko baloratzen du Miguelek. "Pertsona eta kolektibo askoren lan handiaren ondotik egin genuen Euskal Herriko lehen greba feminista, azaroan. Zaintzen gaineko analisi, azterketa eta ondorio asko mahai gaineratu ziren, eta bidezkoak diren aldarrikapenak egin genituen. Arazoa da errebendikazio sozialak kudeatu behar dituztenek ez dugutela kasurik egiten eta logika ekonomizistekin jarraitzen dutela".



XABI URZELAI

"Dena dago aldatzeko"

Neurri eta arlo askotako erronkak ikusten ditu Miguelek. "Dena dago aldatzeko, eta adi egon behar dugu etengabe; izan ere, patriarkatua modu sotilean egokitzen da aldaketetara. Aurre egiten jarraitzeko estrategiak sortu beharko ditugu aurrerantzean ere. Beti ere, zaintza lanen auzia erdigunean jarri. Egitura hau ezin da sostengatu. Arazo larriak daude: sozialak, lanekoak, pertsonalak, lurraldeari dagozkionak... Sistema osoa sostengatzen duten horiek ataka larrian daude. Gauzak aldatzeko garaia da. XXI. mendean gaude".

"Zapalduak izaten jarraitzen dugu"

MAREN LAZPIUR ITAIA ANTOLAKUNDEKO KIDEA

Gero eta gizarte aurrerakoiagoan bizi garena sinestarazi nahi dugutela uste du Itaiako kide Maren Lazpiurrek (Bergara, 2004). "Baina errealitatea bestelakoa da. Emakume langileok zapalduak izaten jarraitzen dugu; egiturazko langabezia, etxeko zaintza lanen zama, indarkeria matxista, gure gorputzen objektibizazioa... Enpresariak euren poltsikoak diruz betetzeko, forma ezberdinetan, emakume langileokiko esplotazio basatia gauzatzen dute une oro. Horren aurrean, Martxoaren 8a emakume langileen askapena aldarrikatzeko borroka egun bezala irudikatzen dugu Itaiako kideok".

Instituzioek eta alderdi profesionalak berdintasun politikez "ahoa betetzen" badute ere emakume langileen bizi baldintzak ez dutela hobera egiten ohartarazten du. "Horregatik, politika instituzionalen fartsa eta egoerari aterabidea emateko duten ezintasuna salatu nahi dugu ostiraleko mobilizazioan. Agenda publikoan berdintasun politikek lekua badute ere, emakume langileok zapalduta jarraitzen dugu. Gainera, atzeraldi ekonomikoak emakumeon bizi baldintza are gehiago okertzea eragin du; egiturazko pobrezia, instituzioekiko dependentzia ekonomiko handiagoa,

indarkeria matxista kasuen gorakada eta gogortzea, gure gorputzen aurkako sexualizazioa... dira zapalkuntzak hartzen dituen formetako batzuk".

Antolakuntza sozialista

Emakume langileen interesak lehen lerroan ipiniko dituen antolakuntza independentearen aldeko hautua egiten dute Itaiatik. "Guztiok bizi baldintza berak izan ditzagun lan egingo duen antolakuntza sozialista elikatzen jarraitu behar dugu, espazio seguruak sortuz eta zapalduen aurkako eraso oro erantzunez".



XABI URZELAI

MARTXOAK
Emakumeen
NAZIOARTEKO EGUNA **8**

OÑATI
dabilen herria

*Aurten ere badator
Martxoaren 8a, mobilizatuko
gara 365 egunetan?*

G Goizper Group
Aniztasuna Bidelagun



"Emakumeok informazio gehiago behar dugu"

JUNCAL ALZUGARAY ZURIMENDI FISIOTERAPEUTA ETA OSTEOPATA

Bi tailer ditu martxan Debagoiengan. Hain zuzen ere, horietako bat Oñatin da, amatasunaren inguruan; eta bestea, berriz, Arrasaten, menopausiari buruz

Gontzal Belategi Debagoiena

Fisioterapeuta eta osteopata da Juncal Alzugaray Zurimendi (Bilbo, 1981). Zoru pelbikoan eta sexologian aditua da. Chicagoko Unibertsitatean ere egona da zoru pelbikoari buruzko hitzaldi bat egiten.

Oñatin amatasunaren gaineko tailer bat ematen zabilta; zer moduz doa tailerra?

Oso ondo. Amatasuna, azkenean, ez da erditzea bakarrik. Ni fisioterapeuta naiz, eta badirudi zoru pelbikoaz bakarrik arduratzen garela, baina amatasunak apurtu egiten gaitu berriro eraikitzeko. Denaren inguruan hitz egiten dugu, gorputzari

buruz, gorputzari buruz, sexualitateari buruz...

Arrasaten, berriz, klimaterio eta menopausia tailerra ematen zabilta; zer lantzen duzue?

Pasio handiarekin etorri dira emakume horiek tailerrera. Menopausia osasun mailan patologiatzat hartzen da, eta ikusten gabiltza ez dela horrela. Gure bizitzaren parte bat dela ikusten gabiltza, eta nola bizi ahal dugun osasunez. Aldi berean bi tailerrak egiten nabiltzen, konturatzen hasi naiz antzekotasun asko dituztela bi prozesuek. Mugak jartzeko eta berreraikitzeko prozesuak dira. Polita izaten ari da biak batera egitea.

Beharra dago emakumeen osasunaren gainean hitz egiteko?

Bai; erantzunak behar ditugu. Kontsultan ikusten dut: medikuarenetik datoz, eta emakumeek informazio gehiago behar dugula uste dut, ez dugutela ematen behar dugun informazio guztia. Esango nuke ikastaro hauetan erantzun horien bila goazela, baina baita beste emakume batzuekin partekatze ere, ze askotan prozesu horiek oso bakarrik eramaten ditugu.

Beharrezko lirateke programa publikoak zoru pelbikoari buruzko informazioa zabaltzeko?

Nik uste dut baietz. Esango nuke badabiltzala esfortzu hori



Juncal Alzugaray, Goiena telebistako platoon. GOIENA

egiten, baina egia da falta dela. Gure gorputzaren zati bat da, eta eskubidea dugu zati hori ezagutu eta gorputzean integrazteko, gure sentitzeko. Zoru pelbikoak harremana dauka sexualitatearekin, gure gozamenarekin, prozesu guztiekin: gure hilekoarekin, gure menopausiarekin, gure erditzearekin... Zergatik ez da ezagutzen? Uste dut ahalegin hori benetan

egiten dabiltzala, baina informazio asko falta da, osasun mailan ere bai. Hortik hasi beharko genuke. Alde batetik, integratzen, eskoletan, adibidez, gorputz atalak ematen diren moduan, hori ez izatea tabu bat, eta horri buruz hitz egitea. Bestetik, osasun mailan, kontsultetan ez ikustea patologiaren ikuspegitik bakarrik, baizik eta osasunetik ere ikustea.



ZAINDU ZAINZA



RPS: 83/19

Durana Hartz Klinika

INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Zientzia androzentrikoa eta antropozentrikoa da"

ANA GALARRAGA 'ELHUYAR' ALDIZKARIKO ZUZENDARIA ETA ZIENTZIA-KOMUNIKATZAILEA 'Emakumeak zientzian, izar iheskorak baino gehiago' hitzaldia egin zuen Ana Galarragak martxoaren 4an Arrasaten, emakumeak eta zientzia hizpide

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA Albaitaritzan eta Elikagaien Zientzia eta Teknologian lizentziaduna da Ana Galarraga (Zarautz, 1970) zientzia-komunikatzailea. 2001ean hasi zen *Elhuyar* aldizkarian lanean, eta hango zuzendaria da gaur egun.

Larria da emakumeen egoera zientziaren arloan?

Zientziak badu nolabaiteko itxura neutroa, objektiboa izan behar duena. Horregatik, zailagoa egiten da jendea konturatzea, baita zientzian daudenak ere, ezetz, zientzia giza jardura bat dela eta gizarteak ajeak testuinguru horretan ere errepikatzen direla. Are gehiago, datorren lekutik



Ana Galarraga, Goiena telebistako platoon. GOIENA

etorrita, tradiziozkoa, akademia elitista, maila soziokultural bati lotua eta androzentrikoa zein antropozentrikoa izanda, ba, hori guztia ere iristen da. Kostatu egiten da kanpotik emakumezkoentzat egoera zein diskriminatzailea den jabetzea.

Garrantzitsua da egoera horretaz jabetzea?

Garrantzitsua da, uste dudalako gauza asko ez dakizkigula. Pentsa, Giza Eskubideen aitortzan bada artikulu bat esaten duena pertsona guztiok daukagula zientzia jardueran parte hartzeko eskubidea; eta ez hori bakarrik, zientzia eta teknologiaren onurak jasotzeko eskubidea ere badaukagu. Emakumezkoen kasuan ez da betetzen ez lehenengo ezta bigarrena ere. Parte hartzeko eskubidea daukagu, baina aukerak ez dira berberak; bereziki, zientzia gogorak deitzen diren horietan: fisika, ingeniari, matematika...

Zientzia bigunak, feminizatuago egonda, prekarioagoak dira?

Hori garbi ikusten da medikuntzaren arloan. Medikuek lehen gizonak ziren eta bazuten gizartean izena eta tokia. Soldata ere

horren arabera zen. Emakumezkoek leku hori hartu dutenetik asko prekarizatu da medikuen egoera, soldatak jaitsi egin dira eta gizartean duten maila ere galdu egin da lehenagoarekin konparatuta. Hori gertatzen da emakumeak nagusitzen diren arlo guztietan.

Aurrera egiten dutenek hor "emakume izateagatik" daudela entzun behar izaten dute?

Hori da; gizarteak kasu horretan zigortu egiten du emakumezko izateagatik, eta gizezkoari ez zaio hori gertatzen; alderantziz, saritu egiten da. Emakume zientzialari askorekin egoteko zortea izan dut; are gehiago, bilatu egiten dut. Hori urteetako bilakaera izan da. Hasiertan zentro teknologikoetara joaten ginenean neska gazte asko ikusten genituen bata jantzita, laborategiko lanak egiten, baina gero, informazioa ematen zizuna, aditu figura hori, beti gizezkoa zen. Berariaz hasi ginen eskatzen ahal bazen aditu figura hori, aldizkarian ahotsa izango zuena, emakumezkoa izatea. *Ekinean* atala ere sortu genuen, emakume gazte horiei ahotsa emateko.

Berdintasunarekin bat!

8M

ULMA

Bergara 2024

Martxoak 8
Emakumeen nazioarteko eguna

Bergarako Berdintasun Kontseilua

"Arazo bat egon da legearen interpretazioan"

MAIDER GALARDI ETA SARA ARRUTI KAZETARIA ETA JURISTA, ETA IKERTZAILEAK
'Soilik bai da bai' Legea izan dute berbagai Galardi eta Arruti lasartearrek Bergaran egindako hitzaldian eta Goiena telebistak eginiko elkarrizketan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Gertutik landu dute *Soilik bai da bai* Legea Maider Galardik (Lasarte, 1995) eta Sara Arrutik (Lasarte, 1996), eta eguaztenean horri buruzko hitzaldia egin zuten Bergaran, Jabekuntza Eskolak antolatuta.

Zer nabarmenduko zenuke legearen onarpenak ekarri duen zarata mediatikotik?

Maidar Galardi: Uste dut bi gako daudela, *ez da ez* paradigmatik *bai da bai* paradigmara aldatzeak dakarrelako pentsamenduan ere aldaketa bat, eta onespina ere erdigunean jartzen duelako. Uste dut hori gizartearatzea konplikatu eta batzuek dako beharrezkoa izan dela. Bestetik, bazegoen Espainiako Berdintasun Ministerioaren aurkako zauri bat irekita. Orduan, horrek egin du iritzi publikoa errotzea legearen aurka. Esango nuke ez datorrela ezezetik ika-mika, baizik eta ulertu behar ditugu beste hainbat gertakari.

Legea onuragarria da ala ez?

Sara Arruti: Nire ustez, legea txalagarria da. Kontuan hartu behar dugu asko hitz egiten dugula *Soilik bai da bai*-z, baina haren izen ofiziala da Sexu Askatasuna Erabat Bermatzeko Legea. *Erabat* horrek zehazten



Maidar Galardi eta Sara Arruti, eguaztenean, Goiena telebistako platoan. I.A.A.

du legeak izaera bateratua dela. Legea integrala da, 1/2004ko genero indarkeriaren aurkako izaera bera du. Sexu indarkeriaren aurkako tresna bateratua da. Alde horretatik, sexu indarkeriaren kontrako erantzunak banatzen du botere publiko guztien parte-hartzea eta erantzukizuna, eta ez botere judizialarena bakarrik.

Abusua eraso bezala tipifikatzen da; ze aldaketa dakar?

S.A.: Sexu eraso eta sexu abusu delituak batzeak eragin du zigor tarte zabaltzea edo handitu behar

izatea eta ekarri du gutxieneko zigorrak jaitea. Horregatik, erasotzaile batzuek zigor kodean oinarrituta, zehazki, 2.2 artikuluan jasotzen den printzipio batean, errebisioak eskatu dituzte. Legearen interpretazioaren gaineko arazo bat egon da. Ikusi dugu Errioxako eta Nafarroako zenbait auzitegik errebisioak ezeztatu egin dituztela eta, aldi berean, beste auzitegi askok onartu egin dituztela. Orduan, legeak bere baitan duen akats bat baino gehiago, legearen interpretazioari buruzko arazo bat da.

Itzalean geratu diren eta ezagutu beharreko puntu asko ditu legeak.

M.G.: Batez ere, mugimendu feministatik etorri den eskaera da, sanferminetako talde-bortxaketaren ondorioz. Abusu bezala tipifikatu zen ez zegoelako epaitutako irudietan ezezko esplizitu bat eraso jasan zuen emakumearen aldetik. Horrek ebatzi zuen abusua izango zela eta ez eraso. Beraz, mugimendu feminista kalera atera zen eta argi adierazi zuen ez zela abusua, baizik eta eraso izan zela; horretarako, aldatu egin behar zela legedia. Jomugan jarri zen sistema judiziala, eta horren ondorioz iritsi da legea tipifikatzen.

Kartzela zigorrez harago, ze beste zigor gehitu dituzte legean?

S.A.: Erasotzaile batek kartzelan ez dakit zenbat urte egonda eta ez badu sexu heziketa egokirik jasotzen... zer lortzen dugu horrekin?

M.G.: Gehitu nahiko nuke ze iruditegi daukagun erasotzaileari dagokionez. Orain ez zaigu burutik pasa ere egiten eduki ditugun bost bikotekideetako zenbatek bortxatu gaituzten, esate baterako; edo parranda giroan mozkortutako lagun batek ukituak egin dizkigun gure onspenik gabe. Orain erasoak dira, eta kontua da horiek zigorra ezartzea baino inportanteagoa dela hori izendatzea. Ez diot ondorioak eduki behar ez dituenik, baina kontua da begirada feminista eta antipunitibistatik izendapenak, aitortzak eta erre-

"EZ DITU EMAKUME GUZTIEN ESKUBIDEAK BABESTEN 'SOILIK BAI DA BAI' LEGEAK"

SARA ARRUTI, JURISTA ETA IKERTZAILEA

paraziorako bideak bestelakoak izan daitezkeela.

Polemikak polemika, mugimendu feministaren zatiketa handitu egin du auzi horrek?

M.G.: Uste dut badirudiela horrek jarri duela eztabaida antipunitibista bat, baina Euskal Herrian bada denbora bat proposamen antipunitibistak gertatu direnak eta beste era bateko justizia baten aldeko apustua egin dela. Euskal Herrian bagatuz sentsibilitate horretatik.

S.A.: Nik uste dut Podemosen eta Mas Paisen talka legeak jasan duela. Maidarrek esan duenari lotuta, faltan igartzen dut legean justizia errestitatiboa aipatzea. Ematen du gatazka horiek beti judizializatu egin behar direla, eta beste bide asko daude justizia errestitatiboren baitan gatazkek konpontzeko feministagoak direnak.

Ze ahulgune ditu legeak?

S.A.: Nire ustez, ez ditu emakume guztien eskubideak babesten. Emakume etorkinak bigarren mailako biktimizatzen dituzte legeak; sexu langileak ere bai. Are gehiago, kriminalizatu egiten dira legearekin. Bestalde, esango nuke onspenaren definizioa eztabaidagarria dela.

Sistema judiziala patriarkala da; zein neurri proposatuko zenituzkete genero ikuspegia aintzat hartzen duen botere judizial baterantz egiteko?

S.A.: Baditugu magistratu matxistak, hori ukazina da, baina *Soilik bai da bai* Legearekin aurrerapauso handia ematen dela iruditzen zait; biktimari egiten zaizkion galdeketeran argi adierazten da ezin zaizkiola galdera estereotipatu edo birbiktimizatzaileak egin biktimari. Oso garrantzitsua iruditzen zait.

Bergara •
metagra
México •
Group

Berdintasuna,
guztion lana!



"Benetan soberan dagoena patriarkatua da"

MAITENA MONROY AUTODEFENTSA FEMINISTAKO IRAKASLEA

1987tik autodefentsa tailerrak ematen ditu Monroyk, eta argitaratu berri duen lehen liburua aurkeztu du asteon Eskoriatza herriko talde feministak antolatutako saioan

Idoia Aranbarri Arzuaga ESKORIATZA Martitzenean Eskoriatzan aurkeztu zuen Maitena Monroyk (Bilbo, 1972) *Autodefentsa feminista. Más allá de aprender a decir no* liburua.

1987an hasi zinen autodefentsa tailerrak ematen, baina duela hila-bete batzuk kaleratu duzu lehen liburua; zergatik orain?

Uste nuen beharrezkoa zela feminismoaren arrakastaren uneren batean ezartzen ari garen erremintak definitzea, jaio zireneko zentzu politikoa gal ez dezaten. Liburua emakume nahiz gizonezkoendako erreminta bat da, identifikatzeko zenbateraino barneratuta dauzkagun



Maitena Monroy, martitzenean, Eskoriatzako kultur etxean liburuarekin. I.A.A.

sinesmen, aurreiritzi, genero arauketa... patriarkatuak. Horik aurrera, identifikatuko dugu egunerokotasuneko matxismoa, eta erremintak eta baliabideak edukiko ditugu despatriarkalizatzeko. Patriarkatua ez da adierazten indarkeriarekin bakarrik, baizik eta emakumeak diskriminatzen dituen edozein elementutan agertzen da. Badago tendentzia bat patriarkatua "izu sexual" formatuan agertzeko, baina badakigu. Orduan, gure burutik kanporatu behar ditugu "izu sexual" horretako eszenatoki guztiak.

Más allá de aprender a decir no dio zure liburua; zer esan nahi duzu horrekin?

Gaur egungo emakumeok ezetz esaten diogu patriarkatuari, matxismoari... Askotan, arreta jartzen da indarkeriaren biktimaren diren emakumeengan, baina arreta biktimarioaren gainean jarri behar da. Orain gauden unean ez da legitimatzen, baina bai justifikatzen da gizartean, eta arreta jartzen da emakumeengan esanez falta zaiguna dela mugak jartzea, autoestimu falta edo ahalduntzea. Baina

benetan soberan dagoena patriarkatua eta matxiruloak dira. **Liburuan eta ikastaroetan autodefentsa feminista eta autodefentsa ezberdintzen dituzu; zein da ezberdintasuna?**

Ondo dago fisikoki defendatzea. Baina identifikatu behar dugu zenbateraino idealizatu dugun mendekotasuna. Norbaitek pentsa dezake nola idealizatu dezakegun mendekotasuna, baina praktikan egiten dugu. Hortaz, autodefentsa feministak bilatzen duena da teoria feministaren bitartez identifikatzea eguneroko matxismoa. Ezinezkoa da zerbait egitea indarkeria matxistaren aurrean ez badaukagu teoria feministarik ulertzeko indarkeria hori.

Zertan lagunduko dio zure liburua gizarteari?

Uste dut liburua gure bizikidetzara hobetzeko datorrela, eta gizartearen ongizatearen alde lan egiteko. Azkenean, teoria feministak eta feminismoak gizarte mugimendu bezala bilatzen duena da denon bizitzak hobetzea arrakalak dauden injustizia guztiak ezabatuz. Uste dut erreminta bat gehiago dela.

ikerlan MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

Elkarrekin
berdintasuna
eraikitzen.



www.ikerlan.es

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

18:30
MOBILIZAZIOA
PLAZATIK

BATU MOBILIZAZIO ETA EKINTZETARA!



Askotariko aldarriak egingo dituzte kaleetan

Instituzioek belaunaldien arteko harremanen garrantzia azpimarratu dute; Mugimendu Feministak, zaintza; eta Itaiak, "emakume langileen zapalkuntza amaitzeko" oinarriak

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, askotarikoak izango dira instituzioek eta mugimenduek kalera aterako dituzten aldarriak. Elkarretaratzeez eta mobilizazioez aparte, askotariko ekintzak antolatatu dituzte Debagoienerako herrietan.

Zuetaz harro kanpainaren lelopean aldarrikatuko dute aurtengo Emakumeen Nazioarteko Eguna Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Emakundek, hiru foru aldundiek eta Eudel osatzen duten udalek. Azaldu dute hiru mezu nagusi dituela oinarrian kanpainak: alde batetik, belaunaldien arteko harremanaren garrantzia; beste alde batetik, berdintasu-

naren aurrerapenean emakumeen ahalduak duen funtsezko papera; eta, azkenik, adineko emakumeen balorazioa.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak, berriz, A30eko greba orokorreko aldarrikapen eta eskaerei eutsiko die eta zaintza sistema publiko eta komunitario baten aldeko aldarrikapenak egingo ditu, *Gure bizitzekin negoziatorik ez!* lelopean. Mugimendu feministaren xede nagusia da emakumeen "lan indarra esplotatzen duen sistema heteropatriarkalari aurre egitea", zenbait esparrutan: "Etxean, enpleguan eta baita dohainik eta aitortu gabe egiten ditugun zaintza lanetan ere. Horrek zuzenean kondentzen gaitu pre-

karietatera eta etengabeko zapalkuntzan bizitzera". Adierazi dute "ezinbestekoa" dela "dimentsio ezberdinetan egongo diren agenteak aktibatzea eta mugimendu feministetatik eta herri mugimenduetatik erantzun artikulatu bat eratzea".

Itaiak, aldiz, mobilizatzeko dei egin du, "emakume langileen zapalkuntza amaitzeko oinarriak jarriko dituen gizarte sozialista eraikitze bidean". *Emakume langileok borrokara! Sozialismoa eraiki* lelopean hartuko dituzte kaleak; ibarrean, Bergaran egingo dute manifestazioa. Ikasle Abertzaleek ia 60 eskolatan egingo ditu elkarretaratzeak "erasorik gabeko heziguneen alde".

MARTXOAK 8

ARRASATE

Kontzentrazioa Neska* Gazteek eta Ikamak deituta.
Herriko Plazan, 12:00etan.

Tea hartzeko gonbidapena Emakume sahararrek antolatuta.
Seber Altube plazan, 17:30ean.

Emakume sahararren borroka hitzaldia Emakume sahararren borroka hitzaldia izango da entzungai.
Seber Altube plazan, 18:00etan.

Manifestazioa Arrasateko Mugimendu Feministak deituta.
Seber Altube plazan hasita, 19:00etan.

BERGARA

Manifestazioa Itaiak deituta manifestazioa egingo da, Emakume langileok borrokara! izenburupean.
Epaitegitik abiatuta, 18:30ean.

Manifestazioa eta performancea Martxanterek deituta.
San Martin plazan, 19:00etan.

OÑATI

Elkarretaratzea Gazteen elkarretaratzea egingo da.
Herriko plazan, 11:00etan.

Tailerra Gazteendako tailerra egingo da gaztetxean.
Antixena gaztetxean, 12:00etan.

Elkarretaratzea Olakua auzoko pentsiodunek deituta. Ondoren, luntxa egongo da Lagun Leku elkartean.
Olakua auzoan, 12:00etan.

Manifestazioa Ondoren, kontzertu akustikoa.
Herriko plazatik hasita, 19:00etan.

ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Mugimendu Feministaren egitaraua Elkarretaratzea. Herriko Plazan, 12:00etan.

Mural margotzea. Herriko Plazan, 17:00etan.

Bizikleta martxa aldarrikatzailea. Kaleetan zehar, 18:00etan.

Mobilizazioa. Herriko Plazan hasita, 18:30ean.

Neska* Gazteen kalejira
Kaleetan zehar, 22:30ean.







Berdintasunerako bidea egiten.

www.erreka.com

Parekidetasunaren alde



ESKORIATZA

Manifestazioa Manifestazioa antolatu dute M8a dela eta. Herriko plazan, 18:30ean.

ANTZUOLA

Elkarretaratzea Andramanuelek eta Antzuolako Udalak antolatuta. Ondoren, Nahia eta Ainhoaren kontzertua. Zurrategi plazan, 19:00etan.

ELGETA

Elkarretaratzea M8aren harira, elkarretaratzea egingo da. Herriko plazan, 19:30ean.

ARAMAIO

Ipuin-kontalaria **Ederra naizela diote ipuina** izango da entzungai. 4 urtetik gorakoendako. Kultur etxean, 18:30ean.
Emakumeok* lurraren defentsan **Kalejira** Kultur etxean hasita, 19:00etan.
Ekitaldia: aldarrikapenak, dantza eta kantua. Herriko plazan, 19:15ean.
Kalejira. Herriko plazan hasita, 20:00etan.
Afaria. Añai tabernan, 21:30ean.

LEINTZ GATZAGA

Debagoienean deituta martxekin bat egingo dute.

MARTXOAK 9**ARRASATE**

Azoka Emakume artisauen eta ekoizleen azoka. *Seber Altube plazan, 10:00etan.*
Antzerkia **Kalean otso etxean uso** antzezlan. Haur eta gazteendako antzerkia, Patata Tropikala antzerki taldearen eskutik. *Seber Altube plazan, 12:30ean.*

BERGARA

Oñeztua Bergarako Neska* Gaztiak **Taldearen aurkezpena** Irizar jauregian, 11:30ean.
Bazkaria. **Tiketak Arrano tabernan.** Prezioa: 6 euro. 14:30ean.
Bazkalosteko jolasak. 16:00etan.
Karropoteo feminista. **Kaleetan zehar,** 19:00etan.
Ki.imak taldearen kontzertua. **Arrano tabernan,** 22:30ean.
DJ Kalimounstro. **Arrano tabernan,** 00:00etan.



Iaz, Aresko Emakume Martxa Eskoriatzaran. GOIENA

ARETXABALETA

Frontenis Txapelketa X. **Emakumeen Frontenis txapelketa.** *Iturrigorri pilotalekuan, 08:00etan hasita.*

LEINTZ GATZAGA

Emakumeen Nazioarteko Eguna **Zapi banaketa.** **Herriko Plazan,** 13:00etan.
Emakume taldearen argazkia. **Herriko Plazan,** 13:15ean.
Poteoa. **Herrian,** 13:15ean.
Bakaria eta ondoren dantza eta erratz banaketa. **Gure Ametsa jatetxean,** 14:15ean.

MARTXOAK 10**ARETXABALETA**

Frontenisa X. **Emakumeen Frontenis txapelketa.** *Iturrigorri pilotalekuan, 10:30ean hasita.*

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Areskoren VI. Martxa **Oinezko martxa.** **Aretxabaletatik Eskoriatzara,** 12:00etan.
Zozketak eta tortilla-pintxoak. **Eskoriatzako plazan,** 12:30ean.
Zuk ekarri zuk jan bazkaria eta ondoren dantzaldia. **Herriko plazan,** 14:30ean.

OÑATI

Azoka Emakume artisauen azoka. *Berdura plazan, 10:30ean.*

Kontzertua **Hots abesbatza: Emakumeek idatzia 2024** **San Martin egoitzan,** 18:00etan.

ARAMAIO

Dokumental aurkezpena **Arnasa betean-emakume zinemagileak** dokumentalaren aurkezpena **Bertha Gaztelumendi eta Rosa Zufiak.** **Kultur etxean,** 18:00etan.

MARTXOAK 12**ARETXABALETA**

Bakarrizketa **Beatriz Egizabalen Magma mia** bakarrizketa. **Kultur etxean,** 18:00etan.

ARAMAIO


Hitzaldia **Miren Artetxeren Hizkuntza ideologiak: hizkuntza praktiken eta botere harremanen arteko erlazioak** hitzaldia. **Zaraia aretoan,** 19:00etan.

MARTXOAK 13**ARRASATE**

Liburu aurkezpena **Miren Arangurenen Ez dadin bizitza eten** liburuaren aurkezpena. **Kulturateko areto nagusian,** 19:00etan.

MARTXOAK 14**ARETXABALETA**

Dokumentala eta solasaldia **Punkaren beste alde** dokumentala eta solasaldia. **Zaraia aretoan,** 19:00etan.

FAGOR 

M8
Erreferente
izan gaitezen.



M8



Manifestazioaren hasiera, iaz. Aurtengo aldarrikapenaren leloa *Ez ga geldituko bizitzak duindu artian!* izango da. GOIENA

"Bizitzak duindu artean" eragiten jarraituko dute

Martxoaren 8ko Bergarako aldarriak "bizitzak duintzeko beharra" izango du ardatz, askotariko ekintzekin; besteak beste, herriko ikastetxeek, Oñztua neska gazteen taldeak, pentsiodunek eta merkatariek egin dute bat gaurko manifestazioarekin (19:30)

Jokin Bereziartua BERGARA

Jabekuntza Eskolaren *Soilik bai da bai* legearen gaineko solasaldia, Oñztua –lehengo Bergarako Neska* Gaztiak– taldearen aurkezpena, bi erakusketa, umeendako antzerkia, zinema... Martxoaren 8ko egitaraua oparo dator Bergaran ere (Ikus 28. orria). Udalaren eta Berdintasun Kontseiluaren egitarauaren barruan dago Martxantere deitutako manifestazioa; gaur izango da, 19:00etan, eta San Martin plazan hasi eta bukatuko da.

Ez ga geldituko bizitzak duindu artean lelo izango duen manifestazio amaieran performance bat egingo dute. "Bizitza duinen aterkipean sartzen diren hainbat gai eta aldarri lantzeko

espazioak sortzen ari gara. Besteak beste, zaintzaren arloko gaiak, etxebizitza eta osasun sistema izan dira gogoeta egiteko gaiak. Eskubide eta oinarriko behar ditugun gai horien inguruan herri mailan eman daitezkeen erantzunetan sakontzen jarraituko dugu", adierazi dute Martxantere.

Pentsiodunak, merkatariek...

Martxoaren 8aren baitako ekintzek babes zabala izan dute herri barruan. Astelehenero San Martin plazan elkartzen den pentsiodunen mugimenduak, esaterako, zaintzari buruzko "irakurketa berezia" egin zuen eta Martxanteren gaurko deialdiarekin bat egin zuen. Bedelkar

merkatariek elkarrekin ere dei egin du gaurko manifestaziorako, eta herriko ikastetxeetan hainbat ekimen gauzatu dituzte.

Horrez gain, biharko, hilak 9, Oñztua taldeak egun osoko egitaraua prestatu du taldea ezagutzera emateko: "Taldea martxan jarrita zegoen, eta, ziklo aldaketa irudikatze izena aldatu dugunez, zapatuko eguna talde berria ezagutzera emateko baliatuko dugu". Honako hau izango da egitaraua: taldearen aurkezpena Irizar jauregian (11:30); bazkaria (14:30); bazkalosteko jolasak (16:00); karropoteo feminista (19:00); Kiimak taldearen kontzertua Arranon (22:30); eta DJ Kalimounstro Arranon (00:00).

Erakusketa Laboratoriumen

Laboratorium museoak eta Jakiundek *24 emakume-mujeres-femmes* erakusketa aurkeztu dute asteon. Martxoaren 31ra arte egongo da ikusgai, eta Jakiundeko zenbait kideren 24 argazkiren bitartez emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan duten papera ikusarazi nahi dute Euskal Herriko kaleetan eta plazetan. Erakusketa museoaren kanpoaldean instalatu diren plaka batzuen bitartez ikusi ahalko da, eta solasaldi bat zein ikasleei zuzendutako bisita gidatuak eskainiko dituzte. "Neska-mutilek aukera-berdintasunean ikasi eta lan egin ahal izan dezaten edozein diziplinan, bizitzaren arlo guztietan emakumeek zer presentzia duten jakin behar du gure gizarteak, eta hori ikusarazi egin behar dugu. Emakumeek zientzietan, arteetan eta letretan lan egiten, laguntzen eta gozaten dute", adierazi du Jakiundeko presidente Juan Ignacio Perezek.

Gainera, martxoaren 22rako, 10:00etan, Seminarixoan DBHko ikasleentzako eta gaiaren inguruan interesa daukan edozein herritarrendako solasaldi bat antolatuko dute; martxoan zehar Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailtako ikasleentzako bisita gidatuak ere antolatuko dituzte.

Antzerkia eta zinema

Kultura gidako eskaintzak ere ukitu more nabarmena izango du. Martxoaren 16an, adibidez, *Txapeldunen liga* umeendako antzezlan ikusi ahalko da Seminarixoan (18:00); sarrerak salgai daude, seminarixoa.eus-en.

NIRE USTEZ



MAITE TOLEDO

Andre okupatuaren koplak

Kantatzera noakizue kontu bat edo bi
Herenegun jarriak gizon arruntari
Ez daitezela izan bazterrak nahasteko
Barne-mundu berriak eraikitzekeo baizik.

Goizean jaiki eta gosaldut bap
Musua margotu eta noa lanera mantso
Bidean saihestu ditut bi mokordo
Angelu zuzena egin dut eta iaio.

Andre txarra izateko ez naiz jaio ni
Baina ze arraio! Antonio, Lorentxo
Edo Joxeba Mari, ustez gaurkotuak
Zuenean ere txakurrak ortotsik.

Andre edadetuak, bizitza osoa Zaintza lanetan eman dutenak
Indarkeria pairatzen duten andreak, egin dezagun Adinkeriarik gabeko gizarte feminista bat.

Jai bezpera da eta goaz oinez kalera
Lagunartean barre batzuk egitera
Nola bizi hala egiten dugu kanta
Dugunarekin disfrutatzen saiatzen gara.

Astean egin nahi nituzke bizpahiru saio
Betik egoten da gimnasioa lepo
Tipi-tapa abiatu naiz Mizpirualderantz
Arnasestuka igo dut Soledadeko aldapa.

Gaurko eguna bota dugu, bada
Andrea neurrian okupatuta gauza ona da
Orain M8 eguna ospatzera goaz
Hurrengo arte aio, hurrengo arte, aio.

Emakume artistak, domekara arte

Martxoaren 8ko ekintzen barruan ohikoetako bat bihurtu da herriko artistek Aroztegin jartzen duten erakusketa. Otsailaren 23an ireki zuten, omenaldi xume batekin Luisa Arregiri, Mari Paz Alustizari, Asuntxi Gallastegiri eta Dion Tartasi. Arregi eta Alustiza margolariak dira; Gallastegi musika irakaslea izan zen hainbat urtez; eta Tartas argazkilaritzan aritu izan da.

Antolatzaileek dei egin diete erakusketa bisitatu ez dutenei Aroztegitik pasatzeko; azken egunak izango dira horretarako, domekan itxiko dute eta.

Honako orduetegi hau izango du Aroztegi aretoak domekara bitartean: gaur, 18:00etatik 20:30era; bihar, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.



Artistetako batzuk erakusketaren irekieran, otsailaren 23an. GOIENA



Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia, 2022ko Korrika Kulturalaren barruan. GOIENA

Kultura eskaintza zabala Korrika badatorrelako

Martxoaren 20an, 07:25ean, helduko da Korrika Bergarako erdigunera, eta egun berean irtengo da Korrika Txikia, 10:00etan. Korrika Kulturalaren barruan hainbat ekintza antolatuta dituzte: antzerkia, euskal dantzak, bertso saioak eta proiektzioak izango dira, besteak beste

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Korrika badator, eta Bergaran ere hainbat ekintza antolatuta dituzte Korrika Kulturalaren barruan. Korrika martxoaren 20an helduko da Bergarako erdigunera, 07:25ean.

Korrikaren etorrera berotzeko hainbat ekintza antolatuta dituzte Korrika Kulturalaren barruan: martxoaren 14an, erraldoien konpartaren eta musika eskolako trikiti taldearen kalejira irtengo da San Martin plazatik (19:00); hilaren 16an, euskal dantzen ikuskizuna egongo da Muniben –euria bada, Boluko frontoian– (12:00); hilaren 17an, *Museoaren zaindaria*k umeendako pelikula emango dute Seminarixoan (17:00); hilaren 20an, Korrika 07:25ean helduko da erdigunera eta Korrika Txikia 10:00etan hasiko da; hilaren 21ean, Kokoxa taldearen 150 antzezlanak ikusiko ahalko da Seminarixoan (19:00); hilaren 22an, bertso jaialdia egongo da Seminarixoan (22:00); hilaren

23an, kalejira (11:30) eta euskal dantzen emanaldia izango dira Muniben (13:00) –euria bada, Seminarixoan–; eta, amaitzeko, *Oihaletxea* dokumentala ikusi ahalko da Seminarixoan (19:00).

Oraingoz, 28 eragile

Kilometro banaketa zehaztuta badago ere, antolatzaileek adierazi dute "gorabehera txiki ba-

tzuk" egon daitezkeela: "Orain arteko kopurua mantentzen bada, Bergaran 28 eragilek hartuko dute parte. Era berean, udaltzainek laguntza eskatu digute Korrika pasatzen denean biribilguneetan eta bidegurutzetan egoteko. Laguntzaileek petoak eraman beharko dituzte; udaltxean eskatu daitezke, Maripiti Laskurainengatik galdetuta".

Martxoaren 11rako eman behar da izena txorimalo lehiaketan

Erramu-zapatuko ekimenean parte hartzeko dei egin du Jardun elkarteak; aurtengoa 27. edizioa izango litzateke

J.B.L. BERGARA

Martxoaren 23an ospatuko den Erramu-zapatuko ohiko ekintzetako bat izan da hainbat urtez Jardun euskara elkarteak gaztetxoenei begira antolatu ohi zuten txorimalo lehiaketa. Pandemiatik irten berritan, 2022an, ez zen lehiaketa egin, eta iaz ere ez zuen esperotako harrerarik izan. Hala, ohitura berreskuratu nahi dute Jardunekoek eta dei egin diete haur, gazte eta helduei parte har dezaten; txorimaloa edozein materialez egindakoa izan daiteke eta egindako lana

eskertzeko sari batzuk zozketatuko dituzte aurrerago iragarriko duten merienda batean.

Aurkezten diren txorimaloak ikusgai jarriko dituzte ferian, 11:00etatik 13:00etara. Izena eman behar da martxoaren 11 baino lehen: gaztejardun@topagunea.eus edo 605 71 24 69.

Zapiak ere salgai, bulegoan

Jardunek salgai ditu Erramu-zapatuak zapiak, *Ez dakizu zein politta den zuri euskaraz entzutea!* mezuarekin. Bulegoan eros daitezke, hiru eurotan.

OHARRAK

Zuhaitz landaketa Itsasmendiko herri-lurretan

Kukubasok domekarako deitu du otsailaren 24an eguraldiagatik atzeratu behar izan zuen bertako zuhaitzen landaketa; Boluko ziburuetan elkartuko dira (10:00). Amaieran, mokadutxoak egingo dute Itsasmendin bertan; bazkaltzeko etxera itzuliko dira.

Udal euskaltegia: euskalkia ikasteko tailerra

Bergarako euskara hobetzeko ikastaroa antolatu dute, apirilaren 9tik maiatzaren 2ra, 18:00etatik 20:00etara –ordutegia aldatu egin liteke–. 16 ordu izango dira eta izena eman behar da martxoaren 22rako: Irizar jauregiko egoitzan, 943-76 44 53 telefono-zenbakian edo euskaltegia@bergara.eus helbidean.

Proiektzioa eta Amets Arzallusekin solasaldia

Lehen saiakera dokumentala emango dute martxoaren 19an Seminarixoan (18:00). Horrez gain, Amets Arzallusekin solasaldia eta sari banaketa antolatu dituzte.

Hauteskundeak: EAJren posta bidezko botoa

Batzokian eman daitezke posta bidezko botoa, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 19:30era.

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATEA

Entzuna Registratu Nº90/025

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bigarren agintaldiari ekin dio Bergara alkate bezala Gorka Artolak (Bergara, 1989), eta, asteon Goiena telebistako *Harira* saioan aitortu duenez, "bizia" ari da izaten agintaldi berriaren hasiera: "Taldeko kide berriak sekulako indarrarekin sartu dira; hamarretik sei berriak dira, eta tarte bat behar izan dute egokitze, baina lanerako oso dinamika ona sortu dugu".

Egiteko modu berrien "beharra" Agintaldiko planari dagokionez, "etorkizuna imajinaziotik eta herri izaeratik" eraiki behar dela sinetsita dago Artola: "Erronka oso handiak ditugu aurretik eta kontziente gara Udaletik gure kabuz bakarrik eta orain arte egiteko moduekin ez gara la gai izango erronka horiei aurre egiteko. Badarogau denbora bat esaten modu berritzaileak eta imajinaziozkoak behar ditugula arazo askori irtenbidea emateko. Horren adibide da agintaldiko planean jasotzen ditugun bost helburuetako bat diren arnaguneak, oso modu zabalean ulertuta; espazioez harago ere sortu ditzakegu toki, erakunde edo taldeak izan daitezkeenak hainbat arlotarako. Agintaldiko planean zehazten ditugun bost helburuetara helzteko bidea nahitaez egin behar dugu beste eragile batzuekin. Orain arteko eskemak apurtu egin behar ditugu". Arnaguneak, euskara, zaintza eta bakardadea, etxebizitza eta komertzioa eta alde zaharra dira bost helburu horiek: "Gobernuko hamar zinegotziok kalera irten ginen hainbat herritarrekin elkarriketaz izateko, eta hortik abiatu genuen agintaldiko plana".

Barrenkalea eta plaza, 2026rako Inbertsioetara etorrira, San Martin plaza eta Barrenkalea berritzeko proiektua azpimarratu du alkateak: "Proiektu hau lotuta dago erabat komertzioa eta alde zaharra biziberritzeko helburuarekin. Ez da kasualitatea plazaren eta Barrenkalearen berritzea planteatzea orain, alde zaharra suspertzea estrategiko ikusten badugu baditugulako aurrez egin beharreko etxerako lanak; horregatik, agintaldi hasieran ekingo diogu obra horri, agintaldiko bigarren partean ekimenak antolatu ditzagun; Bidekurutzetako esku-hartzea



Gorka Artola, asteon, Goiena telebistako platoon, *Harira* saioan. J.B.L.

"Plaza eta Barrenkalea 2026ko udarako berrituta izatea nahiko genuke"

Bigarren agintaldiaren hasiera "bizia" izaten ari dela aitortu du Gorka Artolak (Bergara, 1989) asteon Goiena telebistako 'Harira' saioan. Inbertsioez gain, egiteko modu berrietan jarri du arreta, bereziki; gaur ikusi ahalko da saioa, 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean

aurrerago etorri beharko litzateke". Artolak aurreratu du urte bukaeran hasiko direla plazako eta Barrenkaleko lanak: "2024ko bukaeran hasi eta 2026ko udarako bukatu nahiko genuke obra".

Martokoa ere aurten hastea Martokoa berriro urbanizatzeari dagokionez, alkateak txalotu egin du bizilagunek ekimen pribatuaren bidez "sekulako aurrerapausoak" eman izana azken urteetan: "Asko berritu dute ingurua, eta orain, eremu publikoan esku hartzea falta da. Duela bi agintaldi, EAJk eman zituen

"MARTOKOA BERRIRO URBANIZATZEKO LANAK 2024KO AMAIERAN HASTEKO ITXAROPENA DUGU"

lehen pausoak, eta guk aurreko agintaldian ere aztertu genituen aukera ezberdinak bizilagunekin batera. Aurreproiektuen artean bat onetsi zen eta, proiektu horren idazketa fasean gaude orain; oinezkoendako espazioak irabaziko ditugu eta aparkalekuak ordenatu egingo ditugu".

Aparkalekuak galdu egingo direla aurreikusten denez, San Antonio aldera doan errepidean aparkalekuak irabaziko dituzte: "Proiektuaren idazketa espero baino gehiago luzatzen ari da, baina espero dugu datozen asteetan amaitzea eta bizilagunekin azken aldiz kontrastatzea. Obrak 2024ko bukaeran hasteko itxaropena dugu".

Arrizuriagari "erabilera zabala" Arrizuriaga kultura ekipamendu bihurtzeko asmoa "prozesu luzea" izaten ari dela aitortu du

Artolak: "Eraikina oso egoera kaskarrean zegoen, eta lehen fasean egonkortzea izan zen helburua. Bigarren fasean, lehen solairua eta sotoa konpontzeko lanetan ari dira, eta hirugarren esleipen batean, bigarren eta hirugarren solairua berrituko dira. Kultura ekipamenduz gain, Emakume Etxea joango da bertan eta espero dugu 2025ean zehar martxan egotea. Aurretik egin genuen parte hartze prozesu bat eta orain beste lanketa bat egingo dugu erabilerrari eta kudeaketari dagokionez, eraikina prest dagoenerako amaitu

"ELEMENTALEKO ZATI BATEAN LIBURUTEGIA EGOKITZEA DA MAHAI GAINEAN DAGOEN IDEIETAKO BAT"

nahi duguna. Argi dugu eraikin hori irekia izango dela; ez dela inorena izango eta denona izango dela, aldi berean. Ez da gure asmoa espazio fisiko zehatz bat talde zehatz bati bideratzea, baizik eta askoz ere erabilera zabalago eta askeago ematea".

Elementala, "oso aurreratuta" Miguel Altuna zaharraren zati bat Udalaren jabetzara pasatzeko prozesua "oso aurreratuta" dagoela dio Artolak: "2002tik datorren hitzarmenean jasota dago bi eraikinetako bat, frontoiaren aldera doana, etxebizitzak egitera bideratzea; etxebizitza libreak jasotzen dira hitzarmenean. Beste eraikina jasoko luke Udalak, eta horren erabilera definitu gabe dago, baina zerbitzuetara bideratu ahalko litzateke. Mahai gainean dagoen ideietako bat da liburutegia egongo lekutik atera eta hara bideratzea, baina ez dago ezer zehaztuta".

Mugikortasuna, plan orokorrean Mugikortasun planik ez dago, Artolaren arabera, "diagnostiko oker batetik" abiatu zelako. "Lur azpiko parkinga justifikatzeko egin zen diagnostiko hori, eta zaharkituta zegoen. Mugikortasuna plan orokorrean txertatu dugu; teknikariak hasita daude lan horretan ere".

Agorrosin, Ipintza eta tasak Artolak dio Agorrosin kiroldegia igartzen zaiola 17 urte dituela: "Mantentzearekin eta inbertsio txikiarekin jarraituko dugu; gimnasioko ekipamendua eta zorua berritzea eta Ipintzako belar artifiziala aldatzea, kasu. Belarra udan aldatzen saiatuko gara". Agorrosin futbol zelaiko bigarren eta hirugarren faseek "kostu ekonomik oso handia" dutenez, ez dituzte aurtengo lehentasunetan sartu.

Agorrosinekin jarraituz, kostuen gorakadatik tasak igo izana "ezinbestean" hartu beharreko neurria izan zela dio alkateak, eta "injustua" deritzo kanpoko erabiltzaileei tasa gehigarri bat ezartzearen aurkako epaiari: "Epaile batek erabaki zuen prezio bera zehaztu behar zaiela bergararrei eta kanpokoei, eta ordenantza fiskalak aldatu egin behar izan genituen, baina ez zait justua iruditzen. Bergararrek hartzen dute euren kargu kanpotik datozenen kostuaren zati bat, eta hori ez da gutziz bidezkoa".

Igoera faserako sailkatu dira xake klubeko bi talde

Gipuzkoako Bigarren Mailatik Lehen Mailara igotzeko lehen kanporaketa bihar jokatuko dute, Zabalotegiko dorre azpiko lokalean (16:00). Horrez gain, xakean ikasi nahi duen edozeinentzat eskolak jarri dituzte martxan, martitzen arratsaldeetan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergarako xake kluba zorioneko dago, Gipuzkoako bigarren mailan jokatzen duten bi taldeak – Bergara A eta Zaleak– Lehen Mailara igotzeko fasea jokatzeke sailkatu dira eta. Multzoko bigarren eta hirugarren sailkatu dira, hurrenez hurren, multzoko liderra den Eibarren atzetik. Igoera faseko lehen kanporaketa bihar, hilak 9, jokatuko dute Zabalotegiko dorrearen azpian kokatutako lokalean (16:00).

Igoera lortzea, "lan zaila"

Igoera fasean gogor borrokatu beharko dute sailkapena lortzeko, maila handiko taldeekin lehiatuko dira eta: Eibar bera, Donostiako Gros, Lasarteko Taula, Errenteriako Beraun eta Zumaiako Txaturanga, besteak beste. Igoera faserako sailkatutako zortzi taldeek liga formatuan jokatuko dute elkarren artean. Bergara A eta Zaleak taldeek onena eman beharko dute igoeira lortzeko asmoz, lehen sailkatuak bakarrik lortuko du-eta mailaz igotzea.

Begarako hirugarren taldeko –Bergara B– kideak ere pozik egoteko moduan dira, Gipuzkoako Hirugarren Mailako liga jokatzen ari dira eta. Txapelketaren erdia baino gehiago igaro



Txapelketako partidak, xake klubaren Zabalotegiko lokalean. XAKE BERGARA

ondoren, hamabi talde daude jarraian, Andoaingo Agustin de Leiza taldearen atzetik, eta 2,5 puntuko aldea dute hirugarren sailkatuarekiko.

Xake eskola ere martxan

Xake klubetik gogorarazi dute, zale berriak erakartzeko asmoa ere badute. Izan ere, hainbat txapelketatan parte hartzeaz gain, martitzen arratsaldeetan eskolak ematen dituen xake eskola ere jarri dute martxan, eta nahi duenak, umetatik hasi eta edozein adinera arte,

izena eman dezake. Eskolak doakoak izango dira; 15 euroko matrikula bakarria ordaindu beharra dago hasieran. Izena emateko bi telefono-zenbaki eman dituzte: 671 84 15 63 (Jon) eta 618 41 76 25 (Javi).

Era berean, jakinarazi dute Bergarako jokalariek egubakoitz arratsaldeetan elkartzen direla xakean jokatzeke, Zabalotegiko dorre azpiko lokalean; ateak irekita dituzte, erabat, hurbildu eta jokatu nahi duen edozein xake zalerentzat: "Ateak irekita ditugu; etorri, eta gozatu".



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Euri jasari aurre egin zion Plazak

Lokatza Ziklismo Eskolako Igamo Packaging taldeak joan den asteburuan ekin zion Espainiako Kopari, Nojan (Kantabria). Open mailan lehen urtea duen Itxaso Plaza arrasatearrak –argazkian, zuriz eta gorritz– tinko eutsi zion lasterketa eguneko euri jasari; 87 kilometroko proban 180 ziklista irten ziren, eta 60 izan ziren helmugaratu zirenak; Plazak 51. amaitu zuen.

Pilota sailarendako martxa estreinatuko du Bandak domekan

Musika Bandaren hileroko kontzertua izango da domekan udal pilotalekuan (12:30); sarrera doan da. Joko dituzten piezen artean *Pilotari* azpimarratu du Enrike Txurruka zuzendariak: "Estreinatuko dugun martxa berri bat da. Toki egokiagorik ezean, gure kontzertuak frontoian izaten dira, eta, sarritan, pilota sailaren jardunarekin talka egiten dute. Euren aldetik beti jaso izan dugu laguntzeko jarrera osoa, eta hori nolabait eskertzeko pilotariei eskainitako martxa hau prestatu dugu. Jai giroko martxa alai da, eta abestiaren hitzek pilotaren dohaina eta garbitasuna gorai patzen dituzte". Beste lau pieza ere joko dituzte.

Martxoa ere ekintzaz beteta dator San Joxepe elkarteak

San Joxepe erretiratu elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu martxorako Bergarako Musika Eskolarekin elkarlanean. Martxoaren 1ean *Musikarekin gozaten* izeneko tailerra abiatu zuten, Leire Ugarterekin, eta bigarren saioa hilaren 22an izango dute. Hilaren 13an sagardotegira irteera egingo dute 200 bat lagunek, lau autobus beteta; Ordiziako azoka bisitatu eta gero joango dira bazkaltzera, eta arratsaldea Zarautzen igaroko dute. Eta hilaren 14an eta 21ean *Carmen* opera izango dute hizpide erretiratu elkarteak, Vinaixa Gartziarekin. Amaitzeko, Korrikaren etorrera ospatuko dute martxoaren 20an.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

GORKA ARTOLA

BERGARAKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

MARTXOAREN 8AN, EGUBAKOITZA,
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



Amaia Ramirez de Okariz**Kortabarria ANTZUOLA**

"Bide okerretik joango ginela-koan-edo, Señorita Marik ez zuen nahi bere ikasle izan ginen neskak lantegian lanean hastea, mutilekin nahastuko ginelakoan, baina guk lanera joan nahi genuen". Bada, esan eta egin: Hilaturas de Vergara lantokia – egun, Oerlikon Balzers dagoen lekua– ireki berritan, horrela egin zutenetako bi izan ziren Anastasi Gabilondo Arantzabal (Antzuola, 1942) eta Anparito Arregi Irastorza (Antzuola, 1942) herritarrak. Ez ziren, ordea, hautu hura egin zuten emakume bakarrak izan, dozenaka aritu baitziren haien eran jardunean lantokia itxi artean, orduko hartan andrazkoak horrelako eremu batean aritzea ohikoa ez bazen ere.

1956ko abuztuaren 25ean, herriko jaiak ospatzen zebiltzanean, inauguratu zuten Hilaturas de Vergara lantokia, kotoia hari bihurtzeko, eta urte hartan hasi ziren lanean Gabilondo eta Arregi, 14 urte bete berritan. "Den-denk hartzen gintuzten lanerako, hala nola langabeak, adinduak eta baserritarrak, baina gehien-goia neskak ginen". Egin beharreko lanari zegokionez, adierazi dutenez, "lan batzuk giza-kumearentzat" ziren, "batik bat, indarra behar zelako"; beste batzuk, aldiz, "emakumearentzat". "Eskuak finak behar ziren, hari finekin-eta ibili behar genuelako; beraz, andreon lana zegoen, batez ere, lantokiko ekoizpenaren atzean".

Baldintzak, ezberdin

Lantokietan lanean hasi ziren emakume antzuolarren lehen belaunaldia ez –Telleria eta Olaran lantokietan aritu ziren hainbat aurrez–, baina lehenengoetakoak izan ziren Hilaturaseko andreak. "Sekulako arrakasta izan zuen lehen egunetik. Baldintza onetan ibili ginen lanean, Gizarte Segurantzaren bagenuen, eta irabaziak ematen zizkiguten gutun-azal batean". Soldatari dagokionez, haiek biak hasi zirenean, 135 pezeta irabazten zituzten astero, baina ia hamar urte geroago zortzietan baino gehiago zirela zehaztu dute. "Irabazten genuen dirua etxerako zen, amarentzat, hura arduratzen baitzen diruaren kudeaketaz".

Traje berde bat konbinatu horiarekin soinean eta zinta bat



1956an zabaldu zuten Hilaturas de Vergara; eskuinean, lanean zebiltzan emakume batzuk. BERGARAKO ARTXIBOA, TORIBIO JAUREGI FUNTSA

Harilkatzen zihardutenei so

Hilaturas de Vergara ireki zenean, Antzuolako hainbat emakume lehen aldiz hasi ziren lanean lantoki batean; lan baldintzak "onak" ziren, baina baziren ezberdintasunak gizonenekiko. Ezkondukoan, ordea, normalean, andreak ez zuten lanean jarraitzen

Larrugintzan ere emakumeak lanean

Larru ontzeari lotuta egon da urteetan zehar Antzuolako industria, XVIII. mendearen bukaeratik hasi eta 90eko hamarkadara arte. Epealdi hartan handia izan zen larrugintzaren aktibitatea, langile asko ez zeuden artean; alabaina, lanean zihardutenen artean, baziren emakumeak ere.

Tellerianeko *guarnizerixia* izan zen larrua ontzeko lantokirik handienetako bat Antzuolan, Olaranekin batera, eta dozenaka andre aritu ziren lanean; 36ko gerra garaian, asko eta asko. Larrua makinatan ebakitzen zuten gizonak, eta emakumeak josten aritzen ziren; esate baterako, kartutxo-zorroak eta uhalak



Tellerianean aritutako andre batzuk, 1936an. 'ANTZUOLAKO LARRU ONTZEAN' LIBURUA

egiten zituzten, soldaduek erabili zituzten ondoren.

Bizipenak, digitalean

Ez da orduan lanean aritutako testigu handirik egun, baina

Ahotsak.eus proiektuan jardunaren berri ematen dute lau emakume antzuolarrek: Maria Igartzak, Josefa Iparragirrek, Basilisa Loitiak eta Angelita Telleriak.

buruan –emakumeen kasuan–, hiru txandatan egiten zuten lan lantokian, astelehenetik zapatara: 06:00etatik 14:00etara, 14:00etatik 22:00etara eta 22:00etatik 06:00etara. Halere, gizona ez bezala, emakumeek ez zuten gaueko txandarik egiten.

Ez zen, ordea, gizona ez bezala eta emakumeek artean zegoen ezberdintasun bakarra lan baldintzei dagokionez. "Soldatan ez zegoen diferentzia handirik, baina gehiago kobratzen zuten. Jarduten genuen esaten ea zergatik emakumeek gutxiago... Iraultzaileak ere baginen, e!". Izan ere, langileen delegatu bat zuten, "emakumea eta borrokatzailea", eta hark ziharduen beharginen eta arduradunen arteko bitartekari lanetan. "Eskatzen genituen soldata igoerak, ordutegi eta lan baldintza hobekuntzak... Langile soil bat zen, baina sekulako etorria eta burua zuen. Lortzen genituen hobekuntzak".

Ardura postuetan ere bazen ezberdintasuna, ez baitzegoen andreak: "Bazkide guztiak gizona ez bezala ziren, eta baita enkargatuak ere. Korridoreetatik pasatzen ziren noizean behin, salbuespenen bat salbu, kasurik egin gabe".

Ezkontzean, lanera ez

Emakumeetako askok, alabaina, ezkondu ondoren ez zuten lanean jarraitu, "orduko mentalitatea hori zelako". "Hemen oso gaizki zegoen ikusita lanean jarraitzea ezkonduz gero. Andreak etxean egon behar genuen, umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten; hein batean, etxekoandreak izan behar genuen, perfektuak, josten ikasi behar zutenak eta sukaldeak onak izan behar zutenak". Adierazi dutenez, bizi pentsaera hark "lotu" egiten zituen "derrigorrean", horretaz ohartzen ez baziren ere: "Guk ez genuen pentsatu ere egiten lanean jarraitzea. Aurka ere ez genuen egiten. Orain bai, ordea: gaur egunetik atzera begiratu gero, ohartzen gara beste zerbait egin genezakeela".

Ezkondu ondoren lanean ez jarraitzearen adibide da, esate baterako, 1978an ekainaren 3an Hilaturas de Vergara itxi zeneko langileen profila: 40 urtetik gorakoan artean, 25 langiletik sei ziren emakumeak; aldiz, 40 urte baino gutxiago zituztenen artean, 73tik 51. Beraz, hor da



Arduradunak, senideak eta apaiza, irekieran. BERGARAKO ARTXIBOA, TORIBIO JAUREGI FUNTSA



Algoa fintzeko makinak, Hilaturasen. BERGARAKO ARTXIBOA, TORIBIO JAUREGI FUNTSA

orduko errealitatearen isla, datuek eta kontakizuna bat egin baitezakete: emakumeak gazte aritzen ziren lantokian, ezkondu artean.

Gabilondok eta Arregik ere lantokia utzi zuten, baina itxieraren aurretik. Gabilondoren kasuan, 1966an laga zuen, ezkontzearen zela, baina seme-alabak handi egin zirenean irakasle hasi zen Antzuolako ikastolan, 42 urterekin; ondoren, oposizioak atera, eta Antzuola Herri Eskolan aritu zen lanean, erretiratu zen arte. Arregik, berriz, 1964an utzi zuen Hilaturas, baina ez ezkontzeko, baizik eta beste lan batean hasteko. Lau urte geroago ezkondu zen, eta harategi bat zabaldu zuen -Gabilondo Arregi dena egun-.

Herriarentzat "fabore"

Hilaturas de Vergara emakumeentzat ez ezik herritarrentzat

"GIZONEK GEHIAGO KOBRAZTEN ZUTEN; JARDUTEN GENUEN ESATEN EA ZERGATIK"

ANPARITO ARREGI IRASTORZA

ere "mirari bat" izan zela azpimarratu dute biek. "Antzuolara orduan iritsi zen ongizatea. Herria loratu egin zen, etxeak egin baitzituzten, komertzioak zabaldu, eta diru freskoa iristen baitzen astero-astero". Are gehiago, familientzat ere "ona" izan zela azpimarratu dute, denek etxean gelditzeko aukera izan zutelako, neska asko eta asko neskame joaten zirelako kanpora lanera lantoki hura eraiki aurretik.

Alabaina, fabrikaren itxieraren ondorioz, langileek indennizazioa jaso arren, hainbat andre ez zuten lantoki batera lanera itzultzeko aukerarik izan. Hurrengo belaunaldiek, ordea, aurreko emakumeek hasitako bidari jarraipena emateko aukera izan zuten; hein batean, garai eta pentsaera aldaketa probestuz, gorpila berriro ere martxan jarri zuten.

"EZKONDUTAKOAN LANA UZTEN GENUEN; HORI ZEN ORDUKO MENTALITATEA"

ANASTASI GABILONDO ARANTZABAL

Epika



ONINTZA LEGORBURU
ANDRAMANUELAK
TALDEAREN
IZENEAN

Zeinuak, ereserkiak, banderak... Azken finean, sinboloak. Sinboloek, gainera, sinbolo izan daitezten epika bat behar dute.

Orain dela zazpi urte, Andramanuelak talde feminista sortzean, Hilaturasen gertatutakoak beti egon izan dira presente gure artean. Beti iruditu izan zaigu istorio epiko bat; hezur-haragizko emakumeek sortutako istorio epiko bat, alegia. Istorio honek bestelako errelato batzuk deuseztatzen ditu; emakumeek lan produktiborik egin ez dutela, esaterako. Langile klaseko andreek beti egin izan baitute han edo hemen lan; eta baita etxean ere, noski. Gure herriko greba handienak ere emakume horiek egin zituzten. Eta soldata arrakalaz hitz egiten ez zenean, beraiek ondo baino hobeto ezagutzen zuten zer zen soldata arrakala; jakin baitzekiten beraien lantokiko gizon kapatazek dezente gehiago irabazten zutela.

Herri bakoitzak erabakitzen du sinbolikoki zerekin lotua izan nahi duen eta zer istorio epiko eraikiko duen sinbologia hori eraikitzeko. Guk ez dakigu emakume hauek Antzuolako sinbolo izatea nahiko duten. Ezta istorio epiko bat eraikitzea nahiko luketen ere beraien historiarekin.

Baina herri bezala zorretan gaude. 2018ko jailetan Zurrategiko estatua mozarrotu eta emakume hauei kantatu genien eran: *Zuentzat gure eskerrak, aitortza ta oroimena. Zuek izan baitzarete eredurik hoberena.*

'Hazien liburutegia' proiektua aurkeztuko dute eguaztenean

Haziak eta liburutegiak batzeko asmoa duen *Hazien liburutegia* proiektua aurkeztuko dute Antzuolako udal liburutegian datorren eguaztenean, hilaren 13an, 18:00etan. Bertako bariatateak babestea eta bizirautea da egitasmoaren helburua, haziak gordeta eta partekatuta; hori aintzat hartuta, askotariko tailerrek ere egingo dituzte azaro-

ra bitartera arte. Dena den, aurkezpenean azalpen gehiago emango ditu Marc Badal agroekologian adituak.

Irakurle kluba

Martxoaren 14an, eguenean, berriz, hilerio moduan, euskarazko irakurle kluba batuko da udal liburutegian. Karnele Jaio idazlearen *Orain hilak ditugu* poesia liburuz arituko dira, Alaine Agirre idazlearen gidaritzapean. Arratsaldeko seietan izango da.

Elkarretaratzea eta kontzertu akustikoa izango dira gaur

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, elkarretaratzea izango da gaur, egubakoitza, arratsaldean, 19:00etan, Andramanuelako emakume taldeak antolatuta. Zurrategi plazan izango da, eta, horren ondoren, manifestua irakurriko dute taldekiek. Ainhoa eta Nahiaren kontzertua ere izango da ostean, Udalak antolatuta.

Antzuolako egoera energetikoaz arituko dira astelehenean

Antzuolako egoera energetikoaz arituko dira astelehenean, hilaren 11n, Olan kultur etxearen areto nagusian, 18:00etan. Herriak dituen aukera energetikoak ere hizpide izango dituzte aurkezpenean. Energiaren Puntuak antolatutako ekintza bat da; energia komunitateen sustapen bulegoak, alegia. Debagoiena 2030 ekimena du oinarrian.

Gallartara irteera egingo du hilaren 21ean Landatxoepok

Landatxoepok jubilatuen elkarteak antolatuta, Gallartara (Bizkaia) irteera egingo dute hilaren 21ean. 09:30ean izango da irteera, eta Meatzaritza Museoa bisitatuko dute. Bazkaria egingo dute ostean, eta Bilbora joango dira arratsaldean, 19:00ak arte. Maiatzaren 11n eta 12an eman daiteke izena elkartearen, 16:30etik 18:00etara bitartean.

Zaparra eta Ameba taldeen kontzertuak izango dira bihar

Zaparra eta Ameba musika taldeen kontzertuak izango dira bihar gaztetxean, 22:30ean hasita. Rock-and-rolla egiten du Zaparra taldeak, eta *Azalberitzen* diskoa aurkeztuko du, bira egiten baitabilta. Ameba taldeko kideek, berriz, *Elikatuz* diskoa dute aurkezteko. Usurbilgoak dira bi taldeak, eta hiru euroko prezioa du sarrerak.

Korrikara joateko autobusa antolatu du Udalak, Elosura

Martxoaren 16an hasiko da 23. Korrika, zapatua, eta hilaren 20ko goizaldean iritsiko da Debagoienara. Galartza auzotik ere igaroko da, eta, beraz, Antzuolako Udalak autobusa antolatu du Elosura joan-etorria egiteko. 06:00etan izango da, doan, baina astelehena baino lehenago eman behar da izena, udaletxean.

Izki parke naturalera joateko izen-ematea martxan da

Euskal Herriko parke naturalak ezagutzen dabilta herritarrak, Arrola Mendi Elkarteak antolatuta, eta Izkira (Araba) joango dira martxoaren 16an, zapatua. 08:30ean izango da irteera autobusetatik egun pasa egiteko, eta hamar euroko prezioa du. labur.eus/arrolaizki helbidean eman behar da izena martxoaren 14a baino lehen.



Udalekuetako begiraleak haurrekin plazako pilotaleku alboan. OIHANA ELORZA

Udan ere aukera ugari izango dituzte gaztetxoek

Udaleku irekietako eta arte udalekuetako izen-emate epeak zabaldu berri dituzte; hilaren 15a izango da azken eguna. Uda kanpainarako, berriz, astelehenetik aurrera eman ahalko da izena, eta hilaren 19a izango da horretarako azken eguna

Itzi Barrena Kortabarria OÑATI

Udaleku irekierako izen emateko bide bakarra udaleko webgunea izango da. Bertan inskripzio-orria dago, eta, hori betetakoan, ordaindu izanaren ziurtagiria eta legezko tutore baten nortasun agiria kopia erantsi beharko dituzte. Matrikula 74,88 euro da eta bigarren haurretik aurrera merkeagoa izango da. Zaintza zerbitzua ere izango da, 08:15etik 10:00etara. Udaleku irekietan izena emateko laguntza behar duten gurasoek Txaloka ludotekara jo dezakete, astelehen, astearte edo asteazken goizez, izena emateko epeetan. Eltzia eta beste gune batzuk izango dira topalekuak aurten udaleku irekietan parte hartzen duten neska-mutikoentzat.

Arte udalekuak

Marraskigintza, eskultura, margolaritza eta beste arte-adierazpen batzuk lantzeko aukera ere izango dute haurrek aurten. Udaleku irekien data

eta ordutegi berak izango ditu, baina jarduerak gazteleguan egingo dituzte. Izena emateko epea ere martxoaren 15ean bukatuko da; online bidez egin beharko da. Udaleku irekien prezio bera dute, baina plazak, ordea, mugatuak izango dira. Izena ematen dutenen artean zozketa egingo dute eta izen-emate epea bukatu osteko astean jakinaraziko dute zeintzuk izan diren hautatuak. Plaza lortzen ez dutenek, berriz, udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute. Udaleku irekietan eta arte udalekuetan begirale izan nahi dutenentzat ere martxoaren 15era arte egongo da zabalik izen-ematea.

HILAREN 15A IZANGO DA IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA; UDAKO KANPAINARAKO, BERRIZ, HILAREN 19A

Udako kanpaina

Kasu horretan, martxoaren 11tik 19ra bitartean eman beharko da izena eta 25ean zozketen emaitzak banatuko dituzte posta elektronikoko bitartez; apirilaren 8tik 12ra, berriz, bajak emateko epea izango da. Libre gelditzen diren plazak itxarote-zerrendan dauden artean banatuko dituzte, alta berriak egon daitezten. Txanda bakoitzean gehienez hiru jardueratan eman ahalko da izena eta jarduera bakoitzean gehienez hiru ordutegitan. Lehenengo txanda ekainaren 24tik uztailaren 5ra izango da; bigarrena, uztailaren 8tik 19era. Txanda bakarren kasuan, berriz, ekainaren 24tik uztailaren 19ra. Izen-ematea kiroldegiko webgunean egin beharko da eta erregistratuta egon behar da, bazkide izan edo ez. Datu pertsonalen artean, harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoak agertu beharko dute. Prezioak aldakorak dira kirolaren arabera eta bazkide izan edo ez.

Lan-hitzarmenerako aurreakordioa lortu dute Natra Oñatin

Urtarrila ezker lanuzteak egiten aritu dira Natrako langileak "lan-hitzarmen duin bat" lortzeko. Hala, joan den ostiralean lortu zuten lan-hitzarmenerako aurreakordioa enpresarekin. Egindako ia eskakizun gehienak batzen ditu 2023 eta 2025 arteko epea izango duen hitzarmen berriak. Aurreakordio horren barruan daude, besteak beste,

ultraktibitate mugagabea, flexibilitaterik eza eta errelebo kontratua izateko aukera; azken horretan, aldizkako finkotasuna dutenek finko mugagabe partzial izateko aukera izango dute, 24 hilabete hemezortzi lan egiten badute. Bestelako puntuen artean daude langile kategoriatzatuen igoerak, laugarren txandako baldintzen hobekuntza eta soldaten igoera. ELA eta LAB sindikatua "pozik" daude lortutakoarekin; enpresak, aldiz, ez du adierazpenik egin nahi izan.

Hika ikastaroa egingo dute herrian apiriletik ekainera bitartean

Bildur barik hikaratu! lelopean, Oñatiko Udaleko Euskara Zerbitzuak Ingo Xonau! egitasmoko eta udal euskaltegiko kideekin elkarlanean antolatu du ikastaroa. Apirilaren 8tik ekainaren 10era izango da; hogeitita, guztira. Astelehenero, 18:00etatik 20:00etara. Orain arte emakumeentzat soilik antolatu da Jabetze Eskolan, baina aurten-

goa ikastaro mistoa izango da. Aurreko ikastaroetan bezala, Beatriz Irizar arituko da irakasle lanetan. Toka eta noka, biak ikasteko aukera egongo da, jolasen bidez eta oso modu praktikoa. Izena emateko epea martxoaren 11n zabalduko dute, martxoaren 25era arte; euskaltegian bertan edo www.oñati.eus webgunean formularioa beteta. Herritarrei hika ikasteko eta praktikatzeko erraztasunak eman nahian, ikastaroa doakoa izango da.

Hurrengo 'Harira' saioan egongo da Izaro Elorza alkatea

Debagoieneko alkateak protagonista izaten ari dira egubakoitzetako *Harira* saioan. Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta, 2023-2027ko agintaldiko lehen elkarrizketak egiten ari dira Goiena telebistan. Hain zuzen, Izaro Elorza Oñatiko alkatea izango da hurrengo ataleko protagonista, datorren egubakoitzean, hilak 15-18:30, 20:30

eta 22:30-. Herriko kontuen gaineko galderak erantzungo ditu Elorzak, eta herritarrek ere euren tartea izango dute alkateari galderak egiteko. Izaro Elorzarendako galderak bidaltzeko azken eguna martxoaren 11 izango da, eta arratsaldeko hirurak baino lehen bidalita egon beharko dute. Hiru aukera daude galderak bidaltzeko: berriak@goiena.eus posta elektronikoko helbidera idatzita eta Whatsapp zein Telegram bidez: 688 69 00 07.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Hasieratik helburua txapela janztea izan da"

MADALEN ETXEGARAI PILOTARIA

Emakume Master Cup-eko binakako txapelketako finalerako sailkatu da, Gaminderekin batera; Arrizabalaga-Erasun bikotea izango dute aurkari martxoaren 17an Uarkapen

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI Madalen Etxegarai (Oñati, 2005) eta Enara Gaminde Emakume Master Cup-eko binakako txapelketa irabazten saiatuko dira datorren astean, martxoaren 17an, Uarkapen(Arrasate), Olatz Arrizabalaga eta Itxaso Erasun aurkari dituztela. Finalari begira, oñatiarra elkarrizketatu du GOIENAK, haren sentsazioak eta aurreikuspenak jasotzeko.

Txapelketaren hasieran, espero zenuen honaino iristea?

Txapelketa hasi zenean argi genuen ez zela erraza izango, bikote oso parekatuak zeudelako, baina beti dago ilusio hori. Gure helburu nagusia finalerdietara iristea zen, eta lortu dugu, eta, nola ez, behin horra iritsita, finala nahi genuen.

Finalerdietan, gainera, Amaia Aldai pilotaria garaitu zenuten.

Guztiok dakigu Amaia nolako pilotaria den, eta, noski, neurketa oso zaila izango zela ere bai. Haren jokoa sartuz gero partidua aldapan gora jarriko zen, baina gure jokoa egitea lortu genuen eta aurrera ateratu genuen neurketa.

Nolako partidua izan zen?

Oso gogorra; batez ere, partidu hasiera. Izan ere, 8-0 galtzen hasi ginen, eta, emaitza hori ikusita, zaila da horri psikolo-



Etxegarai, Oñatiko pilotalekuan. M.A.

gikoki buelta ematea, baina ez genuen itxaropenik galdu. Atsedena eskatu genuen, gure jokoa aldatu beharra geneukala ikusita. Gure hasierako estrategia-ekin jarraitu genuen, eta, kostata izan bazen ere, 12-12 berdintzea lortu genuen. Handik aurrera, berdinketa batzuk izan ziren, baina aurretik izan ginen ia denbora osoan. Oso neurketa zaila izan zen.

Zein izan da finalera iristeko gakoa?

Esango nuke oso ondo ulertu dugula elkar kantxan. Era berean, ez da lehen aldia Gaminderekin

jokatzen dudana, eta, gainera, plazer handia da harekin bikotea osatzea, gaur egungo atzelari onena baita. Horrek konfiantza ematen du, eta jokoan ere dena errazagoa da.

Nolako finala aurreikusten duzu?

Oso final gogorra aurreikusten dut. Olatz Arrizabalagak eta Itxaso Erasunek txapelketa borobila egin dute. Erasun oso maila onean aritu da txapelketa osoan, akats gutxi egiten, eta Arrizabalagak ere erakutsi du nolako pilotari puska den. Lan handia egin beharko dugu aurrera ateratu ahal izateko.

Etxean izango da, gainera.

Etxean jokatzea beti da berezia; azken finean, normalean, partiduak nahiko urrun izaten ditugu, eta Arrasaten jokatzea oso polita izango da, bertan egongo direlako familiakoak eta lagunak. Euren babesa izango dugu.

Behin finalera iritsita, txapela nahi-ko duzue, ezta?

Txapelketa hasieratik izan dugu helburu bezala txapela janztea, eta, noski, behin txartela lortuta, helburua geroz eta hurbilago ikusteak ilusioa egiten du. Dena dela, aste honetan eta hurrengoan gogor egin beharko dugu lan finalera ahalik eta konfiantza-maila handienarekin iritsi ahal izateko.



NIRE USTEZ

RAMON MARTIN

Iragan deserosoa

Duela egun batzuk polemika sortu zen berriro Italiarren Piramidearen inguruan (Puerto del Escudo, Burgos). Francoren aginduz eraikitako monumentua. Bertan, alde frankistan borrokatu ziren soldadu faxista italiarrak omentzen dira. PPK eta VOXek Interes Kultureleko Ondasun izendapena sustatu dute, monumentua "aldatua" izan ez dadin eta, bide batez, memoria historikoaren legeak dioena ez betetzeko. Zer egin iragan deseroso batekin? Hori da galdera horren atzean dagoena. Gutxienez, bi bide daude: iragan horrek utzitako ebidentziak desagertzea edo, horiek mantenduz, ebidentzia horiek errealitate historiko jakin baten hausnarketa eta ezagutza gisa erabiltzea. Hor daude artxiiboak. Inori bururatuko al litzaioke diktadurako dokumentuak suntsitzea hura kondenatzeko? Dokumentuek –eta monumentuek– erakusten digute zenbaterainoko indarkeria erabili zuen diktadurak. Zergatik ez erabili *kontatzen* dutena hobeto ezagutzeko eta oroimen deseroso hori gogoratzeko? Haren kontra borrokatzeko, azken finean.



AITOR AGIRIANO

Naia Herraiz 'Galdegazte'-n

Denboraldi berriko hirugarren saioak Sukena taldeko abeslari Naia Herraiz izango du gonbidatu. Oraingo honetan, Naia Herraiz hobeto ezagutzeko, Txantxiu Ikastolako gazteak arituko dira elkarrizketatzaile eta xaxatzaile lanetan, Imanol Beloki gidari dutela. Oñatiarren saioa martitzenean emitituko dute, hilak 12, 19:30ean, 21:30ean eta 23:30ean.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

IZARO ELORZA

OÑATIKO ALKATEA

'HARIRA' SAIOAN

MARTXOAREN 15EAN, EGUBAKOITZA,
18:30EAN, 20:30EAN ETA 22:30EAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

✉ berriak@goiena.eus ☎ 688 69 00 07

EPEMUGA: MARTXOKA 11, ASTELEHENA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



"Bizitza handia eman dit Altuna estankoa"

IXIAR UNAMUNO ALTUNA ESTANKOKO ARDURADUNA

Mendeurrena bete du Altunak eta dagoeneko hiru belaunaldiren gidaritzapean egon da estankoa; aurrerantzean "gogor" jarraitzeko gogotsu daude bertako arduradunak

Julen Murua Mesonero OÑATI

1924ko otsailaren 20an ireki zuten Oñatiko Altuna estankoa, eta, 100 urte geroago, Ixiar Unamunok (Oñati, 1962) haren gidaritzapean jarraitzen du. Gizartea aldatu egin da ordutik, eta saltokiaren egoera ere bai. Estankoareneko mendeurrena ospatu berri dutela aprobetxatuta, haren orduko egoera zein zen eta gaur egun arte nola bilakatu den ezagutzeko asmoz joan da GOIENA Altunara Unamunorekin hitz egitera.

100 urte dagoeneko; nola hasi zen guztia?

Duela 100 urte jaso zuen nire aitona estankoa zabaltzeko baimena, baina nire amona Petra egoten zen lanean. 60ko hamarkadan nire ama hasi zen eta haren ostean ni sartu nintzen; hirugarren belaunaldia osatzen dut nik.

Herriko hirugarren estankoa zen Altuna.

Hori da. Lehenengo estankoa Zubillagan zegoen, taberna bat zegoen eta estankoa ere bazen; bigarrena plazakoa, arkupean dagoen estanko zaharra, udal-txe parean, eta gero, gu etorri ginen; hirugarrena izan zen gurea.

Zaintzuk dira zure txikitako oroitzenak?

Hemen jaiotakoa naiz eta estankoa bueltara aritzen nintzen beti. Txikia nintzen, eta, beraz, oso gustura aritzen nintzen. Gogoratzen dut lehen joaten nintzela Naparrena tabernara aldizkariak eramatera; *Hola* eramaten nuen sarritan, eta bertako langileek olibak ematen zizkidaten trukean. Ni, orduan, txikia nintzen, izugarria iruditzen zitzaidan!

Orduan ere tabakoa saltzen zenuten.

Bai. Tabakoa pisura saltzen zen, baina nik hori ez nuen ezagutu; guk tabako guztia paketeetan saldu izan dugu. Esango nuke nire amonaren garaian baietz,



Unamuno, Altuna estankoko liburuen parean. AMAIA TXINTXURRETA

"KALEA DEZENTE ALDATU DA; DENDA ASKO ITXI DITUZTE, BAINA GUK GOGOR JARRAITUKO DUGU"

pisura salduko zela, pisua izan ohi dugu-eta etxean.

Tabakoaren kontrabandoaren garaia nola bizi izan zenuten?

Garai hartako estanko guztiek bezala, guk ere saltzen genuen kontrabandoko tabakoa, bai.

Nola aldatu da estankoen egoera?

Askok aldatu da. Orain, jendea presaka bizi da; lehen, berriz, lasai-lasai. Lehenagoko bezeroak etortzen zirenean tarte luzeagoa izaten genuen haiekin hitz egiteko, euren gauzak kontatzen zizkidaten, eta nik entzun. Gainera, orain aldizkari eta liburua saltzen ditugu gehien eta uste dut orain gehiago irakurtzen duela jendeak. Pandemiaren geroztik ere handitu egin dela esango nuke.

Estankoa zurea bada ere, nagusia Madrilen dago, ezta?

Bai; oporrak eskatu nahi baditugu, esaterako, Madril es-

katu behar dugu baimena; Tabakoaren Merkaturako Ordezkaritzan eskatu behar dugu, Ogasun Ministerioan. Tabakoaren gaineko prezioa ere han zehazten dute, eta handik helarazten digute aldatetaren bat gertatuko balitz.

Kale Barrian kokatuta egonda, inguruan ere komertzio asko egon da?

Bai, asko zeuden. Adibidez, hemen ondoan zegoen Goñi taberna, baita Etxeberri taberna ere. Aurrerago zeuden Oleaga janari-denda, Milikua eta Txokolateixia. Kalea dezente aldatu da; orain, lasai-lasai dago. Denda asko itxi egin behar izan dituzte, baina guk hemen jarraitzen dugu, gogor.

Zer eman dizu estankoa?

Bizitza handia eman dit estankoa, oso gustura egon naiz, eta gaur egun ere gustura nago. Txikitatik egon naiz hemen, eta Altuna estankoa mendeurrena betetzeko asebetetze handia ematen dit. 100 urte urte asko dira; bezeroei esker iritsi gara kopuru horretara; izan ere, haiengatik ez balitz, ezin ginatke gaur egungo egoerara iritsi.

'eMcumeak' antzezlanaren egoera jorratzen duen lana da; arratsaldeko zazpietan hasiko da

Euskal emakume sortzaileen egoera jorratzen duen lana da; arratsaldeko zazpietan hasiko da

J.M.M. OÑATI

Domekan, martxoaren 10ean, *eMcumeak* antzezlanaren ikusteko aukera egongo da Santa Ana antzokian, 19:00etan hasita, 8 euroren truke. Itxaso Payak eta Maria Riverok sortutako lana da *eMcumeak*, eta emakume sortzaileak kontratatuzko agentzia batean oinarritzen da istorioa. Gaur egungo kulturaren sektorean indarrean dagoen androzentrismoa agerian uztea du helburu antzezlanak, eta, horretarako, umorea, hitz-jokoak eta askotariko diziplina artistiko

koak erabiltzen dituzte. Payaz eta Riveroz gain, Olatz Beobidek, Harkaitz Canok eta Katixa Agirrek ere hartu dute parte lanean: Beobide zuzendaritza artistikoaz arduratu da eta Canok eta Agirrek sormen prozesuan lagundu dute.

Antzezlanean, sortzaile berriak aurkitzeko casting bat egingo dute, baina, aldi berean, sektoreko kompetentziak zenbait traba jarriko dizkie haien lana betetzeko prozesuan; oztopo horiei guztiei aurre egin behar ko diete euren lana burutzeko.

Zuhaitzak landatuko dituzte Aloñan asteburuan

Natur Eskolako ingurumen jardunaldien barruan, eta Aloña Mendi kirol elkartearen 75. urteurrenaren bueltan, zuhaitz landaketa egingo dute Aloñan. Aloña Mendi kirol elkarteak osatzen duten sail guztiek zuhaitz bat landatuko dute, eta, beraz, guztira, hamalau zuhaitz landatuko ditu elkarteak, Aloñako Lagunak taldearekin batera.

Xabier Ugarteri omenaldiak egun aldaketa izango du

Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan, omenaldia egingo diote Xabier Ugarteri. Ekitaldia martxoaren 20an kultur etxean egitekoa zen, baina, azken orduko arazoak direla-eta, martxoaren 21ean Santa Ana izango da, 19:00etan. Ekitaldirako gonbidapenak kultur etxean eskuratu ahal izango dira martxoaren 11 eta 19a artean, 16:30etik 20:30era. Egunean bertan sarrera librea izango da, lekua egonez gero.

Korrikaren azken egunean – martxoaren 24an – Baionara joateko autobusa egongo da; txartelak Txokolateixan eskuratu ahal izango dira, martxoaren 13ra arte, 18 eurotan.

Martxorako antolatutako irteera Lokiz mendilerroa

Lokiz mendilerroa (Nafarroa) egingo du irteera mendi sailak hilaren 17an. Irteera goizeko zazpietan izango da, posta geltokian. Aloña Mendi tabernan edo alonomendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita eman ahal da izena; martxoaren 14a baino lehen. Bazkideek 10 euro ordaindu behar ko dituzte eta parte hartzeko federatuta egon behar ko da.

Gaztetxoek prest dute bizikleta lasterketa jokatzeko

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak urtean zehar herrian antolatzen dituen lasterketatik lehenengoa jokatuko da zapatuan, hilaren 9an, 16:30ean hasita. Unibertsitate inguruan prestatuko dute txirrindularitza sailko kideek lasterketa jokatu den eremua, eta benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutilek parte hartuko dute.

200 txirrindulari egotea esperatu dute antolatzaileek – horietatik 36, Bizipoz-Aloña Mendikoak –; Debagoieneko, Debabarreneko eta Urola Garaiko klubetako txirrindulariak izango dira. Antolatzaileek adierazi dute "gogotsu" daudela lasterketei hasiera emateko.

Bua...
aspertute nau ja.
Bixer
nora juengo gare
bazkaittera?



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

goienaOkmgida

Debagoiengan baldin badago,
hemen dago.



Goiena
Okm Gidaren
eskaintza osoa.



Lander Irazabalbeitia eta Mikel Mantxola, Arrasaten. J.M.M.

"Erasoak saihesteko protokolo bat izan nahi dugu"

LANDER IRAZABALBEITIA ETA MIKEL MANTXOLA ESKUBALOIKO EPAILEAK

ESKUBALOIA Aurreko asteburuko etenaren ostean, Gipuzkoako eskubaloi txapelketak itzuliko dira; gertatutakoaren balorazioa egin diote GOIENari ballarako bi epailek

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA Joan den asteburuan ez zen Gipuzkoako eskubaloi txapelketeko partidarik jokatu, otsailaren 16an Lander Irazabalbeitia epaile arrasatearrak une hartan Tolosako entrenatzailea zen Viacheslav Kobinen partetik jasandako erasoagatik epailek etena egitea erabaki zutelako. Gaia jorrazteko asmoz, *Harmailatik* saioan izan ziren astelehenen Irazabalbeitia (Arrasate, 2003) eta Mikel Mantxola (Oñati, 1966) epaileak.

Zenbait arazo izan dituzue azken asteburuetan, eta neurri bat hartu beharra zegoen.

Mikel Mantxola: Landerrri gertatu zitzaion; entrenatzaile batek eraso egin zion; fisikoki, gainera. Hori dela eta, batzar bat egin

"EZ NUEN SEKULA PENTSATUKO EGOERA MUTURRERAINO IRITSIKO ZENIK"

LANDER IRAZABALBEITIA, EPAILEA

eta erabaki genuen Federazioarekin harremanetan jarri behar genuela. Bazeuden asteburu hartan bertan gelditu nahi zutenak, tartean beste partida batzuetan ere egon zirelako epailearekiko zenbait irain, baina erabaki genuen joan den asteburuan gelditzea.

Nola bizi izan zenuen egoera?

Lander Irazabalbeitia: Epaileak bere lana du, eta normaltasunez jokatu nuen. Egoera edozein dela ere aurrera egiten duen pertsona bat naiz, eta hori egitea

erabaki nuen. Partida berotu egin zen, bi taldeak faltak egiten hasi ziren, baina ez nuen pentsatzen –eta uste dut epaileek, oro har, sekula ez dugula pentsatu– egoera muturreraino iritsi ahalko zenik. Pasatakoa pasa da, baina ez nuen inola ere pentsatuko horrelako eraso larri bat jasoko nuenik. Normaltasunez hartzen saiatu nintzen, aurrera begiratuaz. Egunkari eta aldizkarietan ere agertu zen hau guztia. Nire ustez, ez zen hainbeste zabaldu beharreko kontua, baina entrenatzailea bera ere eskubaloiaren izena duen pertsona bat da, eta hori albistea egiteko aprobetxatu dute askok.

Eraso hartako gorabeherak konpondu dituzue?

M.M.: Egunean bertan deitu zidan Landerrek, partida amaitu ahal. Esan nion ea nola zegoen eta etxera itzultzeko, partidako akta gauean amaituko genuela. Domekan elkartu ginen eta anexoa osatu genuen. Ni entrenatzailearekin telefono bidez egon nintzen eta erabaki genuen bazkari bat egitea hirurok gertatutakoaz hitz egiteko. Damututa zegoen hura, baina egindakoa ordaindu egin beharko du.

Hurrengo asteburuan ere izan zenuen hainbat arazo.

M.M.: Ostiral hartan batzarra egin genuen epaileok, eta batzuek gelditu egin nahi zuten egunean bertan. Lortu genuen atzeratzea, ostiral gaua zelako eta talde guztiei abisatzea ezinezkoa zelako; baina justu asteburu hartan izan ziren beste zazpi edo zortzi eraso; ez fisikoki, baina ahozkoak, batzuk entrenatzaileen aldetik eta beste batzuk, berriz, zaleen aldetik. Orduan erabaki genuen etena egitea; bildu ginen Federazioko kideekin eta erabaki genuen txapelketa guztiak gelditzea.

Noiztik bizi dituzue horrelako egoerak eskubaloiaren?

M.M.: Gehienbat, horrelakoak gertatzen dira epaile gazteak daudenean tartean; jendeak aprobetxatzen du hasiberriak direla haien lanarekin sartzeko. Hori, baina, arazo orokor bilakatzen da; hasiberriak diren

"EGOERATIK GEHIEN HARRITU NAUENA LANDERREK IZAN DUEN JARRERA DA"

MIKEL MANTXOLA, EPAILEA

epaile horiek ez dute jarraitu nahi izaten. Epailerik ez badago, ez dago txapelketarik; denok gara beharrezkoak: entrenatzaileak, jokalaria eta epaileak; horietako edozeinek huts egiten badu, ez dago partidarik.

Horrelako egoerak zer kategoriatan gertatzen dira sarriago?

L.I.: Infantil eta kadete mailetak partiduetan gertatzen dira arazoak, baina, oro har, gurasoak egoten dira tartean, eta haiekin kudeatu beharreko zerbait da. Senior mailan, berriz, zaleekin gertatzen da. Eskubaloiaren kontaktu handiko kirola da, eta, askotan, gurasoak garrasika hasten dira euren seme-alabaren bati falta gogor bat eginez gero. Senior mailan, berriz, adinez nagusiko jokalaria egoten direnez, gurasoak askotan ez dira sartzen. Kasu horietan, entrenatzaileekin, jokalariekin eta zaleekin lan egin behar da. Asteburuaren arabera ere asko aldatzen da; gerta daiteke zapatu batean kiroldegi batean egoera txarra izatea, baina hurrengo astean, kiroldegi berean, egoera guztiz aurkakoa izatea, segun eta zer partida jokatzeko den.

Zer eskatzen duzue epaileen aldetik?

M.M.: Egoera horiek saihesteko protokolo bat izan nahi dugu. Horrelako zerbait gertatzen bada, etxeko ordezkariak moztu behar du egoera. Batzuetan, ordezkari horiek min hartuta dauden eta partida jokatu ezin duten jokalaria dira, eta ez dituzte harmailatik botatzen pertsona horiek. Lan bat egin behar dugu, formakuntza eman kantxako ordezkaria izango denari; baita protokolo luze bat, partida momentuan moztu eta bertan behera gelditzea.

Horrelakoetan, epaile lanetan ari zeko gogoia galdu egiten da?

L.I.: Pertsonalki, kantxara itzultzeko gogoz nago. Asteburuan geldi egonda, epaile lanetan ari zeko gogoia izan dut. Datorren asteburuan [oraingoan] txapelketak itzuliko dira, eta itzultzeko gogotsu nago.

M.M.: Gehien harritu ninduen izan zen Landerren jarrera. Erasoa jasan ostean, domekan beste partida bat zeukan. Esan nion lasai egoteko eta ni joango nintzela partida arbitratzera haren ordezkari, baina Landerrek esan zidan lasai egoteko, hura joango zela; asko harritu ninduen.

Txanponaren bi aldeak elkartuko dira Eztalan

FUTBOLA Txapelketako azken sailkatua eta liderra batuko dira zapatuan Eztalan (11:30): Antzuola eta Mondra. Helburu ezberdinak lortzeko borrokan ari badira ere, derbian hiru puntuak lortzea oso garrantzitsua izango da bi taldeentzat

Julen Murua Mesonero ANTZUOLA Helburu guztiz kontrakoak baina, era berean, garrantzi maila handikoak dituzten bi talde arituko dira nor baino nor gehiago zapatuan (11:30) Eztala futbol zelaietan: Antzuola eta Mondra, hain zuzen. Antzuolarrak sailkapeneko azken postuan daude gaur egun, baina jaitziera postuetatik irtetea ez dute horren urrun. Arrasatearren, berriz, sailkapeneko lider izaten jarraitzen dute, eta gauzak asko aldatu beharko lirateke denboraldi amaieran talde zuri-morea zuzeneko igoera postuan ez egoteko.

Eztala, gotorleku

Dozena erdi gol jaso zituen Antzuolak joan den asteburuan Azkoagainen, baina oñatiarren aurka jokatu aurretik maila ona erakutsi zuten gorritxoek; izan ere, lau jardunaldi zera-maten lehiarik galdu gabe. Horregatik, "taldea lehiakor izatera" itzultzea nahi du Aitor Aierbek, Antzuolako entrenatzaileak, eta, horretarako, "Eztala gotorleku" bilakatzea ezinbestekoa dela aitortu du azpeitiarrak. Denboraldian eskuratu dituen 14 puntuetatik 12 etxean lortu ditu Antzuolak, eta, "zaila" izango dela badio ere, "guztia" emango dutela ziurtatu du.



Danel Kortabarria eta Iker Perez baloia lortzeko lehia. IMANOL SORIANO

Bederatzi jardunaldi falta dira denboraldia amaitzeko eta antzuolarrak sailkapeneko beheko postuetan dauden gainontzeko talde guztien aurka jokatu dute; partida gehienak, gainera, etxean. Helburua lortzeko Eztalan jokatzeko dituzten partiduetan "gogorrek izatea eta ahalik eta puntu gehien lortzea" oso garrantzitsua dela esan du Aierbek.

Gero eta gertuago

Gari Nuñezen mutilak ere egoera berean daude. Falta diren asteburuetan sailkapeneko goi-

ko taldeen aurka jokatu dute, eta legazpiarrak dio partida horietan "guztia erabakita" gera daitekeela. Hala ere, "hankak lurrean" dituztela adierazi du, eta jokalariek ohartarazi ditu, esanez "aurten galdutako partidu bakarria Eztala bezalako zelai batean" izan zela, eta, beraz, "beti bezala, errespetu handiarekin eta guztia ematera" joango direla Antzuolara.

Kontuak kontu, azken jardunaldietan egoera askorik okertu ezean, gero eta gertuago izango du talde zuri-moreak igoera.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOR. ERREGIO. GIZ.

Hernani-Aretxabaleta

Zap. 15:30. Zubipe.

Mutriku-Bergara

Zap. 16:30. San Miguel.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

Debagoiena B.-Elgoibar

Dom. 18:00. Azkoagain.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

Zarautz-Bergara

Zap. 16:00. Asti.

EMAK. GOREN. IGOERA

Segura-Bergara

Dom. 18:00. Alustiza.

GORENGO MAILA

Antzuola-Mondra

Zap. 11:30. Eztala.

Bergara-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Ipintza.

Aretxabaleta-Anaitasuna

Dom. 16:30. Ibarra.

GAZTEAK EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-Indautsu

Zap. 18:00. Ibarra.

GAZTEAK OHOR. MAILA

Aloña Mendi-Urola

Zap. 17:30. Azkoagain.

Mondra-Urki

Zap. 17:30. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mondrate-Gernika

Zap. 16:15. Musakola.

Eskoriatza-Antiguoko

Zap. 19:00. M. Muñoz.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Coinb. Aloña-Eguzki

Zap. 20:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Mondrate-Ostiko

Zap. 18:15. Musakola.

Eskoriatza-Altza

Zap. 16:15. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Aloña Mendi-Pulpo

Zap. 16:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

Mugarri Ingou-

Aritzatalde

Zap. 20:00. Iturripe.

Soraluce BKE-Urola

Zap. 17:15. Labegarieta.

EMAK. GIPUZ. SENIOR.

Aloña Mendi-Egia

Zap. 19:15. Zubikoa.

GIZO. BIGARREN SENI.

Erreka Berg.-Leizaran

Zap. 13:00. Labegarieta.

GAZTEAK GIZONEZKOAK

Urnieta-Aloña Mendi

Zap. 10:00. Udal kirol.

Donibane-Ingou Arras.

Zap. 19:45. Pasaia kirol.

EMAKUMEZKOAK

Goizper Bergara-Eibar

Zap. 11:15. Labegarieta.

Ordizia-Ingou Arrasate

Zap. 16:30. Majori.

Oñabike Aloña-Bera

Zap. 17:30. Zubikoa.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Grupo de Santiago

Dom. 18:30. Iturripe.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

Easo-MU

Zap. 18:45. Altza kirol.

EUSKAD. BIG. GIZON

Biotz Aloña-Padura

Zap. 18:00. Zubikoa.

Soraluce BKE-Ordizia

Dom. 18:00.

Labegarieta.

ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

Kanp. Arrasate-Eibar

Zap. 16:00. Mojategi.

Entrenamendu irekia egingo du Bera Berak Labegarietan

Bergarako Labegarieta kiroldegia elitezko eskubaloia jokalariei bisita jasoko du datorren astelehenean, hilaren 11n, 18:30ean; izan ere, Donostiako Bera Bera taldeak entrenamendu irekia egingo du. Donostiarrak denboraldia azken txanpan murgildu da dagoeneko, eta liga amaitzeko hiru jardunaldien faltan dago Imanol Alvarezek

zuzentzen duen taldea; hain zuzen, mahoneroen indarra baliatuko dute azken partiduetarako indarrak batzeko.

Europako txapelketatik kanpo gelditu diren arren, ligan hirugarren postuan dago Bera Bera, eta, urte amaiera ginga jartzeko, denboraldi borobila egiten ari den beste talde bat ere izango da Labegarietan; izan ere, Bergarako gazte mailako emakumezkoen taldeak donostiarrekin batera egingo du entrenamendua.

Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean!

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida martxoaren 15ean, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: martxoaren 10a.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!

1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!

Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena[™] kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

"Ibilaldi bat da, latz samarra bada ere"

LA FURIA MUSIKARIA

Nerea Loronek beste musika proiektu bat abiatu du, haren ibilbidea markatu duen esentziari fidel, baina egiteko eta adierazteko modu berriei askatasunez helduta

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Promenade izena duen kantua argitaratu zuen otsailean, eta hilero kantu berri bat plazaratu du Arrasaten bizi den Nerea Loron *La Furia* (Cascante, 1983) rap kantari feministak.

Aurkeztuko diguzu *Promedade?*

Paseoa esan nahi du frantsesez. Ibilaldi bat da honako hau, latz samarra, baina paseoa bat, eta ez lasterketa bat. Ezer gura ez duen abestia da, izatea baizik. Abesti bat izatea ez da gutxi, horregatik ez diot gehiagorik eskatzen. Abestiarekin fantasia-rako baimena ematen diot neure buruari, bizkar-zorroarekin sartzen naiz nire autoan, nire maitalearekin, denok arrastaka daroagun errutik aldentzen naiz, nire haragiarekin gozaten dut, eta harenarekin. Era berean, zeharretik begiratzen diot jende maltzurriari, askorik gelditu barik, baina etxeko marka da haserreari ere kasu egitea.

Bicharraca artistak egindako bideokliparekin argitaratu duzu.

Ezinbesteko artista da Bicharraca. Urte asko daroa errealitateak berrasmatzen doilorrentzako bizitokiak marrazteko. Egun, beste hainbat tresnaz gainera, adimen artifiziala erabiltzen du helburu berarekin,



Nerea Loron *La Furia* rap kantaria. EKAITZ ZILARMENDI

eta algoritmoa nahasten du eta erreminta bera asaldaten du. Liluragarria iruditzen zait haren unibertsoa, eta horren parte naiz orain. Prozesua intentsua eta aberatsa izan da. Bakoitzak bestearen uretara salto egin du, eta zoriontsu nago emaitzarekin. **Hilero kantu bat argitaratuko duzu; zerk bultzatu zaitu hala egitera?**

Gogoak. Izan behar dena suposatzen den horretatik urruntzen saiatu naiz; ez zait axola, gainera, lortu izana. Ez nengoen ezberdin izan edo beste halako tontakerietara begira. Egin gura

nuena egin dut, beste barik. Garapena iruditzen zait lortu izana. **Disko baten bilduta amaituko dute?** Batek daki. Dudan gogoaren arabera. Hori da lege bakarra. **Proiektu berriak aldaketak dakarrela diozu, baina identifikatzen zaituen esentziari fidela izanda.** Esentzia diozu... Dagoeneko ez dakit dugun zerbait funtsezkoa ote den. Eta ez dakit zerk ezagarrizten nauen. Azken finean, suposatzen dut mantentzen dena izateko modu irmoa dela.... Zalantzan ere irmoaren soinua izan dezake?

Konposatzeko motorra ere aldatu zaizula diozu; zein da, bada, orain?

Desioa. Uste dut. [Barre] Amorrue ere badago, ez gaitezen engainatu.... Baina toki ezberdinetara doa.

Zelako istorioak aurkituko ditukantu berrietan?

Uf... Joaten uzteak ere ondorio bat dauka: abesti bakoitzean 27 konturen gainean berba egin ahal duzula, batzuetan ulergaitzak, eta zaila egiten zait gaien inguruan handian berba egitea. Baina pentsarazten badidazu, esaterako, sexualitatea dago, identitate likidoak, ez-tokiak, tristura, topaketak eta harrokeria apur bat ere bai, zeren neskatila zutik dago ostia batzuk hartu ostean.

Eta zer diozu musika arloari buruz?

Neurrira egindako fantasia bat. Salbuespen barik, dena ondo. Ekipo ezin hobea. Batzuen inguruan ezin dut berbarik egin, abesti batzuk oraindik ez ditugulako argitaratu, baina orain dela denbora asko daudenak dira Iñaki Bengoa eta Rec Overflow; bada, polit egiten didate eta eurekin geratzen naiz.

Martxoaren 8a da gaur; ze esanahi du zuretzako?

Bi urte eta erdi nituen amamaren etxean zapi bat eskuetan "guk erditzen dugu, guk erabakitzen dugu!" oihukatzen nuen. Haren ikararako, noski. Feminista militante baten alaba naiz. Zer kontatuko dizut, bada? **Plan handirik ezingo duzu egin, Bermeoko Kafe Antzokian duzue-eta gaur gauean kontzertua; zer duzue prestatuta?**

Bolotzar bat, zintzoki. Gogo guztiak jarrita niretzako eta besteentzako errepertorioan. Justizia egiten diot neure buruari kontzertu bakoitzean, eta hori ez da gutxirako izango.

DJ bat eta bi dantzari dituzu lagun taularen gainean; zeintzuk dira?

Valentina DJa, Bergarakoa, haren arte eta zapoarekin. Dantzari talde bat -Lara, Janire eta Ainara-, gorputza ematen diotenak ihes edo min egiten duten hitzei. Dena osatua dagoela iruditzen zait eurekin. Harro nago egitea lortu dugun taldearekin. **Agenda beteta duzue.**

Kontzertu ilusionagarriak eta bidaia eta bizipen potenteak ditugu aurretik. Eldan, Leganesen eta Gironan izango gara esan dezaket, baina mingainari hozka egiten ari naiz, iragarri bako bidaia ditugulako; hala ere, barrutik aldatuko nautela sentitzen dut.

Gaia aldatuta, zer diozu gidatzen duzun Mimosa Bulegari buruz?

Mimosa loreen etxe bat da, haren arantza guztiarekin, noski, baina gure modukoendako nahi dugun etxea da. Ikasten eta zoroen moduan lanean jarraitzen dugu, haiei behar bezala entzunez gero mundua aldatuko luketen artisten bidea bidezkoagoa izan dadin. **Hamar urteko ibilbidea; zer ikusten duzu atzera begiratuta?**

Nagusi sentitzen naiz, zentzu onenean. Seguruagoa, malguagoa. Gustatzen zait nor naizen eta pozik nago hartutako erabakiekin. Atzera begiratzen badut, samurtasunarekin eta esker onarekin begiratzen diot neure buruari. **Eta zer ikustea gustatuko litzaizuke etorkizunera begiratuta?** Lasai egon gura dut. Ikusten nola bihurtu naizen nagusi?

"IZAN BEHAR DENA SUPOSATZEN DEN HORRETATIK URRUNTZEN SAIATU NAIZ"

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

JESUS ETXEBERRIA

'KONTU KONTARI' SAIOAN

MARTXOAREN 14AN, EGUENA,
19:30EAN 21:30EAN ETA 23:30EAN

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEK
EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.



"Rupertoriotik" tiraka, kalean da 'Bakarka 2'

Gitarra eta ahotsa osagai bakar dituen hamabi kanturen bertsio "biluztuak" batu ditu Ruper Ordorikak argitaratu berri duen 'Bakarka 2' bilduman; 2018an sortu zuen albumaren bide beretik osatu du lan berria, Jonan Ordorika anaiarekin elkarlanean

A. Aranburuzabala OÑATI

45 urteko ibilbidean sortutako kantu batzuk aukeratu eta "bigarren bizitza" bat eman guran abiatu zuen musikari oñatiarrak *Bakarka* proiektua. "Erantzun ona izan zuen lehenengo bildumak, eta tarteka joan naiz, molde berean, kantu gehiago grabatzen. Orain arteko nire lan guztien moduan, abuztuan zendu zen Jonan anaiarekin grabatu nituen horiek ere. Taldearekin, musikari handiak lagun, oso gustura nabil, baina asko maite dut taularen gainean bakarka ibiltzea ere, nolabait, gaur egun egiten denaren kontrako bidetik badoa ere. Formatu horretan beste esparru batzuetara heltzen zarela uste dut; urte asko duten kantuen mamia hor geratzen da eta bilduma hau da, hain justu, gaurko begietatik zelan ikusten ditudan erakusteko modua", dio Ordorikak.

Garai askotarikoak

Hamabi kantu batu ditu, guztira; *Aingeru guardakoa*, *Erruduna*, *Haize goxoarena*, *Zaindu maite duzun hori* eta *Zaldiak negarrez* izenekoak, besteak beste. "Ni baino rockerragoa zen Jonan, eta nire errepertorioan kantu azkarragoak sartzeraz bultzatzen ninduen beti; hari omenalditxo bat egin guran aukeratu nuen,



Ruper Ordorika Oñatiko musikaria. R.O.

bada, esaterako, *Zaldiak negarrez*. Hirugarren diskoko *Erruduna* ez da taldean jotzeko kantu samarra, eta aldaera politak ditu bakarkako bertsioan".

Hastapenetan sortutako *Alber-to Careiroren bisita* abestia era badago bilduma berrian, eta baita aurrez sekula grabatu bako *Artista baten istorioa* izenekoak ere. "Nire kantu zaharrenetakoa da lehenengo hori. Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekutetan barrena* (1981) liburuko poema bat da. Urte asko egin ditut hori kantatu barik, baina

iaz bost saio egin nituen Bilbon Sarrirekin eta saio haietan berreskuratutako nuen berriz, eta horren ondorioz sartu da diskoan. *Artista baten istorioa* izenekoak, berriz, bertsio bat baino gehiago, Daniel Johnston kantari amerikarraren kantu baten adaptazio bat da".

Zuzenean aurkezteko gogoz

Anaiaren heriotzarekin, etapa berri bati ekin dio; hala ere, "gogotsu" dago kontzertuetarako; datorren hilean Aiherran abiatuko du bira berria.

Iraganera begirada, gaurko dantzen eta teknologiaren bidez

Logela Multimedia Circle of Trust konpainiarekin egin duen 'Surrealismo' ikuskizuna bihar Seminarixoan

A. Aranburuzabala BERGARA

Ikus-entzunezkoak eta puntako teknologia erabiltzen maisuak dira Elorrioko Logela Multimedia; horren erakusle dira hogeitortetik gorako ibilbidean egin dituzten ikuskizunak. Iaz

sortu zuten, aurrez elkarlanean jardun duten Circle of Trust konpainia bidelagun, publiko guztiarentzako proposatutako *Surrealismo* izenekoak, bihar, zapatua, Seminarixoan 20:00etan eskainiko dutena.

Dantza urbanoa eta 'mapping'-a 40ko hamarkadan, Bigarren Mundu Gerra piztu zenean, Parisko kafetegiak hainbat diziplinako artisten topaleku izan ziren, eta hala sortu zuten Surrealismoa korrante artistikoa. Bada, garai hartako kontakizuna egiten dute Bergaran eskainiko duten "lan kanporakoian eta koloretsuan", baina gaur egungo begiradatik eta osagaiekin; besteak beste, *mapping* teknika erabilia eta sei dantzari urbanok gorpuztuta.

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK

Tableta

InnJoo Superb Plus tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tableta



EROSKI
ARRASATE

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OSTAIKO BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanakida.org
Bidezko Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LPD 15/1997 legearen arabera jokatzen den gaur eta gero pertsonak Goiena Komunikazio Zerbitzua bidez automatikoki baten sartuko dira. Datu-filetan haren helburua bakarra da indarrez dagoen sariaren irabazteko. Eskubidea eragoz du datu-filetan sartzea, baina zuzentzeko eta ezabatzeke, helbide honetan dituzte: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

Almazanean antzerkirako sarrerak ditugu. Arrasate | Amala antzokia | Martxoak 17 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Antzerkia" [barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LPD 15/1997 legearen arabera jokatzen den gaur eta gero pertsonak Goiena Komunikazio Zerbitzua bidez automatikoki baten sartuko dira. Datu-filetan haren helburua bakarra da indarrez dagoen sariaren irabazteko. Eskubidea eragoz du datu-filetan sartzea, baina zuzentzeko eta ezabatzeke, helbide honetan dituzte: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: martxoak 12

☎ 943 25 05 05

✉ goienakide@goiena.eus

📱 "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jatetxea

[barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

GOIENAKIDE KUOTA: 65€

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Bergara. Etxea erositako nuke Bergaran. 3 logela eta igogailua izatea gus-tatuko litzaidake. Matxiategi, Cristobrero eta Ernai kale inguruetan. Interesatuok deitu 673 35 95 98 zenbakira

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasaten. Deitu 631 59 81 22 zenbakira

Arrasaten etxebizitza errentan hartu. Arrasaten etxebizitza errentan hartuko genuke. Umerik gabeko bikotea gara. Lan fin-koa daukagu. Telefonoa: 680 87 38 66

Oñati. Errentan hartu. Oñatiko bikote bat gara, 30-32 urtetakoa. Alokairuko etxe baten bila gabilta, Oñatin. Telefonoa: 696 33 36 62

Oñatin etxea hartuko nuke errentan. Bi pertsonarendako bi logeladun etxea hartuko genuke errentan. Euskaldunak gara, oso arduratsuak, langileak eta lan kontratuarekin. 630 63 18 39

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Astean zehar, asteburuetan eta gauetan orduka lan egingo nuke. Garbiketa lanak egingo nituzke, baita nagusiak zaindu eta konpainia egin ere. Soziosanitario titulua dut. 634 94 30 78

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko eta pasiatzera ateratzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. Nire herrialdean erizaintzako laguntzaile ikasketak egin nituen. Deitu telefono zerbaki honetara: 634 15 82 25

Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu eta pasiatzera atera eta garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 631 79 87 75

Bergara. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko. Prestutasun osoa eta esperientziaduna. Deitu telefono zerbaki honetara: 666 07 42 98

Bergara. Umeak zainduko nituzke Bergaran, goizez zein arratsalde. 669 63 93 29

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka lan egingo prest, baita etxean bertan bizi izaten. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. 632 63 77 38

Debagoiena. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario ikasketak ditut. 613 72 59 43

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia handia dut. Legezko agiriak ditut. Deitu 672 96 37 99 zenbakira

Debagoiena. Astelehenerdik ostiralera garbiketa lanetarako, edo etxeetan pertsonak zaintzeko gertu nago. Lanaldi osoa edo orduka lan egin dezaket astelehenerdik ostiralera bitartean. Soziosanitario titulua dut. Erreferentzia ezin hobekak ditut. Telefonoa: 641 10 95 67

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Malgutasun osoa du. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz eta legezko agiriak ditut. 612 23 89 09

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Malgutasun osoa du. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz eta legezko agiriak ditut. 612 23 89 09

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaindu eta pasiatzera ateratzeko, baita etxe zein atarietako garbiketa lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Esperientzia dut. 642 97 71 61

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Malgutasun osoa. Soziosanitario titulua dut. 627 21 08 93

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Interesatuok deitu 612 56 12 39 zenbakira

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan. Interesatuok deitu 632 19 08 26 zenbakira

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izate edo bestela lan egingo nuke. Interesatuok deitu 625 25 57 78 zenbakira

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nire herrialdean erizaintza ikasketak egin nituen eta soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 643 50 56 62

Debagoiena. Emakumea prest adinekoak gaez zaintzeko eta goizetan paseatzera ateratzeko. 647 37 01 92

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, baita garbiketa lanak egiteko ere. Malgutasun osoa. 632 54 45 86

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela, orduka. . lan egiteko gertu dagoen emakumea. Pertsona nagusiak edo mendeko pertsonak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Malgutasun osoa. 647 37 01 92

Debagoiena. Garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko presta dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak ditut eta legezko agiriak. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. Interesatuok deitu 641 51 13 06 zenbakira

Debagoiena. Gizonezkoa pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin, igeltsero laguntzaile gisa edo bestela lan egiteko prest. Malgutasun osoa dut. 613 45 80 75

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko prest. Baita asteburu eta gauetan ere. Telefonoa: 626 91 49 04

Debagoiena. Neska arduratsua pertsona nagusiak zaindu, pasiatzera

atera edo goizetan jaiki eta gauetan ohera sartzen laguntzeko prest. Baita umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, baita asteburuetan. Deitu telefono honetara: 631 76 12 42

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko prest, astean zehar zein asteburuetan. Deitu telefono zerbaki honetara: 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Deitu telefono honetara: 697 29 76 11

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen mutila. Astean zehar zein asteburuetan lan egingo nuke edozein ordutan. Baita tabernan kamarero edo sukaldari laguntzaile bezala. Deitu telefono zerbaki honetara: 688 89 91 25

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo paseatzera laguntzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak ditut. 643 21 04 28

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke, baita asteburuetan ere. 641 44 16 30

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu, paseatzera atera edo konpainia egiteko prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. Astean zehar 14:00etatik aurrera, gauetan edo asteburuetan lan egingo nuke, etxe zein ospitalean. 602 80 15 38

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia dut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu. Interesa baduzu deitu 643 50 58 27 zenbakira

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago etxe, baserri eta egoiztan. Autoa daukat. Soziosanitario eta eskor-gak maniatzeko titulua dut. Malgutasun osoa dut. 631 98 15 50

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia dut. Malgutasun osoa, nahiago nuke etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulua dut eta nire herrialdean erizaintza

ikasketak egin nituen. Interesa izango bazenu, deitu 643 50 56 62 zenbakira

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 611 24 18 98

Debagoiena. Sukaldeko laguntzaile, eskor-gidari, biltegiko peoi edo eguzki-plaken instalazioetan laguntzeko lan bila nabil. Lan hauetan esperientzia eta ikastaroak eginak ditut. Telefonoa: 632 20 44 75

7. ANIMALIAK

702. EROSI

Golden Retriever txakurra nahi dugu. Baserrian bizi garen bikote bat gara eta Golden Retriever motako txakur baten bila gabilta. Informaziorik izanez gero, deitu edo idatzi mesedez. 696 33 36 62

8. DENETARIK

806. GALDU

Bergara. Bergarako plaza-tik poligonora bitarteko bidean, betaurreko graduatuak galdu ditut. Funda batean orduka daude. Topatzen baldin badituzu, deitu hurrengo telefono zerbaki: 646 24 42 64

ZORION AGURRAK



ARRASATE Laida Garmendia Gorosabel 8an, 2 urte. Zorionak! Jarraritu horren jatorra eta alai izaten. Asko maite zaitugu.



ARRASATE Laia Aranzabal Larraza 13an, 6 urte. Zorionak! Izugarri maite zaitugu! Muxu erraldoia, bereziki Aiurren partetik.



ARETXABALETA Noa Olivenza Iturricastillo 12an, 12 urte. Zorionak, maitia! Segi beti bezain alai! Izugarri maite zaitugu! Musu asko.



ARRASATE Ekhi Madinabeitia Lasa 10an, 7 urte. Zorionak, xagu! Primeran ospatuko dugu! Besarkada erraldoia!



OÑATI Tasio Zelaia Marchand 10an, 10 urte. Zerbaki borobila aurtengoa! Mereziz duzun moduan ospatuko dugu!



ARRASATE Ane Etxebarria Alzola 9an, 7 urte. Zorionak! 7 urte etxeko martxosiak! Segi hain jator, alai eta bizi hazten!



BERGARA Iraide Beristain Laskurain 9an, 9 urte. Zorionak! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu haundi bat.



ANTZUOLA Maddi Acosta Seguro 9an, 10 urte. Zorionak! Oso ondo pasa zure eguna. Segi holako alai. Muxu haundi pilla bat.



ARETXABALETA Ilargi Azkarate Bilbao 8an, 8 urte. Zorionak! Oso ondo ospatu zure eguna! Besarkada estu bat eta patxo pilo bat!



BERGARA Amaia Pozo Martxoaren 8an, 12 urte. Zorionak! Ondo ondo pasa!



ESKORIATZA Aner Orobengoa Nevado 8an, 13 urte. Zorionak! Zu beti moduan, jator eta zuzen. Ederro pasatu eguna!



OÑATI Garazi Diaz de Gereñu Larrañaga 7an, 10 urte. Zorionak! Oso ondo pasa zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat!



OÑATI Izei Umerez Eceolaza 6an, 5 urte. Zorionak! Etxeko danen partetik eta bereziki Laien partetik!



ARETXABALETA Suhar eta Miren Ulezia Vitoria 5an, 4 urte. Zorionak, pitxintxos! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo haundi bat etxeko danon partetik! Asko maitxe zaituztegu.



ARETXABALETA Iker Isasmendi Zubizarreta 3an, 47 urte. Zorionak, aitaboi! Muxu bat etxekoan, baina batez ere zure "sozio" Inarren partetik!



OÑATI Kattin Ibane Arkauz 3an, 3 urte. Zorionak! Poz pozik ospatuko dogu zure urtebetetzea! Patxo potolo bat maitia!



BERGARA Magali Azula Padilla 3an, 9 urte. Zorionak, politori! Muxu handi bat familia guztian partetik.



ARETXABALETA Beñat Pagoaga Urra 2an, 4 urte. Zorionak! Ondo ondo ospatu zure urtebetetzea! Asko maitxe zaitugu!



BERGARA Jon eta Ander Basauri Davila 1an, 12 urte. Zorionak, gure etxeko mutil haundiak! Muxu bat familia guztian partetik.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti

Inmobiliaria

Bergara:
Barrenkale, 60m²
erabilgarri, 3 logela, 2
balkoi eta ganbara.
Erdigunean.
115.000€



Bergara:
Zubiaurre,
61m² erabilgarri, 2
logela, balkoia eta argi
natural askorekin.
120.000€



Bergara: Iriburu,
73m² erabilgarri,
oso eguzkitsua eta
kanpoaldekoa.
Igoailuarekin
160.000€



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokokorosti.com

Informazio
gehiago:



EZKONTZA



Juanjo eta Itziar
Urrezko ezteiak bete ditu aretxabaletar bikoteak. "Ederto ospatuko dugu elkarrekin. Muxu handi bana, etxeko eta familiakoen partetik".

HILDAKOAK

- Koro Uralde Ugarte.**
Aretxabaletan, martxoaren 1ean. 72 urte.
- Maria Luisa Fernandez Ordoñana "Marilu".**
Aretxabaletan, martxoaren 5ean. 89 urte.
- Beatriz Azkoaga Bidaburu.**
Aretxabaletan, martxoaren 1ean. 97 urte.
- Jose Martin valle.**
Arrasaten, otsailaren 29an. 68 urte.
- Lourdes Ibañez de Opacoa Muñoa.**
Arrasaten, otsailaren 29an. 84 urte.
- Gregorio Zabalo Lekerikaonandia.**
Arrasaten, martxoaren 3an. 89 urte.
- Irene Martinez de Icaya Saez de Camara.**
Arrasaten, martxoaren 2an. 90 urte.
- Rafael Herrera Montero.**
Arrasaten, otsailaren 29an. 85 urte.
- Isabel Tena Masedo.**
Arrasaten, martxoaren 4an. 68 urte.
- Mari Carmen Pagalday Garro.**
Eskoriatzan, martxoaren 4ean. 93 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 8 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 9 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 10 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 11 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 12 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99
Eguaztena, 13 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguena, 14 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 8 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 9 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 11 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 13 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Eguena, 14 ESTELLA: Matxiategi kalea 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 9 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 10 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 11 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 12 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 13 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 14 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKER ONA

Rafael
Herrera Montero

2024ko otsailaren 29an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 8an.

ESKER ONA

Koro
Uralde Ugarte

2024ko martxoaren 1ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko martxoaren 8an

ESKER ONA

Moises
Etxaniz
Beaskoetxea

Otsailaren 24an hil zen, 56 urte zituela.

Elkarrekin igarotako urte guztiak maitasunez bihotzean.
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana.

Etxaniz lehengusuak.
Bergaran, 2024ko martxoaren 8an.

ESKER ONA

Beatriz
Azkoaga
Bidaburu

—Goian bego—

2024ko martxoaren 1ean hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko martxoaren 8an.

OROIGARRIA

Moises
Etxaniz
Beaskoetxea

2024ko otsailaren 24an hil zen, 56 urte zituela.

*Irrinti-ko kafeko zure lagunok beti izango zaitugu gogoan.*Miren, Mertxe, Maria Pilar, Margari, Maria Antonia,
Merce, Rosa eta Maria Eugenia.

Bergaran, 2024ko martxoaren 8an.

OROIGARRIA

Moises
Etxaniz
Beaskoetxea

2024ko otsailaren 24an hil zen, 56 urte zituela.

*Gurekin betirako.*Poligonoko kuadrilla.
Bergaran, 2024ko martxoaren 8an.

MEZA

Martina
Ugarte Aiastui

2024ko otsailaren 27an hil zen.

Ama, amama, eskerrik asko emandako guztiagatik!
Zure irribarre alaiak beti bizi-bizirik jarraituko du gure bihotzean.

Haren aldeko ondra-meza zapatuan izango da, martxoaren 9an,
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.Martinarek sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez,
horrenbeste eratan maitasuna eta gertutasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Oñatin, 2024ko martxoaren 8an.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

BABESLEA

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei esan bidea osatzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak guzen izan dituzten konfiantzagarri eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Maribi eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**GORKA ARTOLARI
ELKARRIZKETA**

Goiatz Aranaren galderak erantzun ditu Bergarako alkateak, kargua hartu eta zortzi hilabetera.

'Harira' Egubakoitza, 18:30, 20:30 eta 22:30

**NOLA EGIN KONPOSTA ETXEAN**


Aramaioko Udaleko Ingurumen teknikari Jon Toñarekin egingo du berba Julen Muruak.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**KAZETARI GAZTEAK NAIA
HERRAEZEKIN**

Txantxiku Ikastolako ikasleek Sukena taldeko abeslarietako bat elkarrizketatuko dute, Imanol Belokiren laguntzarekin.

'Galdegazte' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**OÑATIKO ALTUNA ESTANKOAK 100 URTE**

Estantkoko alaba Ixiar Unamuno Altunarekin egingo du berba Amaia Txintxurreta kazetariak.

'Hemen Debagoiena' Eguaztrena, 18:00, 20:00 eta 22:00.

**JESUS ETXEBERRIAREKIN BERRIKETAN**

Herrikide Iñigo Ramirez de Okariz antzuolarrak egingo dio elkarrizketa Etxeberriari, aspaldiko kontuei buruz.

'Kontu kontari' Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

ZAPATUA 9**BERGARA Ornitologia tailerra**

Hegaztien ezaugarrien, behaketarako oinarrien, identifikaziorako tresnen eta aplikazioen eta giden gaineko informazioa emango dute, besteak beste. Helduendako. *Laboratoriumen, 10:00etan.*

OÑATI 'Gaztagintzaren sekretuak' bisita

10:30ean, Arantzazuko parketxetik abiatuko dira ibilbide irisgarrian zehar; eta 11:30ean, bisita gidatua Gomiztegin. Izena emateko: arantzazu@gipuzkoanatura.eus eta 943-78 28 94. *Parketxean, 10:30ean.*

OÑATI Eskolarteko txirindularitza lasterketa

Aloña Mendiko txirindularitza sailaren eskutik. *Oñatin, 10:30ean.*

ARRASATE 'Makinak gara' tailerra, familian

Arraguak dinamizatu. Gaur, bigarren saioa. Izena: Bibliotekan edo webgunean. *Kulturaten, 11:00etan.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte arteko haur eta aurre-nerabeendako. Orduetgia: 11:30-13:30. *San Andresko gazte txokoan.*

ELGETA Zuhaitz landaketa

Udalaren eskutik. *Mendizaleen plazan, 11:30ean.*

ARRASATE 'Kalean otso, etxean uso' umeentzat

Patata Tropikala antzerki taldearen lana. Babes gabekoen aurkako indarkeriaren gaia landuko dute, ipuin tradizionalak eraldatuz. Debalde. *Seber Altube plazan, 12:30ean.*

ARETXABALETA 'Azken festa' haurrentzako antzezlan

Tomaxen Abenturak taldearen ikuskizuna umeentzat, Korrika Kulturalaren baitan. Sarrerak, hiru euro. *Arkupen, 17:00etan.*

ARRASATE Film labur feministen emanaldia eta solasaldia

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

BERGARA 'Suirrealismo' dantza-urbano ikuskizuna

Logela Multimediaren lana. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

DOMEKA 10**ARETXABALETA Eskolarteko seigarren boulder ligaxka**

Alebinak, infantilak eta kadeteak. *Ibarran, 09:30ean.*

OÑATI Zuhaitz landaketa Aloñan

Aloña Mendiren 75. urteurrenean, elkarteko sail bakoitzeko landare bat landatuko dituzte: hamalau. *Unaimendin, 10:00etan.*

ARAMAIO Irteera Santikurtzera

Gorbeialdeko Gurasolagunen irteera. San Kristobal aparkalekuan elkartuko dira, Kruzetako portuan, Oletako bidea irteten den lekuan. *Aparkalekuan, 10:30ean.*

ARAMAIO Bertso-pilota saioa

Korrika Kulturalaren baitan. *Kiroldegian, 10:30ean.*

ARRASATE Gimnasia erritmiko topaketa

Benjamin mailako topaketaren bigarren fasea jokatuko dute Gipuzkoako gimnastek. *Iturripe kiroldegian, 11:00etan.*

BERGARA Musika Bandaren kontzertua

Enrike Txurrukak gidatuta. *Pilotalekuan, 12:30ean.*

ARRASATE Familian Jolasean ekimena

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako. *Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

ELGETA 'Aireportuan' ikuskizuna

Potx eta Lotx pailazo taldearen emanaldia. Sarrerak, sei euro. *Espaloian, 18:00etan.*

ARRASATE Mihi-bero jolasa

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

OÑATI Ibil Bedi taldea

Burrunda Faktoriak gonbidatuta, Korrika Kulturalaren baitan. Sarrerak: ohikoak zortzi euro eta murriztuak hiru. *Gaztetxean, 19:00etan.*

ARETXABALETA Antton Telleria eta Iker Plazaola

Bakarrizketa saioa egingo dute, Korrika Kulturalaren baitan. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 19:00etan.*

ARRASATE 'Tempus fugit' dantza ikuskizuna

LaMov taldearen lana. Bizitzaren iheskortasuna erakusten duen lana, bidaia frenetikoa, zirrargarria eta mingarria. Sarrerak, hamar euro. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

BERGARA 'Suirrealismo' dantza-urbano ikuskizuna

Logela Multimediaren lana, break dantza eta zirkua bateratuz. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

ASTELEHENA 11**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio publiko duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. *Herri horietan, 12:00etan.*

OÑATI Idazketa tailerra

Jose Mari Iturralde gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ANTZUOLA 'Antzuolako egoera eta aukera energetikoak' hitzaldia

Energia komunitateen sustapen bulegoaren eskutik. Debagoiena 2030 ekimena du oinarrian. *Olaran etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Habitat, ezkutatu diguten historia' erakusketa

Nabarralde Fundazioaren bilduma, gaurtik hilaren 16ra arte. *Olaso dorrean, 18:00etan.*



LAMOVI

ARRASATE 'Tempus fugit' ikuskizuna

LaMovi taldea. Sarrerak, hamar euro. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.*

MARTITZENA 12

ARRASATE Caritasen boluntario izateari buruzko hitzaldia

Caritasen eta boluntarioek egin dezaketen lanaren gaineko hitzaldi informatiboa. Aurrez eman behar da izena. *Parrokiako lokalean, 10:00etan.*

OÑATI Gizonendako foro irekia

Gizonen berdintasunaz hausnartzeko, gaiak sortzen dizkien kezkek eta ezinegonak partekatuzeko eta kritika nahiz autokritikarako espazioa. Hiruko Larroxa taldeko kide Joseba Gabilondok gidatuko du. Hiru saioetatik lehena da gaurkoa. *Euskaldun Berria gelan, 17:30ean.*

ARETXABALETA 'Gurasotasun positiboa eta ongizate emozionala futboleko ikastaroa

Realeko atezain Alex Remirok eta Futbol Mas fundazioak bat egin dute futboleko diharduten haurren eta nerabeen osasun mentala eta ongizatea sustatzeko helburuarekin. Aurrez eman behar da izena. *Arkupen, 17:30ean.*

BERGARA 'Lurzorua eta ura: binomio banaezina' hitzaldia

Nahia Gartzia edafologoak eta Ane Zabaleta hidrogeologoak egingo dute berba, Kukubasok gonbidatuta. *Olaso dorrean, 18:30ean.*

ARRASATE 'El sueño de la sultana' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpituiluekin. *Amaia antzokian, 19:30ean.*

EGUAZTENA 13

BERGARA 'Helduen suizidioa prebenitzea' hitzaldia

Alexander Muela psikologoak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.

Seminarioan, 10:00etan.

BERGARA Kafe Konpon

Etzeko tresna txikiak konpontzeko. *San Joxepen, 16:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Agatha Christie-ren *Una hija es una hija* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Liburutegian, 18:00etan.*

ANTZUOLA 'Hazien liburutegia' egitasmoaren aurkezpena

Marc Badalen eskutik. *Torresoroan, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren garaiko produktuak erosteko. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI Ahoz aho jaialdia

Gente, caminos y sucesos saioa egingo du Carolina Ruedak. *Zinema-aretoan, 19:00etan.*

ARRASATE 'Ez dadin bizitza eten' liburuaren aurkezpena

Miren Aranguren egilearekin. *Kulturaten, 19:00etan.*

OÑATI 'Adaxka lehorrak: talka eko-sozialaren biharamun politikoa' liburuaren aurkezpena

Jokin Bergara da egilea eta solasaldirako tartea egongo da. *Gaztetxean, 19:00etan.*

BERGARA 'Priscilla' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpituiluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarioan, 20:00etan.*

EGUENA 14

ESKORIATZA Odol ateratzea

Autobusa egongo da. *Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.*

LEINTZ GATZAGA 'Gatzagako egoera eta aukera energetikoak' hitzaldia

Energia komunitateen sustapen bulegoaren eskutik. Debagoiena 2030 ekimena du oinarrian. *Ludotekan, 18:00etan.*

OÑATI Ostegun Kontalariak

Gonbidapenarekin. *Haurren liburutegian, 18:00etan.*

ARRASATE Komiki Kluba

La prioridad komikiaren gaineko saioa, Joseba Gomezek gidatuta. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA Jarduneko gaztetxoentzako antzerki emanaldia

Volare eta Landako eta hiriko lanak antzeztuko dituzte. *Seminarioan, 18:00etan.*

ANTZUOLA Irakurle taldea

Karmele Jaioren *Orain hilak ditugu* liburuaren gaineko saioa. *Torresoroan, 18:00etan.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Gure falangista zen liburuaren gaineko, Mikel Antzak gidatuta. *Liburutegian, 18:00etan.*

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Bilbao-New York-Bilbao liburuaren gaineko, Mikel Antzak gidatuta. *Liburutegian, 19:00etan.*

BERGARA Kalejira erraldoiekin eta trikiti taldearekin

Korrikaren etorrera girotzeko. *San Martin plazan, 19:00etan.*

BERGARA 'Opera bat: ikusi eta entzun, Carmen' ikastaroa

Vinaixa Gartzia gidatuta. *San Joxepe elkartearen, 19:15ean.*

BERGARA Alayn-ekin elkarrizketa eta musika

Irratsaioa zuzenean eskainiko dute kartzela zaharretik. *Kartzela zaharrean, 20:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Unidad Alavesa

Ataungo boskotearen zuzeneko. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Ferrari
Zapatua eta domeka: 19:30.

La aventura infinita
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIOA

El color púrpura
Domeka eta astelehena: 19:30.

Kina & Yuk
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Sala de profesores
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Museoaren zaindariak
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Robot dreams
Egubakoitza: 21:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 20:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:15.
Martitzena: 18:15.

Bob Marley: one love

Egubakoitza, eta astelehenetik eguaztenera: 19:15.
Zapatua eta domeka: 18:00.
Eguena: 16:30.

La zona de interés

Egubakoitza eta domeka: 18:00.
Zapatua: 18:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

Migrazioa (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Desconocidos
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:00, 22:30.
Domeka: 16:15, 19:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 16:30, 19:30.
Martitzena: 16:45, 19:30.

La estrella azul

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 22:20.
Domeka: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 16:45.

Políticamente incorrectos

Egubakoitzetik domekara: 16:15, 20:15.
Astelehenetik eguenera: 16:45.

Dream scenario

Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:15, 22:30.
Domeka: 16:00, 18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:10.

Por tus muertos

Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00.
Domeka: 16:00, 18:00.
Astelehenetik eguenera: 16:15, 18:10.

Blue giant

Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

Dune: parte dos

Egubakoitza: 16:00, 19:10, 21:15.
Zapatua: 12:00, 16:00, 19:10, 21:15.
Domeka: 12:00, 16:00, 19:10.
Astelehena eta eguaztena: 16:15, 18:45.
Martitzena: 16:15.
Eguena: 16:15, 19:00.

Kung Fu Panda 4

Egubakoitza: 17:15, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 18:30, 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 18:15.
Martitzena: 17:00.
Eguena: 18:15.

Los pequeños amores

Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 20:05, 22:05.
Domeka: 16:00, 20:05.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

KRITIKA

La estrella azul

★★★★★

Zuz.: Javier Macipe. **Herr.:** Espainia (2023). **Aktoreak:** Pepe Lorente, Cuti Carabajal, Bruna Cusi. **Iraupena:** 129 minutu.

Erritmo barnekoa

ANTONIO ZABALA

Mauricio Aznar musikarekin eta bere bizitzarekin deseroso sentitzen zen aurreko mendeko 90eko hamarkadan, Zaragozan. Krisialdi existenzialean murgilduta dago eta drogek ez dute laguntzen gauzak hobeto joan daitezten. Rock musikaria izanik, Atahualpa Yupanki musikari argentinarra miresten du. Hori dela eta, bizitzari bira bat eman nahian, Argentinara doa, Santiagoko folkloreaken esentziaz blaitzera. Mauriciok bizimodu berri bat ezagutzen du. Hango jendea abegitsua da, eta daraman bizimodu oso lasaia. Folklorea, musika eta dantza bizitzaren mamia dira. Musikak espirituak elikatzen ditu. Bakoitzak musikaren erritmoa barneratu behar du, eta horrek prozesu bat behar

du. Musikaren erritmoa bizitzara zabaldu dezakegu. Gizakiak bere erritmo barnekoa topatu behar du. Mauricio horretaz ohartzen da, baina, sarritan, gizartearen erritmoak eta exijentziak irentsi egiten gaituzte.

La estrella azul film freskoa eta naturaltasun handikoa da. Sinesgarriak dira deskribatzen dituen tokiak, bai Zaragoza, baita Argentina ere. Oso ondo azaltzen da pertsonaien artean gertatzen den elkar-ezagutza eta euren artean sortzen diren lokarri afektiboak. Hala, Santiagoko gizartearen eta Mauricio Aznarren erretratu egokia lortzen du. Filmak dokumental tankera izan arren, hasieran eta bukaera aldean garbi lagatzen digu fikzio-lan baten aurrean gaudela.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Napoleon

Azken asteetako euri eta elurrek gero eta ohikoago ditugun neguko bero eta lehorteak ahaztera eraman gaituzten bitartean, kezka bolada bat iritsi zaigu iparraldetik, nahiz eta ez duen honek zerikusirik inongo ekaitz edo eguraldi kontuekin. Otsail bukaeran, NATOko eta Europar Batasuneko buruzagiek bilera egin zuten Parisen, Zelenskiren tropek jasandako azken porroten harira. Egoera kezkarria da, antza, mendebaldeko potentzientzat, Emmanuel Macronek ebatsi baitu NATOk soldaduak bidali beharko lituzkeela Ukrainara.

Ideiak Estatu Batuen ezezkoa jaso duenez, amorrazioak jota, errepublikako presidentek tematuta jarraitu du Europa guztia gerran sartzeko ideiarekin. "Ez da koldarkerietarako garaia", esan du. "Historiak eskatzen digun mailan egon behar dugu".

Napoleon izan zen Errusiara soldaduak bidali zituen azken buruzagi frantziarra. Enperadorea Moskuraino heldu zen, Kremlin lo egiteraino. Baina errusiarrek Grande Armee zelakoari kristoren jipoia eman zioten, eta inbasiora joandako 650.000 soldaduetatik 40.000 besterik ez zen bizirik itzuli. Historiaz hitz eginda, dabilela kontuz, beraz, Napoleon txikia.

BUKATZEKO

Hamargarren urtemuga ospatzeko, Teidera igoera

Hamar urte bete ditu aurten Bergarako IGAM taldeak, eta, hori ospatzeko, Teidera igo dira. 2014an egin zuten lehen ekimena, Oxfam erakundeak antolatutako 100 kilometroko lasterketa solidarioan. Geroztik, beste hainbat elkartasun ekintza egin dituzte

Gontzal Belategi Zubia BERGARA

Begarako IGAM taldeko kideak –Juanxo Aranes, Gorka Manso, Txus Iglesias, Aitor Garitano, Jon Ander Garitano eta Alberto Samaniego– hamar urtez ibili dira han eta hemen lasterketetan; betiere, ekimen solidarioak finantzatzeko asmoz. Urtemuga ospatzeko Teidera igotzea erabaki dute.

Kasualitatez hasitako ibilbidea

Kasualitatez hasi zuten euren ibilbidea, 2014an. Taldeko kide diren Jon Ander Garitanok eta Txus Iglesiasek zera diote: "Tabernan geundela, 100 kilometroko lasterketa solidario baten inguruko albiste bat irakurri genuen egunkarian". Gironan izan zen Intermon Oxfam gobernuz kanpoko erakundearen Trailwalker lasterketa.

Lau pertsonako lasterketa da Trailwalker, beste bi pertsonaz lagunduta egin behar dena. Parte hartzeko, 1.500 euro batu behar ditu talde bakoitzak, eta IGAMek 4.576 euro batzea lortu zuen. Lasterketaren helburua klima aldaketak eragindako pobretzeari aurre egiteko finantzaketa lortzea da; egindako kilometro bakoitza ur bilakatuta.



IGAM taldeko kideak Teiden, urteurrena ospatzen. IGAM

Ibilbide oparoa

Lehen lasterketa haren ostean, beste hainbat ekimenetan hartu dute parte taldeko kideek. Beste behin egin zuten Gironako 100 kilometroko Trailwalker; kasu hartan, 4.026 euro batu

zituzten. Haren ostean, Sahara-ko maratokia hartu zuten parte. Hauxe diote taldekideek: "Pentsatu genuen... behin honetan hasita, zergatik ez dugu Sahara maratokia egiten, haiei ere laguntzeko?". 2016ko otsailean egin

zuten maratokia, eta esperientzia ikaragarria izan zen haientzat: "Astebete pasa genuen kanpamentuan; ze baldintzatan bizi diren ikusten duzu, eta oso gogorra da". 5.000 euro batu zituzten, hango eskola batean gosari programa bat ezartzera bideratu zirenak.

Saharakoa egin aurretik, beste lasterketa bat ere irudikatu zuten; kasu hartan, Bergaran bertan laguntzeko. Leire Martin bergararrari babes emateko eta muskulu-atrofia espinalari aurre egiteko lanean diharduen Fundame fundazioari laguntza eskaintzeko jaialdia egitea bururatu zitzaion. "Gainontzekoak laguntzen gabilta eta herrikide bati ez diogu lagunduko?", hausnartu zuten. 2017ko ekinean egin zuten jaialdia, eta, taldekideek adierazi dutenez, "herri osoa konprometitu zen". 16.000 euro batu zituzten, azkenean.

Geroztik, pandemiaren eraginez, eta laguntzeko zergati egoiki bat aurkitu ez dutenez, lasterketa solidarioerik egin gabe dabilta. Hala ere, ez daude geldirik, eta Cavallseko bidea egin zuten, adibidez. Laguntzeko moduko kausa baten bila dabilta, eta gustura jasoko dituzte proposamenak.

Teideko ospakizuna

Urtemuga ospatzeko, Teidera igo berri dira taldekideak. 040 izenez ezagutzen den ibilbidea egin zuten; 0 metrotan hasi ziren, Socorro hondartzan; gero, 3.718 metrora igo; eta berriro ere 0 metrora jaitsi. Gau bat Teiden pasa zuten, aterpearen kanpoaldean lo eginda. Taldekide batzuen ustez, fisikoki egin duten proba gogorrena izan da Teidekoa.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

NAIA HERRAEZ

SUKENA TALDEKO ABESLARIA

'GALDEGAZTE' SAIOAN

MARTXOAREN 12AN, MARTITZENA,
19:30EAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

TXANTXIKU IKASTOLAKO IKASLEEK
EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

